



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2007ko otsailaren 21a

13. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Nafarroako ondareari buruzkoa ([2. or.](#)).
- Foru Lege proiektua, landare osasunari buruzkoa. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Batzordeak onetsitako irizpena ([40. or.](#)).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da obesitate abdominalari eta gaixotasun kardiobaskularrei buruzko kanpainak egin ditzan. Osasun Batzordeak onetsia ([54. or.](#)).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da fibromialgiako eta neke kronikoaren sindromeiko gaixoen tratamendurako jarduketa protokolo bat taxutu dezan. Osasun Batzordeak bazter utzia ([54. or.](#)).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da diabetesa duten pertsonen identifikazioa, txapa edo eskumuturreko baten bitartez, erraztu dezan. Osasun Batzordeak bazter utzia ([55. or.](#)).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bulimia edo nerbio-anorexia duten gaixoentzat berariazko plan bat abian jar dezan. Osasun Batzordeak bazter utzia ([55. or.](#)).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako ondareari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 19an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2007ko otsailaren 12an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako ondareari buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 125, 149.1 eta 150. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako ondareari buruzko Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz tramitatzea, Erregelamenduko 149 eta 150. artikuluetan ezarritako berezitasunak kontuan hartuta.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2007ko martxoaren 12ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2007ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Nafarroako ondareari buruzko Foru Lege proiektua

AURKIBIDEA

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

I. KAPITULUA

Edukia, iturriak eta sailkapena

1. artikulua. Xedea.
2. artikulua. Nafarroako ondarea.
3. artikulua. Araubide juridikoa.
4. artikulua. Sailkapena.
5. artikulua. Jabari publikoko ondasun eta eskubi-deak edo demanialak.
6. artikulua. Jabari pribatuko ondasun eta eskubi-deak edo ondarekoak.

II. KAPITULUA

Jarduteko gaitasuna eta eskumenak

7. artikulua. Jarduteko gaitasuna.
8. artikulua. Eskumenak.

III. KAPITULUA

Ondare kudeaketaren printzipioak

9. artikulua. Itunak egiteko askatasuna.
10. artikulua. Ondare negozioen araubide juridikoa.
11. artikulua. Kudeaketa planak.
12. artikulua. Eraikin administratiboak optimizatzeko planak.
13. artikulua. Kudeaketa sistema bereziak.

II. TITULUA

Eskurapena

I. KAPITULUA

Ondasun eta eskubideen eskurapena

1. atala

Eskuratzeko modu eta negozio juridikoak

14. artikulua. Eskurapen moduak.
 15. artikulua. Hutsik dauden higiezinak.
 16. artikulua. Esku utzitako saldo eta gordailuak.

2. atala

Kostu bidezko eskurapena

17. artikulua. Nahitaezko desjabetzearen bidezko eskurapena.
 18. artikulua. Ondasun higiezinak eta higiezinak gaineko eskubideen kostu bidezko eskurapena.
 19. artikulua. Ondasun higigarrien kostu bidezko eskurapena.
 20. artikulua. Jabetza gorpuzgabeen eskubideen eskurapena.
 21. artikulua. Beste eskubide batzuen kostu bidezko eskurapena.
 22. artikulua. Berezitasunak ondasun edo eskubideak eskuratzean.
 23. artikulua. Erakunde autonomoek ondasun eta eskubideak eskuratzea.

3. atala

Doako eskurapena

24. artikulua. Jaraunspenak, legatuak eta dohaintzak.
 25. artikulua. Administrazio lagapenak.

4. atala

Beste eskurapen modu batzuk

26. artikulua. Usukapio, akzesio edo okupazio bidezko eskurapena.
 27. artikulua. Ondasun eta eskubideak eskuratzea beste administrazio batzuek eskualdatuta.
 28. artikulua. Ondasunak eta eskubideak adjudikatzea eta ordainean ematea epaile baten edo administrazioaren ebazpen bidez.

II. KAPITULUA

Ondasunen errentamendua

29. artikulua. Ondasun higiezinak errentamendua.
 30. artikulua. Prozedura.
 31. artikulua. Errentan hartutako ondasunaren erabilera.

32. artikulua. Kontratuak aldeztu aurretik suntsitzea.
 33. artikulua. Kontratu mistoak.
 34. artikulua. Ondasun higigarrien errentamendua.

III. TITULUA

Besterentzea eta lagapena

I. KAPITULUA

Ondasun eta eskubideak besterentzea

35. artikulua. Ondare-ondasun eta eskubideak besterentzea.
 36. artikulua. Ondasun higiezinak eta higiezinak gaineko eskubideak besterentzea.
 37. artikulua. Ondasun higiezinak eta higiezinak gaineko eskubideak besterentzeko moduak.
 38. artikulua. Ondasun higiezinak eta higiezinak gaineko eskubideak besterentzeko prozedura.
 39. artikulua. Higigarriak besterentzea.
 40. artikulua. Eduki ekonomikoko beste eskubide batzuk besterentzea.
 41. artikulua. Ondasun eta eskubideen trukea.
 42. artikulua. Auzipeko ondasunak.
 43. artikulua. Erakunde autonomoek ondasun eta eskubideak besterentzea.

II. KAPITULUA

Ondasun eta eskubideen doako lagapena

44. artikulua. Ondasun higiezinak eta haien gaineko eskubideen jabetzaren doako lagapena.
 45. artikulua. Ondasun higiezinak eta haien gaineko eskubideen erabileraren doako lagapenak.
 46. artikulua. Ondasun higigarrien eta eskubide gorpuzgabeen doako lagapenak.

IV. TITULUA

Ondarearen babesa eta defentsa

I. KAPITULUA

Ondare inbentarioa eta erregistro araubidea

47. artikulua. Ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorra.
 48. artikulua. Eskumenak.
 49. artikulua. Inbentario Orokorreko inskripzioaren edukia eta kontrola.
 50. artikulua. Inbentarioa osatu eta gaurkotzea.
 51. artikulua. Inbentario Orokorren izaera.
 52. artikulua. Erregistroan inskribatzea.

II. KAPITULUA

Ahalmenak eta prerrogatibak
ondarearen defentsan

53. artikulua. Ahalmenak eta prerrogatibak.
54. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko ondarearen defentsan laguntzeko betebeharrak orokorra.
55. artikulua. Ikertzeko eta ikuskatzeko ahalmena.
56. artikulua. Mugatzeko ahalmena.
57. artikulua. Jabetza berreskuratzeko ahalmena.
58. artikulua. Maizter-iraizpen administratiborako ahalmena.
59. artikulua. Enbargaezintasuna, karga, transakzioa eta arbitrajea.
60. artikulua. Ondasunak begiratu eta zaintzeko betebeharrak.

III. KAPITULUA

Erantzukizunak eta zehapenak

61. artikulua. Erantzukizunak.
62. artikulua. Arau-hausteak.
63. artikulua. Zehapenak.
64. artikulua. Preskripzioa.
65. artikulua. Prozedura.

V. TITULUA

Jabari publikoko ondasunen afektazioa,
atxikipena eta aldaketa

I. KAPITULUA

Afektazioa eta desafektazioa

66. artikulua. Afektazioa.
67. artikulua. Esanbidezko afektazioa.
68. artikulua. Isilbidezko afektazioa
69. artikulua. Presuntziosko afektazioa.
70. artikulua. Desafektazioa.

II. KAPITULUA

Jabari publikoko ondasunen aldaketa

71. artikulua. Kontzeptua eta motak.
72. artikulua. Barneko aldaketa.
73. artikulua. Administrazio arteko aldaketa.

III. KAPITULUA

Atxikipena eta desatxikipena

74. artikulua. Jabari publikoko ondasun eta eskubideak Foru Komunitateko administrazioko departamentuei atxikitzea.

75. artikulua. Jabari publikoko ondasun eta eskubideak Foru Komunitateko administrazioko erakunde publikoei atxikitzea.

76. artikulua. Ondare-ondasun eta eskubideak atxikitzea.

77. artikulua. Ondasunak eta eskubideak Parlamentuko erakundeei eta beste entitate batzuei atxikitzea.

78. artikulua. Beste administrazio publiko batzuei atxikitzea.

IV. KAPITULUA

Prozedura, desadostasunak ebaztea
eta organoen ondorengotza

79. artikulua. Prozedura.
80. artikulua. Organoen ondorengotza.
81. artikulua. Desadostasunak.

VI. TITULUA

Jabari publikoa

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

82. artikulua. Jabari publikoaren xedea.
83. artikulua. Titulu gaitzailearen beharra.

II. KAPITULUA

Jabari publikoko ondasun eta
eskubideen erabilera

84. artikulua. Jabari publikoko ondasunen erabilera motak.
85. artikulua. Erabilera erkide orokorra.
86. artikulua. Erabilera erkide berezia.
87. artikulua. Erabilera pribatiboa.
88. artikulua. Aldi baterako okupatzeko baimena.
89. artikulua. Emakida demanialak.
90. artikulua. Emakidak emateko prozedura.
91. artikulua. Emakidak azkentzea.
92. artikulua. Emakida azkentzearen ondorioak.
93. artikulua. Desafektatutako ondasunen gaineko emakiden eta baimenen likidazioa.
94. artikulua. Lehentasunez eskuratzeko eskubideak.
95. artikulua. Erabiltzeko baimena kontratu publikoetatik datorrenean.
96. artikulua. Erreserba demaniala.

VII. TITULUA
Jabari pribatua

97. artikulua. Ondare-ondasunak erabiltzeko irizpideak.
98. artikulua. Eskumena.
99. artikulua. Ustiatzeko moduak.
100. artikulua. Partikularren ustiapena.
101. artikulua. Ondare-ondasunak ustiatzeko kontratuak.
102. artikulua. Kontraprestazioak.

VIII. TITULUA
Enpresa-ondare publikoa

I. KAPITULUA
Xedapen orokorrak

103. Aplikazio esparrua.
104. Enpresa-ondare publikoaren berregituraketa.

II. KAPITULUA
Enpresa arloko entitate publikoak

105. artikulua. Ondarearen gaineko araubidea.

III. KAPITULUA
Sozietate publikoak

106. artikulua. Araubide juridikoa.
107. artikulua. Sozietateak sortu, aldatu eta desgitea.
108. artikulua. Estatutuak.
109. artikulua. Diruzkoak ez diren ekarpenak.
110. artikulua. Nafarroako Foru Komunitatearen ordezkari-tza sozietate publikoetan.
111. artikulua. Gobernu eta administrazio organoak.
112. artikulua. Erantzukizuna eta bateraezintasuna.
113. artikulua. Sozietate publikoen atxikipena.

114. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Ondarearen ondasunak atxikitzea eta Inbentarioa.

115. artikulua. Auditoretza eta kontrol batzordea.

IV. KAPITULUA
Sozietateen partaidetzak

116. artikulua. Kapitala ordezkatzeko duten tituluak kostu bidez eskuratzea.
117. artikulua. Kapitala ordezkatzeko duten tituluak kostu bidez besterentzea.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

- Lehenbizikoa. Hirigintza arloko jarduketak
- Bigarrena. Lurzoruaren ondare publikoa.
- Hirugarrena. Administrazioaren berariazko jabetzei buruzko berezitasunak.
- Laugarrena. Abeldideak.
- Bosgarrena. Animaliak.
- Seigarrena. Zenbatekoak eguneratzea.
- Zazpigarrena. Administrazioaren isiltasuna ondare-ondasunen gaineko prozeduretan.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

- Lehenbizikoa. Foru lege honek indarra hartzen duenean hasiak diren prozeduretan aplikatu beharreko arauak.
- Bigarrena. Ondasun eta eskubide higiezinaren egotzearen erregularizazioa.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra. Indargabetzen diren xedapenak.

AZKEN XEDAPENAK

- Lehenbizikoa. Foru lege honek gehiengo osoa behar du.
- Bigarrena. Nafarroako Gobernuari baimena ematea.
- Hirugarrena. Foru Legeak indarra hartzea.

Nafarroako ondareari buruzko Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak, 45.6 artikuluan, adierazten du foru lege batek arautuko duela Nafarroako Ondarea, baita horren administrazioa, babesa eta kontserbazioa ere. Manu horrek Nafarroako Foru Komunitateak bere ondasun eta eskubideen araubide juridikoa arautzeko duen erabateko eskumena berresten du. Eskumen hori Nafarroak arlo horretan dituen eskubide historikoak aplikatzetik dator eta Espainiako Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarriaren lehenengo lerroaldean adierazita dago propio haiek errespetatu eta babestuko direla.

Nafarroako Ondareari buruzko irailaren 27ko 17/1985 Foru Legeak Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 45.6 artikuluan agertzen den erakunde-agindua betetzeko asmoz prestatu zen eta Nafarroako Foru Komunitatearen autogobernu prozesuaren oinarri sendoenetako bat izan da, bere Ondareko ondasun eta eskubideen araubide juridikoa finkatu baitzuen, zerbitzu publikoak emateko eta Nafarroari dagozkion eskumenak erabili ahal izateko funtsezko oinarri izan dena.

Bi hamarkada luze joan dira aldarrikatu zenetik eta denbora honetan arau hori txertatu zeneko tesuingurua eta arautu beharreko egoera aldatu dira. Horregatik esparru arau-emaile berri baten beharra azaleratu da. Transferentzien prozesua bukatu delarik eta Nafarroako Foru Komunitateak eskumen gehiago hartu dituzenez, handitu dira, orobat, erkidegoaren giza baliabideak eta baliabide materialak. Nafarroako Foru Komunitateak gero eta baliabide publiko gehiago dituzenez, horiek egokiago kudeatzeko aukera emanen duten tresna arau-emaileak behar dira, bai eta ondare publikoa hobeki aprobetxatzea ahalbidetzen duten figura juridiko berriak ere. Urte hauetan estatuko araudi orokorra eta, bereziki, Nafarroako Foru Komunitatekoa modernizatu egin dira, eta horrek eragina izan du administrazioaren antolaketa eta jarduera arautzeko oinarriko lege-arauetan eta, ondorioz, baita titularitate publikoko ondasun eta eskubideen araubidean ere, zuzenean edo zeharka. Gainera, administrazioaren jardunak berak eta garatu diren politika sektorialek araudia zatikatzea ekarri dute eta, horrenbestez, Nafarroako Foru Komunitatearen Ondarea osatzen duten ondasun masa jakin batzuek arautegi bereziak dituzte.

Horregatik guztiagatik, foru lege berriak oinarriko helburu hauek ditu:

– Arlo honetako administrazio zuzenbide orokorra ezartzea, kudeaketa koordinaturako sistemen eta jarduketa ildo orokorren bitartez ondareei buruzko osoko politika bat garatu ahal izateko, horrela gaudituko baita ondare publikoak administrazio sistemen egungo zatikatzea eta politika publikoen multzoari erantzuna emanen baitzaio.

– Ondarearen kudeaketa modernizatzea, ondarearen gaineko legeria administrazioaren jarduketa arautzen duten arau orokorretan txertatuz, prozedurak malgutu eta sinplifikatuz, kudeatzeko teknika berriak eta kontratu mota berriak onartuz, baliabide publikoen erabilera arrazionalizatzea eta teknologia berriak ondarearen esparruan erabat sartzea ahalbidetzen duten baliabideak arautuz eta baliabide elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabiltzeko aukera eskainiz.

– Administrazio publiko ezberdinen arteko harremanak errazteko baliabidea ezartzea, jabari publikoko ondasunak elkarri eskualdatzeko bideak erraztuz, higiezin beharrak merkatu pribatura jo behar izan gabe konpondu ahal izateko, izan ere, jabari publikoa ez da ondarearen kategoria estatiko bat eta, gainera, errealitateak erakusten du horrelako ondasunen trafikoa egon badagoela.

– Enpresa-ondare publikoaren gaineko arauak ezartzea.

Foru legeak ehun eta hamazazpi artikulua ditu, zortzi titulutan bilduak, zazpi xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta hiru azken xedapen. Legeak honako arlo hauek garatzen ditu, hurrenez hurren: Nafarroako Ondarearen kontzeptua, ondare motak eta ondarearen kudeaketa, ondasun eta eskubideen eskurapena, besterentzea eta lagapena, babesaren, defentsaren eta kontserbazioaren gaineko esparrua, jabari publiko eta pribatua eta horiek erabiltzeko moduak eta, azkenik, enpresa-ondare publikoa.

I. tituluan ondarearen kontzeptua eta araubide juridikoa finkatzen dira, ondasun eta eskubideak sailkatzen, eskumenak esleitzen eta ondarea kudeatzeko printzipioak ezartzen.

Ikuspuntu objektibo batetik, Nafarroako Foru Komunitatearen Ondarearen barruan edozein tituluren bidez hark dituen ondasun eta eskubideen multzoa sartzen da eta, beraz, egin ohi den banaketari eusten dio, hots: batetik, jabari publikoko ondasun eta eskubideak edo demanialak eta, bestetik, jabari pribatukoak edo ondarekoak. Subjektiboki, ondare horrek titularitate publiko bakarrera

jotzen du, foru legearen aplikazioan hedadura ezberdina badu ere, izan ere, izaera eta kategoria ezberdineko ondasunak izateak ondarearen gaineko araubide juridiko bakarra izatea galarazten du (hori litzateke egokiena).

Foru lege honen asmo bateratzailea, hain zuzen ere, egiten duen eskumenen banaketarekin indartzen da. Batetik, ondarearen kudeaketa berezia aurreikusten da, ondarearen gaineko politikaren ildo nagusiek osatzen dutena, eta hori Nafarroako Gobernuari dagokio; bestetik, kudeaketa arrunta eta arlo juridikoaz kanpoko ordezkari, oro har, ondarearen gaitako eskumenak hartzen dituen departamentuari dagokiona, hori baita arlo honetako eskumen gehiago dituen. Ordezkaritza judiziala lehendakaritzaren arloko eskumenak dituen departamentuari dagokio.

Administrazioak jarduteko dituen aukerak hantzen dira, negoziatzeko askatasunetik abiatuta, ondareekin egiten diren negozio juridiko guztiak onartzen baitira, eta ondarearen kudeaketa hobetzeko eta bulego administratiboak hartzen dituzten tokiak ahalik eta eraginkorrenik erabiltzeko baliabide batzuk jasotzen dira, kudeaketa planak eta optimizazio planak esate baterako, hala nola kudeatzeko beste sistema berezi batzuk ere.

II. eta III. tituluetan ondareekin egiten diren negozio juridikoei aplikatu beharreko araubidea jasotzen da (eskurapena, besterentzea eta lagapena) eta hori da araubidearen ardatz nagusia. Foru legearen II. tituluaren eskurapen moduak eta eskura daitezkeen ondasun eta eskubideak agertzen dira. Foru legeak berak aginduta eskuratu beharreko ondasunen arloan berrikuntza batzuk daude, hutsik dauden higiezinaren eskurapena konparazio batera, eta eskutik utzitako saldo eta gordailuak, eta orobat, administrazioaren lagapenaren bidez doan eskuratzeko. Figura berri horren asmoa administrazio publikoen artean jabari publikoko ondasun eta eskubideak elkarri trukatzeko erraztasunak jartzea da. Gainera, zorrotzago arautzen dira eskurapen eskumena duten organoak eta haien jarduketa-prozedura finkatzen. Ondasunak errentan emateko arloa bereziki jorratu da, ezagarrak bereziak dituelako. Azkenik, ondasunak eta eskubideak eskuratzeko espezialitate batzuk bildu dira, esate baterako, lizitazio prozeduretan parte hartu, ondasun eta eskubideen eskurapenaren prezioaren zati bat gauzatan ordaindu eta etorkizuneko ondasunak eskuratu ahal izatea.

III. tituluak besterentzea eta lagapena arautzen ditu. Ondasunak eta eskubideak besterentzeko modalitate bat eransten da, hots, lehiaketa, batez ere besterendu beharreko eskubide edo ondasuna esleipen-hartzaileak interes orokorreko helburue-

tarako erabili behar duenerako, eta zuzeneko besterentzea noiz den zilegi zehazten da. Prozedurei dagokienez, beharrezkoak ez ziren tramite batzuk edo balio gutxiko batzuk kendu dira eta, higiezinaren eta haien gaineko eskubideen kasuan, besterentzeko bete beharreko baldintzak sendotu dira. Esleipen sistema elektronikoak erabiltzeko aukera ematen da, edozein delarik besterentzeko modua. Trukea zorrotzago arautzen da, bereziki etorkizuneko ondasun higiezinekin edo eraikitze bidean daudenekin egiten diren trukeak, dela ondasun eta eskubideen jabetza trukatzeko denerako, dela haien erabilera trukatzeko denerako.

IV. tituluak ondarea babestu eta defendatzeko baliabideak arautzen ditu. Garrantzi handia ematen zaio Nafarroako Foru Komunitateko Ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorrari, funtsezko baliabidea baita ondarea kudeatzeko eta erregistro inskripzioak egiteko. Ondarea defendatzeko ahalmen eta prerrogatibak zehazten dira, jabari publikoko ondasun eta eskubideen eta zerbitzu publiko bati afektaturik dauden ondare ondasun eta eskubideen besterezintasunari, preskripzio ezintasunari eta enbargaezintasunari eransten zaizkionak. Ikertzeko eta ikuskatzeko ahalmena erabiltzeko, ondasun-eskubideak mugatzeko, jabetza berreskuratzeko eta maizter-botatze administratiboa egiteko prozedura eta eskumenak finkatzen dira eta jende guztiak lagundu behar diren printzipioa azpimarratzen da, baita haiek gorde eta zaintzekoa ere, printzipio horiek Foru Komunitatearen zerbitzuko langileen eta agintarien jardunbidearen oinarrian egon behar dute eta. Azkenik, babeserako baliabideak zehapen araubide zorrotz batekin osatzen dira.

V. tituluaren afektazioa, aldaketa demanialak eta atxikipena arautzen dira. Hori horrela, jabari publikokotzat hartzeko irizpide nagusia erabilera orokor bati edo zerbitzu publiko bati afektatzea izanen da. Esanbidezko afektazioarekin batera, isilbidezkoa eta presuntziozkoa ere arautzen dira. Horrela, ondare eta eskubide demanialen araubidea benetan erabilera orokorrerako edo zerbitzu publikorako erabiltzen direnei aplikatzea ahalbidetzen da, afektatzeko esanbidezko egintzarik ez badago ere. Berrikuntza nabarmen bat dago: administrazioen arteko aldaketa demaniala. Horren bidez, Nafarroako Foru Komunitatearen Ondare diren ondasun eta eskubide demanialak beste administrazio publiko bati afektatzen zaizkio baina demanialtasuna galdu gabe. Horrelakoetan, libre izanen da titularitatea eskualdatzea edo ez. Baliabide horrekin administrazio publikoen jabari publikoko ondasun eta eskubideen lagapenak egiteko erraztasunak eman nahi dira.

Departamentu eta erakunde publikoei, Parlamentuko erakundeei eta Foru Komunitateko beste entitate publikoei baliabideak esleitzea berekin dakarren atxikipena ere araupetzen da, eta baita beste administrazio publikoei dagokiena ere; izan ere, atxikitzen zaizkien ondasun eta eskubideen kudeaketa, defentsa, zainketa eta hobekuntzarako eskumenak ematen zaizkie. Jabari publikoaz gain, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren departamentu eta erakunde publikoei ondare-ondasun eta eskubideak atxikitzeak aukera ezartzen da.

VI. tituluak jabari publikoko ondasun eta eskubideak erabiltzeko araubidearen ildoak ezartzen ditu, afektazioarekin bateragarria denean eta interes orokorren aurkakoa ez bada. Horretarako, erabilera erkidea ezartzen du, orokorra edo berezia, eta baita erabilera pribatiboa ere, eta jabari publikoaren arloko administrazio baimen eta emakiden araubidearen arauak ematen ditu erabilera horren arabera.

VII. tituluak jabetza pribatua arautzen du, eta ondare-ondasun eta eskubideen erabilerari dagokionez errentagarritasunik handiena ematen du arau orokortzat, zeinak ez baitu galarazten, kasu jakin batzuetan, beste irizpide batzuk kontuan hartzea politika publikoak babestu eta garatzeko; publizitatea eta lehiakortasuna ere aintzat hartzen ditu, ustiapena jende pribatuak egiten duenean, eta zerrendan ematen dira esleipen zuzena egiteko moduko kasuak.

Azkenik, VIII. tituluak, berritasun gisa, enpresa-ondare publikoa araupetzen du, zeina osatzen baitute enpresa-entitate publikoek, beren kapital soziala Foru Komunitateko administrazioaren titularitate zuzen eta eskusiboari eta interes publikoko helburuak betetzeari etengabe lotetsia duten sozietate publikoek (eta sozietate horientzako arau berezi sail bat ematen da) eta gainerako sozietate partaidetzek, zer diren zehazturik. Halaber enpresen kapitalak ordezkatzan dituzten tituluak eskuratu eta besterentzeko prozedura ere arautzen da.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

I. KAPITULUA

Edukia, iturriak eta sailkapena

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea Nafarroako Foru Komunitatearen Ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideen araubide juridikoa ezartzea da.

2. artikulua. Nafarroako ondarea.

1. Edozein tituluz Nafarroak bere dituen ondasun eta eskubide guztiek bildurik osatzen dute Nafarroako Foru Komunitatearen Ondarea.

2. Nafarroako Foru Komunitatearen Ondarean sartzen dira Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren ondasun eta eskubideak, hari loturiko edo haren menpeko gainerako erakunde publiko eta Zuzenbide Publikoari loturiko gainerako entitateenak, haren aholku eta kontsultako administrazioarenak eta Parlamentuko erakundeenak.

3. Nafarroako Foru Komunitatearen Ondaretik kanpokotzat jotzen dira, Nafarroako Zerga Ogasunaren dirua, kredituak eta gainerako finantza-baliabideak, eta, halaber, enpresa-entitate publikoen kasuan, diruzaintzaren osagai diren baliabideak.

3. artikulua. Araubide juridikoa.

1. Nafarroako Foru Komunitatearen Ondareko ondasun eta eskubideak foru lege honen eta ondoriozko erregelamendu mailako xedapenen araupean egonen dira, eta baita Nafarroako Foru Zuzenbide Administratiboko gainerako arauen pean ere, eta, halakorik ezean, Nafarroako Foru Zuzenbide Pribatuko arauen pean.

2. Ura, basoak, meatzeak eta gainerako administrazioaren jabetza bereziak beren xedapen berariazkoen araupean egonen dira, eta, ordezko izaeraz, foru lege honetako aginduen pean.

3. Ondare berezien osagai diren ondasunak, lehenik, haiek sortu zituen foru legeak gobernatuko ditu, eta, halakorik ezean, foru lege honen aginduek.

Ondorio horietarako, xede berariazkoek atxikiak diren ondasun eta eskubideen multzoak osatzen du ondare berezia, Ondarearen batasuna ezertan galarazi gabe.

4. Foru lege hau Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ondasun eta eskubideei aplikagarria da, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren sorrerari buruzko apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legearekin eta Unibertsitatei buruzko abenduaren 6/2001 Lege Organikoarekin bat, edo, hala bada, haiek ordeztu edo garatzen dituztenekin bat.

5. Nafarroako Foru Komunitateko enpresa-entitate publikoen, sozietate eta fundazio publikoen ondasun eta eskubideak ordenamendu juridiko pribatuak gobernatuko ditu, foru lege honetatik aplikagarri zaizkien xedapenak ezertan galarazi gabe.

4. artikulua. Saillapena.

Nafarroako Foru Komunitatearen Ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak jabari publikoak edo demanialak eta jabari pribatukoak edo ondarekoak izan daitezke.

5. artikulua. Jabari publikoko ondasun eta eskubideak.

1. Titularitate publikokoak izanik, erabilera orokorrari edo zerbitzu publikoari afektatuak dira jabari publikoko ondasun eta eskubideak, eta baita lege batek halaxe deklaratzeko dituenak ere.

Dena dela, jabetza publikokoak dira Foru Komunitatearen titularitateko higiezinak, baldin eta bertan haren organo edo erakundearen zerbitzuak, bulegoak edo langelak kokaturik baldin badaude.

2. Jabari publikoko ondasun eta eskubideak besterenezinak, preskribaezinak eta enbargaezinak dira.

6. artikulua. Jabari pribatuko ondasun eta eskubideak edo ondarekoak.

1. Jabetza pribatukoak edo ondarekoak dira Nafarroako Foru Komunitatearen titularitatekoak izanik jabari publikokoak ez direnak.

2. Dena dela, ondarekoak dira honako hauek:

a) Erabilera orokorrari edo zerbitzu publiko bati afektatuak ez diren ondasun eta eskubideak.

b) Errentamendu eskubideak.

c) Jabetza pribatuko ondasunen titularitatekoak sortutako eskubideak.

d) Jabetza gorpuzgabeen eskubideak.

e) Merkataritzako sozietateen balore eta akzio eta kapitaleko partaidetzak edo haiek jaulkitako obligazioak ordezkatzen dituzten tituluak.

f) Etorrizun eta aukeren kontratuak eta beste kontratu batzuk, ekonomia edo obligazio izaerako partaidetzenak.

II. KAPITULUA**Jarduteko gaitasuna eta eskumenak**

7. artikulua. Jarduteko gaitasuna.

1. Nafarroako Parlamentuak autonomia du ondare arloan, foru lege honetan ezarritakoaren menpean betiere, eta berari dagokio eskuratzen dituen ondare eta eskubide guztien gaineko jabetza-ahalmenez baliatzea. Ondare eta eskubide horiek xede dituzten egintzak Nafarroako Foru Komunitateko Ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorrean inskribatuko dira.

2. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak ahalmen juridiko osoa du ordenamendu juridikoan ezarritako bitartekoen bidez edozein eratako ondasun eta eskubide eskuratu, eduki eta xedatzeko, eta baita Nafarroako Foru Komunitateko Ondarea defendatzeko bidezko diren egintzak gauzatu eta errekursoak jartzeko ere.

3. Erakunde autonomoek eta Zuzenbide Publikoari loturiko gainerako entitateek edo Foru Komunitatearen administrazioaren menpekoek, haren aholku edo kontsultarako administrazioak eta Nafarroako Parlamentuaren menpeko erakundeek, oro har, ez dute autonomiarik ondasun eta eskubideak eskuratu eta xedatzeko, foru legeetan aurreikusitako salbuespenak ezertan galarazi gabe.

4. Legeria zibilaren arauen arabera jarduteko ahalmena duten pertsona fisiko edo juridikoek zilegi dute ondare arloko negozio juridikoak egitea Nafarroako Foru Komunitateko administrazioarekin.

8. artikulua. Eskumenak.

1. Nafarroako Gobernuari dagokio, ondare gaietan eskumena duen departamentuak proposaturik, ondare politikaren ildo nagusiak ezartzea.

Nafarroako Gobernuari dagokio, halaber, 4.000.000 eurotik gorako kontratuak egiteko baimena ematea, eta hortik beherako kasuan, berriz, kontratuaren garrantzia dela-eta, ondare gaietan eskumena duen kontseilariak, Nafarroako Gobernuari baimena eman dezan haren esku jarzea erabakitzen duenean.

2. Ondare gaietan eskumena duen departamentuari dagokio Nafarroako Gobernuak finkatutako ondare politika gauzatzea eta Nafarroako Foru Komunitateko Ondareko ondasun eta eskubideak modu egokian kudeatzeko irizpideak ezartzea, bereziki negozio juridiko konplexuetan, baldin eta zenbait ondare politikatan eragina badute edo beste administrazio publiko batzuekin elkarlanean gauzatzen badira, betiere departamentu edo erakunde publiko interesatuei entzutea emanda.

Ondorio horietarako, ondare gaietan eskumena duen departamentuak ordezkaririk izan ditzake, kasuan-kasuan erabakitzen diren baliabide eta eginkizunekin, Nafarroako Foru Komunitateko departamentu, erakunde, enpresa, kontseilu, organismo eta bestelako entitate publikoetan, baldin eta Nafarroako Foru Komunitatearen Ondareko ondasun eta eskubideak erabiltzen badituzte, zeinek ondasun edo eskubide horien administrazio, kudeaketa eta kontserbazioaz arduratzeko unitateak edo arduradunak izendatu beharko baitituzte, ondare gaietan eskumena duen departamentuare-

kin beren jarduketak koordinatzeko, esleituak dituzten baliabideen erabilerarik egokiena eta optimizazioa helburu.

Halaber, ondare gaietan eskumena duen departamentuak, Nafarroako Foru Komunitatearen osagai diren edo izatekoak diren ondasun higiezin eta haien gaineko eskubideei buruzko hitzarmenak, kontratuak eta gainerako negozio juridikoak gauzatu aurretik, eta agindua den moduan, txostena eman beharko du.

3. Ondare gaietan eskumena duen departamentuak du ahalmena Nafarroako Foru Komunitatearen osagai diren edo izatekoak diren ondasun eta eskubideei buruzko hitzarmenak, kontratuak eta gainerako negozio juridikoak gauzatzeko, haien gaineko jabetza-ahalmenez baliatzeko eta, kasu bakoitzean eskudun diren organoen bitartez, haren ordezkaritza estrajudiziala bere gain izateko, betiere foru lege honetan besterik ezarri ezean.

Hala ere, Nafarroako Gobernuak, ondare gaietan eskumena duen kontseilariak proposaturik, eskualda diezaieke eskumen hori beste departamentu edo erakunde publiko batzuei, ondasun edo eskubide horiek afektatu behar zaizkion zerbitzua-zen berezitasunak kontuan harturik, egoki iruditzen bazaio.

4. Administrazio jabetza berariazkoak eta ondare bereziak kudeatu behar dituzten Nafarroako Foru Komunitateko administrazio departamentu edo erakunde publikoek beren eskumenen esparruan gauzatu dute ondare politika. Hala ere, ondasunak politika edo helburu desberdinetarako izan daitezkeenean, ondare gaietan eskumena duen departamentuak behin betiko xedea emanen die, departamentu edo erakunde interesatuei entzutea eman eta gero.

Gainerako kasuetan, ondare gaietan eskumena duen departamentuak emandako zuzentarau eta jarraibideen arabera gauzatu dute ondare politika departamentuek, erakunde publikoek eta gainerako ente publikoek. Hala ere, Nafarroako Foru Komunitatearen Ondareko ondasun eta eskubideak, foru lege honetan ezarritako moduan beren helburuak betetzeko atxikiak, erabili, administratu, zaindu, defendatu eta hobetzeko eskumena dute, ez besterik.

5. Nafarroako Ondareko ondasun eta eskubideak auzitegian defendatzeko ordezkaritza lehendakaritza gaietan eskumena duen departamentuak du eratzkia, erregelamenduz ezartzen denaren arabera.

III. KAPITULUA

Ondare kudeaketaren printzipioak

9. artikulua. Itunak egiteko askatasuna.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak zilegi du era guztietako ondare negozio juridikoak gauzatea, tipiko nahiz atipikoak, mistoak nahiz konplexuak, Zuzenbidean baliozkoak diren edozein klausula izan ditzaketenak.

2. Zehazki, ondare-ondasun edo eskubideak eskuratu, ustiatu, besterendu, kargapetu, lagatu edo trukatzera zuzendutako negozio juridikoek jaso ditzakete hizpaketak, non begiz jo daitekeen alderdiek negozio juridiko horien xede diren ondasun edo eskubideei edo administrazio kontratatzailearen ondarearen osagai diren beste batzuei buruzko prestazio osagarriak gauzatea, eta baita etorkizuneko ondasunak ere, betebeharroriek betetzea behar bezala bermatua baldin bada.

Haiek prestatu eta esleitzerakoan, negozio konplexuak espediente bakarrean tramitatuko dira, eta beren helburu nagusia osatzen duen ondare negozio juridikorako arauak gobernatuko dituzte.

10. artikulua. Ondare negozio juridikoen araubide juridikoa.

Ondare negozio juridikoak, prestaketa eta esleipenaren aldetik, foru lege honek eta berau garatzen duten lege edo erregelamendu mailako xedapenek gobernatuko dute. Haien ondorioak eta azkentzea foru lege honek eta zuzenbide pribatu-ko arauak gobernatuko dute.

Jurisdikzio zibilak du eskumena alderdien artean sortutako desadostasunak ebazteko. Hala ere, bereiz daitezkeen egintza juridikotzat joko dira kontratuaren prestaketari eta esleipenari buruz ematen direnak eta, horren ondorioz, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin ahal izanen zaie, jurisdikzio horri buruzko araudiaren arabera.

11. artikulua. Kudeaketa planak.

1. Ondare politikak koordinatzeko, administrazioaren ondasun berariazkoen edo ondare berezien kudeaketan tartean diren departamentu edo erakunde publikoek prestatuko dituzte, bakoitzak bere eskumenen esparruan, ondare politikan dituzten helburuak betetzeko kudeaketa planen proiektuak.

Proiektu horietan xeheki jasoko da zer jarduketa nagusi garatu behar diren ondare ondasun eta eskubideak –kudeaketa eratzkia dutenak– ahalik eta hobekien administratu eta haien erabilera optimizatzeko, eta premia berriak asetzeko, eta horrez gain haiek burutu bitarteko egutegia, kalkulaturako

gastuak eta aurrekontuko ondorioak, eta baita garatu beharreko jarduketak modu egokian zehazteko beharrezkotzat jotzen diren datu guztiak ere.

2. Proiektuak ondare gaietan eskumena duen departamentuari igorriko zaizkio, hark aztertu eta txostena eman dezan. Hark erreparoa jartzen baditu, prestaketarako eskumena duen organoak aztertu eta ebatzi beharko ditu, arrazoituz, erreparoa jarri zaizkien aspektuak.

3. Tramite hori eginik, departamentu interesatuek plan horiek onartuko dituzte, erreparoa jarri zaizkien aspektu horiei buruz adostasuna baldin bada aztertu ondoren.

Desadostasunak jarraitzen badu, plan horiek onesteko eskumena Nafarroako Gobernuak izanen du, departamentu interesatuak proposaturik.

4. Kudeaketa planei egindako aldaketek, haien aspektu funtsezkoetan egin bazaizkie, aurreko idatz-zatietan ezarritako tramiteak jarraituko dituzte. Funtsezko gorabehera buruzkoak badira, edota eguneratzeak, dagokion gaiaren arabera eskumena duen departamentuak onartuko ditu, ondare gaietan eskumena duen departamentuak txostena alde aurretik emanda betiere.

12. artikulua. Administrazio eraikinak optimizatzeako planak.

1. Ondare gaietan eskumena duen departamentuak jarduketa-plan berariazkoak prestatu eta onets ditzake administrazio erabilera xedatua duten eraikinen erabilera optimizatzeako eta sortutako premia berriak asetzeko, eraikuntza, erosketak, errentamendu edo ondasun eta eskubideak eskuratzeko beste edozein negozio juridikoren bitartez, edo, hala bada, bere higiezinaren erabilera arrazionalizatuz.

Plan horiek prestatzerakoan, kasu bakoitzean dagokien departamentu edo erakunde publikoen ordezkariak beren lekua izanen dute.

2. Horretarako, departamentu, erakunde publiko edo foru lege honen 2.2. artikulua aipatzen dituen entitateek ondare gaietan eskumena duen departamentuari higiezinaren arloan dituzten premien programa igorriko diote, non sartu beharko baitute erabiltzen dituzten higiezinak okupazio aldetik duten egoera, plantillaren hazkundearen benetako aurreikuspena, eta departamentu nahiz erakunde bakoitzaren higiezinak beren artean edo beste departamentu eta erakundeekin izan behar dituzten funtzio harremanen azterketa, behar bezala arrazoitua, eta, hala bada, haiek betetzeko proposamen bat, nahiz eta horrek ez duen galaraziko datu edo txosten gehiago eskatzea.

3. Ondare gaietan eskumena duen departamentuak, optimizazio jarduketaren barnean, okupazio indizeak eta erabiltzeko irizpide oinarrikoak ezar ditzake, aplikazio orokor edo aldakorrekoak izanen direnak bete beharreko premien eta dagokion eraikinaren arabera. Halaber, jarraibideak eman eta arrazionalizazio neurriak proposa ditzake kudeaketa hobetzeko.

4. Administrazioaren erabilerarako eraikinen erabilera maila finkatzeko, departamentu, erakunde publiko edo halakoak afektatu edo atxikiak dituzten entitateei txostenak eska dakizkieke, eta baita ikuskapen bisitak egin eta okupatzen dituzten unitateak dituzten langileei buruzko datuak galdetu ere.

5. Administrazioaren erabilerako jarduketaren egiaztapen eta kontrolerako, eraikuntza edo zaharberritze proiektuak onetsi ahal izateko, ondare gaietan eskumena duen departamentuaren adostasun txostena behar da, kostua 300.000 eurotik gorakoa bada.

6. Optimizazio planak behin onetsiz gero, eragiten dien departamentu, erakunde eta entitate guztiak lotetsiko ditu, zeinak behartuak izanen baitira gauzatzera, ondare gaietan eskumena duen departamentuak gainbegiratu eta, hala bada, koordinaturik, haietan ezarritako jarduketa guztiak.

13. artikulua. Kudeaketa sistema bereziak.

1. Ondasunen eskurapena, besterentzea eta administrazioa gomendatu ahal izanen zaio pertsona fisiko, juridiko, publiko edo pribatuei, hala bada, kontratazio publikoari buruzko foru legerian ezarritakoaren arabera. Gomendiotik kanpo gelditzen dira administrazio ahalmenak gauzatzera berekin dakarten jarduketak.

2. Ondasun besterentzeetan, aurreikus daiteke kudeatzeko gomendioa egiten zaion pertsonak edo entitateak salmentarako finkatutako prezioa oso osorik edo hein batean aurreratzea, eragiketa gauzatu eta geroko likidazioaren erreserbarekin.

3. Foru lege honetan negozio juridiko bakoitzarako ezarritako moduan, eskumena duen departamentuak zilegi du esparru-akordioak egitea, non zehaztuko baitira epe jakin batean egin asmo diren ondasunen eskurapen, besterentze edo errentamendu eragiketa zehaztuz bete beharreko baldintzak. Esparru-akordioaren babesean egiten diren ondare eragiketak hartan ezarritako baldintzak aplikatuz egiten dira, eta ez da beharrezkoa hura burututakoan gauzatuak diren izapideak berriro egitea.

II. TITULUA Eskurapena

I. KAPITULUA Ondasun eta eskubideen eskurapena

1. atala Eskurapen negozio juridikoen formak

14. artikulua. Eskurapen moduak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak edozein titulu juridikoz eskura ditzake ondasun eta eskubideak, eta bereziki honako hauen bitartez:

- a) Legearen eratzikipenez.
- b) Kostu bidez, desjabetzeko ahalmena gauzatu ala gabe.
- c) Doan, jaraunspenez, legatuz, dohaintzaz edo administrazio lagapenez.
- d) Usukapio, akzesio edo okupazio bidez.
- e) Eskualdaketa bidez, eskumenen eskualdatzearen, gomendioen edo beste administrazio publiko batzuen funtzio eskualdatzeen edo emandako zerbitzuen ondoriozkoak badira.
- f) Ordenamendu juridikoarekiko zuzena den beste edozein moduz.

2. Ondasun eta eskubide eskuratuak Nafarroako Foru Komunitateko jabari publikoan edo pribatuan sartuko dira, foru lege honetan ezarritakoarekin bat.

15. artikulua. Hutsik dauden higiezinak.

Nafarroako Foru Komunitatearenak dira, foru lege honen arabera, jaberik ez duten eta bere lurraldean kokatuak diren higiezinak.

Hala ere, ez da betebeharririk nahiz erantzukizunik sortuko Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioarentzat jabetza dela-eta, harik eta haiek bere Ondarean sartu arte, eta betiere foru lege honen 55. artikuluan xedatutakoaren arabera dagokion espedientea tramitatu arte.

16. artikulua. Eskutik utzitako saldo eta gordailuak.

1. Nafarroako Foru Komunitatearenak dira, foru lege honen arabera, Gordailuen Kutxa Orokorrean eta kreditu entitateetan, balore sozietate edo agentzietan edo bestelako edozein finantza-entitatean gordailatutako balore, diru eta gainerako ondasun higigarriak, hala nola kontu korranteetako, aurrezki liburuxketako edo establezimendu horietan irekitako antzeko tresnetan gordailatuak,

baldin eta eskutik utzita badaude eta betiere 55. artikuluan ezarritakoaren arabera tramitatutako espediente baten izapideak egin ondoren. Ondorio horietarako, eskutik utzitakotzat joko dira haiei buruz interesdunek hogeituro urteko epean beren jabetza-eskubidea adierazten duen inolako kudea-ketarik egin ez dutenean.

2. Gordailu entitateak behartuak dira ondare gaietan eskumena duen departamentuari gordailu eta saldo horien berri ematera, departamentu horren kontseilari titularrak ezartzen duen moduan.

3. Ondasun horien kudeaketa, administrazioa eta ustiapena ondare gaietan eskumena duen departamentuari dagokio, eta hark zilegi du foru lege honetan xedatutakoaren arabera besterentzea, kontuan hartuz zer motatako ondasunak diren.

2. atala Kostu bidezko eskurapena

17. artikulua. Nahitaezko desjabetzeko eskurapena.

1. Desjabetze ahalmena baliatu izanaren ondoriozko eskurapenak beren xedapen berriazkoek gobernaturiko dituzte.

Kasu horietan, ondasun edo eskubidea erabile-ra orokorrera, zerbitzu publikora edo xede eta eginkizun publikoetara afektatzea desjabetzearekin batera datorrela ulertuko da.

2. Gaiaren arabera eskudun den departamentuak eskuratuko ditu ondasun horiek, eta kontu eman beharko dio egindakoaz ondare gaietan eskumena duen departamentuari, Jabetza Erregistroan behar bezala inskribaturiko ordainketa eta okupazio aktak igorri, Nafarroako Foru Komunitateko Ondareko ondasun eta eskubideen Inbentario Orokorrean sar ditzan.

3. Alderdiek zilegi dute justiprezioaren ordainketa gauzaz egin dadin erabakitzea, aldezturik tartean diren ondasunen balorazioa eginda eta ondare gaietan eskumena duen departamentuaren adostasun txostenarekin eta, hala bada, ematekoa den ondasuna atxikia duen departamentu edo erakunde publikoarenarekin.

4. Itzultze prozeduraren eskaintza eta tramitazioa, bidezko denean, desjabetzea egin duen departamentuak eginen du edo, bestela, ondare gaietan eskumena duen departamentuak, desjabetzea egin duenak hala eskatuta, nahiz eta gero ondasuna beste bati atxiki. Kasu horretan, ondasunak atxiki zaizkion departamentu edo erakundeak

itzultze eskubidea sorrarazi duen kasua gertatu dela adierazi behar dio desjabetzaileari.

Itzultzea departamentu desjabetzaileak tramitatzen badu, ondare gaietan eskumena duen departamentuaren aginduzko txostena behar da, itzultzeko ondasun horien balorazioari buruz.

Itzultze eskubidearen aitorpenak berekin dakar ondasun edo eskubidearen desfektazioa. Hala ere, itzultzea ez bada gauzatzen, ondasun edo eskubidearen desfektazioa foru lege honen 70. artikulua araberera egiten da.

5. Desjabetzekoak diren ondasun edo eskubideen zerrendan baldin badaude departamentu edo erakunde publiko desjabetzailea ez den beste bati atxikitako Foru Komunitatearen titularitateko ondasun edo eskubideak, aldeztatik, hala bada, barneko aldaketa demaniala tramitatuko da, foru lege honetan 72. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aurrekoa gorabehera, nahitaezko desjabetzea egiten bada desjabetzailea ez den beste baten onuran, ondare gaietan eskumena duen departamentuak desjabetzea bultzatzen duen departamentuaren eskaera arrazoituaren eta, bidezko bada, departamentu interesatuei entzutea eman ondoren, aztertuko du zein den interes publiko nagusia eta erabakiko du, hala bada, ondasun edo eskubide ukituen zuzeneko besterentzea. Bai besterentzea, bai hartarako ukoa arrazoitu egin behar dira.

6. Desjabetzekoak diren ondasun edo eskubideen zerrendan Foru Komunitatearen titularitateko ondasun edo eskubideak ageri badira, tartean diren administrazioen aldeztatik aurreko akordioarekin administrazioen arteko aldaketa demaniala tramitatuko da, foru lege honen 73. artikuluan ezarritakoaren arabera, adostutako baldintzetan, ekonomikoak barne.

18. artikulua. Ondasun higiezinaren eta haien gaineko eskubideen kostu bidezko eskurapena.

1. Ondasun higiezinak edo haien gaineko eskubideak kostu bidez eskuratzeko eskumena, borondatezkoa betiere, ondare gaietan eskumena duen departamentuak du, salbu eta foru lege honetan besterik ezartzen bada, bai bere ekimenez, egoki iruditzen zaionean higiezin-eragiketaren ezaugarri bereziak kontuan harturik, dauden premiei edo egindako aurreikuspenen arabera etorkizunean sor daitezkeenei aurre egiteko, bai interesa duen departamentu, erakunde autonomo edo entitate publikoak egindako eskari arrazoituaren ondorioz.

2. Eskurapena lehiaketa publikoz edo zuzenean egiten da, foru lege honek ezarritako kasuetan.

3. Lehiaketan, baldintza-agirian ezarritako irizpideak kontuan harturik eskaintzarik hoberena egiten duen lizitatzailari egiten zaio esleipena, nahiz eta ez zaion soil-soilik prezioari kasu egingo eta horrek ez duen ezertan galaraziko Foru Komunitateko administrazioak eman gabe uzteko duen eskubidea.

4. Zuzeneko eskurapena egin ahal izateko arrazoi bakarrak hauek dira: higiezin-eragiketaren ezaugarri bereziak, ase beharreko premien berezitasunak, higiezin-merkatuaren baldintzak, eskuratzearen urgentzia edo ondasun edo eskubidearen egokitasun berezia. Honako kasu hauetan ere zilegi da erabakitzea:

a) Eskurapenerako lehiaketa eman gabe gelditzen bada.

b) Eskuratzekoa den ondasun edo eskubidearen jabea beste administrazio publiko bat edo sektore publikoko zuzenbide publiko nahiz pribatuko edozein pertsona juridiko bat denean.

c) Foru Komunitatearen administrazioaren jabetzako higiezin baten edo hark beraren gainean eskubideren bat duen baten mugakide bada.

d) Jabekidetzaren kasuan, jabekide bati ondasun baten kuota bat eskuratzen denean.

e) Eskurapena lehentasunezko eskurapen eskubide bat baliatuz egiten bada.

f) Eskuratu nahi den ondasun edo eskubidearen bakantasuna kontuan harturik, bereziki Espainiako Ondare Historikoko eta Nafarroako Kultura Ondareko ondasunak edo Foru Komunitatearen ondare bereizien osagai izan daitezkeenak badira.

5. Eskurapen espedientean honako agiri hauek sartu behar dira:

a) Txosten bat, eskurapena komeni dela arrazoitzen duena eta esleipen prozedura zein izan den adierazten duena.

b) Baldintza-agiri bat, non ezarriko baitira alderdien eskubide eta betebeharrak eta kontratua esleitzeko irizpideak edo, hala bada, higiezinaren jabearen eskaintza, salmentaren baldintzak jasotzen dituena.

c) Txosten juridiko bat, burutu beharreko negozioaren baldintzak, eta horrekin batera erregistro eta hirigintza aldetik higiezinak duen egoera aztertzen dituena.

d) Kontu-hartzearen fiskalizazioa.

6. Eskurapena interesatuaren eskariz egiten denean, proposamenari gehitu behar zaio, eskurapenaren beharra arrazoitzeko txostenaz gain, dagokion administrazio unitateak egindako adierazpen bat, kreditua badela dioena. Kasu horretan, une egokian, eskaera egin duen departamentu, erakunde autonomo edo entitate publikoak gastua onartuko du, eta eskurapenaren zenbatekoa adinako kreditua jarriko du ondare gaitan eskumena duen departamentuaren esku.

7. Nafarroako Gobernuak baimena eman dezake, ondare gaitan eskumena duen departamentuak proposaturik, eskurapenaren zenbatekoaren ondarea epeka egin dadin.

19. artikulua. Ondasun higiezinaren kostu bidezko eskurapena.

1. Ondasun higigarrien kostu bidezko eskurapena kontratazio publikoari buruzko foru legerian eta hura garatzen duten xedapenetan ezarritakoaren arabera eginen da.

2. Aurrekoa gorabehera, ondare kontratatuz hartuko dira Espainiako Ondare Historikoa eta Nafarroako Kultura Ondarea osatzen duten edo osatzekoak diren ondasunen eskurapenak. Kasu horietan, kultura arloan eskumena duen departamentuak eginen du eskurapena, eta ondasun higiezinak eta haien gaineko eskubideak eskuratzeari buruz foru lege honetan xedatutakoa izanen zaio aplikagarri, haien izaerarekin bateragarria ez den guztian, beraren berariazko araudian ezarritako berezitasunak ezertan galarazi gabe.

20. artikulua. Jabetza gorpuzgabeen eskubideen eskurapena.

1. Jabetza intelektual edo industrialeko eskubideen kostu bidezko eskurapena gaiaren arabera eskuduna den departamentu edo erakunde autonomoak eginen du, eta haren ustiapena ondare gaitan eskumena duen departamentuari dagokio, nahiz eta horrek ez duen galaraziko ustiapena azken horrek erabakitako baldintzetan egitea hartan interesatua den departamentuak.

2. Eskubide horien izaerarekin bateragarria ez den guztian, higiezinaren eta haien gaineko eskubideen eskurapenerako, foru lege honetan ezarritakoa aplikatuko zaie eskurapen horiei, salbu eta administrazio kontratu bidez egiten bada; izan ere, kasu horretan kontratazio publikoari buruzko foru legeria aplikatuko da.

3. Departamentuek, erakunde autonomoek eta entitate publikoek beren jardunean sortutako jabetza gorpuzgabeen gaineko eskubideen sorrera eta egiaztapena eskubide horiek sortu dituen organoak eginen du, jabetza intelektual edo industrialaren

erregistroen arauetan eskatzen diren formalitatez gainerako besterik gabe. Inskripzioa eginda, ondare gaitan eskumena duen departamentuari jakinaraziko zaio, Nafarroako Foru Komunitateko ondareko ondasun eta eskubideen Inbentario Orokorrean jasota geldidakin.

21. artikulua. Beste eskubide batzuen kostu bidezko eskurapena.

Aurreko artikuluetan sartuak ez diren bestelako edozein eskubideren kostu bidezko eskurapena, izatearekin bateraezina ez den horretan, higiezinak eta higiezinaren gaineko eskubideak eskuratzeo ezarritakoari jarraikiz eginen da.

22. artikulua. Berezitasunak ondasun edo eskubideak eskuratzean.

1. Nafarroako Foru Komunitateak zilegi du lizitazio prozeduretan parte hartuz ondasunak edo eskubideak eskuratzea, haien forma edo bitartekotza edozein delarik ere, bitarteko elektronikoen bidezko lizitazioa barne. Parte-hartze horretarako arauak deialdia egiten duen organoak edo entitateak ezarriko ditu.

Kasu horretan, aurretiazko espedienteak aski du adierazpen bat, dagokion administrazio unitateak badela kreditua azaltzen duena, eta foru lege honen arabera eskumena duen departamentuko titularraren baimena, zeinak zilegi izanen baitu Foru Komunitateko administrazioaren ordezkariak lizitazioan aintzat hartu beharko dituen baldintzak ezartzea, dela baimena emateko ebazpenean, dela aparteko espedientean, eta, are hitzez, eta baita izendapen hori egitea ere, kasu jakin baterako edo modu orokorrean.

Lizitazioa buruturik, Foru Komunitateko administrazioaren ordezkariak bere parte-hartzearen emaitzaren kontuak emanen dizkio eskumena duen departamentuko titularrari, eta baita parte hartzeko ezarri zitzaizkion baldintzak bete izanari buruz ere. Azkenean hartzen den ebazpenak, hala bada, onartuko du tartean den eskurapena, haren atxikipena, bidezko bada, eta Nafarroako Foru Komunitateko Ondareko ondasun eta eskubideen Inbentario Orokorrean sartzea.

2. Prezioaren zati bat gauzaz ordainduz eskura daitezke ondasun eta eskubideak, baina hori ez da eragozpen izanen foru lege honen 35.4. eta 41. artikuluetan xedatutakoa bete dadin.

3. Halaber, zilegi da etorkizuneko ondasunen edo proiektaturik edo egiten ari diren eraikinen gaineko eskubideak eskuratzea, zeinak eskudirutan ordaindu ahal izanen diren edo beste ondasun edo eskubide batzuk, osorik nahiz zatiz, emanez, betiere arrazoi behar bezala justifikatuak tartean

badira eta ondare gaietan eskumena duen departamentuak onesten dituen baldintzetan.

23. artikulua. Erakunde autonomoek ondasun eta eskubideak eskuratzea.

1. Erakunde autonomoek hauek baizik ez ditza-kete eskuratu:

a) Atxikiak dituzten eginkizun eta xedeak betez, trafiko juridikora itzultzera doazen ondasun eta eskubideak.

b) Eratu behar diren erreserben errentagarritasuna bermatzeko eskuratzen dituzten ondasunak, haiek arautzen dituzten xedapenak betez.

c) Ondasun higigarriak, kontratazio administrazio buruzko foru legerian ezarritakoaren arabera.

2. Gainerako eskurapenak titulu honetan xedatutakoaren arabera izanen dira.

3. atala Doako eskurapena

24. artikulua. Jaraunspenak, legatuak eta dohaintzak.

1. Foru Komunitatearen aldeko jaraunspenak, legatuak edo dohaintzak onartzea, eta baita haieku egitea ere, ondare gaietan eskumena duen departamentuari dagokio eta eskuratzekoa den ondasuna atxiki behar zaion departamentu edo erakunde publikoaren adostasun txostena behar da alde aurretik.

2. Eskurapena baldintza edo modu kostu bidezko batez kargatua bada, nahitaezko baldintza izanen da ondasunak dituen karga eta zamen balio osoa ez dadila izan ondasunak berez duena baino handiagoa, biak tasatu eta gero finkaturik. Bestela, interes publikoko arrazoi aski frogatuak baldin badaude baizik ez da onartuko.

3. Jaraunspenak onartzea inbentarioko irabazitarako eginen da beti. Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilararen menpeko jaraunspenen kasuan, Nafarroako Foru Berriari buruzko 318 Legean xedatutakoari atxiki beharko zaio.

4. Ondasun eta eskubideak xede jakin batzuen afektazioaren baldintzapean edo moduan eskuratu badira, ulertuko da baldintza hori bete eta burutu dela hogeita hamar urtez xede horietarako erabili direnean, nahiz eta gerora interes publikoko baldintza aurreikusigabeen ondorioz erabiltzen ez badira ere.

5. Nafarroako Foru Komunitatearen aldeko legezko ondorengotza Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilararen arauen pean egonen da. Administrazio

prozedura aplikagarria erregelamenduz zehazten dena izanen da.

25. artikulua. Lagapen administratiboak.

1. Foru Komunitateak beste administrazio publiko, erakunde edo entitate loturikoen edo haien menpekoen doako lagapenez eskura ditzake, gero haiei bere eskumeneko erabilera edo zerbitzu publikoa emateko.

2. Baliozkoa izateko, beharrezkoa da ondasun eta eskubideen lagapena ondare gaietan eskumena duen departamentuak onartzea eta alde aurretik eskuratzekoa den ondasuna atxikia duen departamentu edo erakunde publikoaren adostasun txostena behar da.

Besterik ezarri ezean, lagapena egiteko baldintzak betetzeko ezarritako epeak, hala bada, onarpen egunetik aurrera kontatuko dira.

3. Ondasun higiezinaren edo haien gaineko eskubide errealeen doako lagapenak dokumentu administratiboan formalizatuko dira, zeina aski titulu izanen baita Jabetzaren Erregistroan inskribatzeko, estatuaren ondare legerian ezarritako baldintzetan.

4. atala Beste eskurapen modu batzuk

26. artikulua. Usukapio, akzesio edo okupazio bidezko eskuratzea.

Usukapio, akzesio edo okupazio bidezko eskurapenak Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilarari lotuko zaizkio edo aplikagarri diren xedapenei.

27. artikulua. Ondasun eta eskubideak eskuratzeko beste administrazio batzuek eskualdatuta.

1. Estatuaren zerbitzuei afektatutako ondasun eta eskubideak Foru Komunitateari eskualdatzean foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren laugarren xedapen iragankorrean ezarritakoari jarraituko zaio eta haren xedapen gehigarriei.

2. Foru Komunitateko administrazioak beste administrazio publiko batzuen gomendioz edo eginkizun eta zerbitzuen delegaturik egitean, gomendio edo delegazio hori onesten duen erabakiaren arabera eginen da. Erabaki horietan besterik ezarri ezean, ondasun eta eskubide horiek administrazio eskualdatzaileari itzuliko zaizkio hark gomendatu edo delegatutako eginkizun edo zerbitzuen kudeaketa berriro bere gain hartzen duenean.

28. artikulua. Ondasun eta eskubideen esleipen eta ordainketan ematea ebazpen judizial edo administratibo bidez.

1. Nafarroako Foru Komunitateak premiamenduzko administrazio prozeduretako esleipenen ondoriozko ondasun eta eskubideen eskurapenak tributu arloko foru araudien menpe egonen dira.

2. Nafarroako Foru Komunitateari ondasunak eta eskubideak esleitzen bazaizkio enbargatutako ondasunak gauzatzeko exekuzio prozedura baten ondorioz, esleipen hori Auzipetze Zibilaren Legearen pean egonen da.

3. Foru Komunitateari obligazioen ordainketarako edozein eratako ondasun edo eskubideak esleitzen edo lagatzen bazaizkio ebazpen judizial edo administratiboz, ondare gaietan eskumena duen departamentuari emanen zaio horren berri, eta igorriko zaio esleipen horri buruzko autoa, probidentzia edo erabakia, haren identifikazioa, balioespena egin eta Jabetzaren erregistroan inskribatuz, hala bada, eta ondasun eta eskubide esleitzen Inbentario Orokorrean sar dezan.

4. Exekutiboak ez diren prozedura judizial edo administratiboen ondoriozkoak ez diren esleipenak beren legerian ezarritakoaren eta foru lege honetan xedatutakoaren araupean egonen dira. Araudi berariazkorik ez bada, Nafarroako Foru Komunitatearen aldeko ondasun eta eskubideen esleipenetan, honakoari jarraituko zaio:

a) Ezin izan da Nafarroako Foru Komunitatearen aldeko adjudikaziorik egin ondasun gaietan eskumena duen departamentuaren alde aurreko txostenik gabe, eta, horretarako, esleitzekoa den ondasun edo eskubidearen identifikazio fisiko eta juridikorako beharrezkoak diren datu eta dokumentu guztiak igorriko dizkio hari interesa duen departamentuak edo erakunde autonomoak.

b) Behin esleituz gero, ondare gaietan eskumena duen departamentuari jakinaraziko zaio, 3. atalean ezarritako ondorioetarako.

5. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak izanen ditu, prozedura administratibo edo judizialen ondorioz esleituriko ondasun eta eskubideei dagokienez, foru lege honetan bere ondarea defendatzeko ezarritako prerrogatibak.

II. KAPITULUA Ondasunen errentamendua

29. artikulua. Ondasun higiezinaren errentamendua.

1. Ondare gaietan eskumena duen departamentuari dagokio, foru lege honek espresuki bes-

terik ezarri ezean, Foru Komunitateak bere helburuak betetzeko beharrezko dituen ondasun higiezinak errentatzeko kontratuak egitea, bere ekimenez edo interesa duen departamentu, erakunde autonomo edo entitate publikoaren eskari arrazoitu baten ondorioz.

Ondare gaietan eskumena duen departamentuari dagokio, halaber, sinatuak diren errentamendu kontratuen luzapena, berritzea eta suntsipen aurreratua erabakitzea, eta baita higiezinaren organo edo erakunde erabiltzailea aldatzea ere.

2. Azokak, lehiaketak, erakusketak, hautaprobak egiteko eta antzeko gertakizunetarako eremu edo lekuak errentatzeko erabakia departamentu interesatuak hartuko du, iraupena urte bete luzaezina baino gutxiago bada.

30. artikulua. Prozedura.

Ondasun higiezinaren errentamendua lehiaketa publiko edo zuzeneko kontratazioz egingen da, eta ondasun horiek eskuratzeko ezarritakoa aplikatuko da, salbu eta kontratu horien izaerarekin bateraezina diren kontuetan.

31. artikulua. Errentan hartutako ondasunaren erabilera.

Ondare gaietan eskumena duen departamentuak errentamendua eskubidea higiezinaren erabiltzeko den departamentu edo erakunde autonomoari atxikiko dio, zeinak bete beharko baititu errentariari legeak ezartzen dizkion betebeharrak eta hartu beharko baititu ondasunak duen xedea betetzeko moduan edukitzeko neurriak.

Errentamendua departamentu edo erakunde autonomo batek eskaturik egin bada, kontratua sinatzeak errentamendua eskubidea berari atxikitzea adierazten du inplizituki.

32. artikulua. Kontratuaren suntsiarazpen aurreratua.

1. Errentan hartutako higiezinaren erabiltzen duen departamentu edo erakunde autonomoak hitzartutako mugaeguna edo legezko edo kontratuzko luzapenen iraungipena baino lehen uztea aurreikusten badu, ondare gaietan eskumena duen departamentuari jakinaraziko dio bertatik ateratzeko aurreikusitako data baino hiru hilabete lehenago gutxienez, eta har, bidezko iruditzen bazaio, jakinarazpen horren berri emanen die beste departamentu eta erakunde autonomoei, hamar eguneko epea izanen baitute berei atxikitzeke eskatzeko.

2. Ondare gaietan eskumena duen departamentuak erabakiko du errentamendua zein depar-

tamentu edo erakunderi atxikiko zaion, edo, bestela, kontratua suntsiaraziko du.

3. Kontratuaren suntsiarazpena gertatzen bada, higiezina atxikia duen departamentu edo erakunde autonomoak hartuko ditu bere gain errentamendu kontratuaren suntsiarazpen aurreratuaren ondorioz sor litezkeen ondorio ekonomikoak.

4. Kontratuaren suntsiarazpena erabakitzea bidezkotzat joko ez balitz, errentamendua atxikia duen departamentu edo erakunde autonomoak jarraituko du bere gain hartzean higiezinak sortzen dituen gastuak eta legeak errentariari ezartzen dizkion betebeharrak ekitaldi ekonomikoaren bukeraraino, salbu eta 74.6 artikuluan ezarritakoa..

33. artikulua. Kontratu mistoak.

Erosketa-aukerarekiko errentamendu kontratuak eta gainerako ondasun higiezinak errentatu eta eskuratzeko kontratu mistoak, eskumen eta prozedura araei dagokienez, ondasun higiezinak eskuratzeko ezarritakoen pean egonen dira.

Kontratu horiek errentamendu kontratutzat joko dira Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legean aurreikusitakoaren ondorioetarako.

34. artikulua. Ondasun higiezinaren errentamendua.

Ondasun higigarrien errentamenduak, erosketa-aukerarekin nahiz gabe, eta finantza-errentamenduak kontratazio publikoari buruz foru legerian ezarritakoaren arabera eginen dira, salbu eta Espainiako Ondare Historikoaren edo Nafarroako Kultura Ondarearen osagai badira; izan ere, orduan foru lege honetan ondasun higiezinak eta haien gaineko eskubideak eskuratzeari buruz ezarritakoa aplikatuko baita, haien izaeraren arabera bateragarria den guztian, beren araudi berariazkoan ezarritako berezitasunak ezertan galarazi gabe.

III. TITULUA

Besterentzea eta lagapena

I. KAPITULUA

Ondasun eta eskubideak besterentzea

35. artikulua. Ondare-ondasun eta eskubideak besterentzea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko ondare-ondasun eta eskubideak besterendu ahalko dira, lekualdatzeko edozein negozio juridiko, kostu bidezkoa, erabiliz, ohikoa nahiz atipikoa izan, kapitulu honetan aurreikusitako mugekin eta baldintzekin.

2. Ondasunak haien jabetza aldi baterako erreserbatuz besterentzea erabaki ahalko da, interes publikoarentzat komenigarritzat jotzen denean. Aldi baterako erabilera hori errentamendu kontratuak edo besterendutako ondasunen erabilerarako gaitzen duten beste edozein kontratu eginez gauzatu ahalko da; kontratu horiek besterentzeko negozioaren aldi berekoak izan beharko dira, eta lehia eta prozedura arau berberen menpe egon.

3. Organo eskudunak salmentaren prezioa gerora ordaintzea onartu ahalko du, gehienez ere hamar urtera, betiere ebazpenerako eskakizun esplizitua ezarriarik, geroratu-tako zenbatekoen ordainketa behar beste ziurtatzen bada hipoteka, banku-abal, kausio aseguru edo merkatuan ohikoa den behar besteko berme baten bidez. Kasu horretan, organo eskudunak ezarriko du geroratu-tako zenbatekoei aplikatzekoa izanen zaien interesa, diruaren legezko interesetik gorakoa betiere.

4. Salmenta-prezioaren zati baten ordainketa-rako beste ondasun edo eskubide batzuk ematea onartu ahalko da, horiek tasatu eta tasazioa espedientean jaso ondoren.

36. artikulua. Ondasun higiezinak eta higiezinaren gaineko eskubideak besterentzea.

1. Ondarearen arloko eskumena duen departamentuarena da ondasun higiezinak eta higiezinaren gaineko eskubideak besterentzeko eskumena.

2. Higiezina edo higiezinaren gaineko eskubidea besterendu aurretik haren egoera fisiko eta juridikoa argitu beharko da eta Jabetzaren Erregistroan inskribatu, bidezkoa bada.

Nolanahi ere, aurreko idatz-zatian xedatutakoari lotu gabe, Foru Komunitatearen titularitatekoak diren ondasunetatik bereizi beharreko ondasunak besterendu ahalko dira, bai eta inskribatu edo mugatzeko tramitean daudenak edo kargak dituztenak ere, inguruabar horiek eskuratzailari jakinarazten bazez eta hark onartzen baditu.

3. Edozein kasutan, besterendu aurretik ondasuna tasatu eta tasazio hori espedientean jaso beharko da.

37. artikulua. Ondasun higiezinak eta higiezinaren gaineko eskubideak besterentzeko moduak.

1. Ondasun higiezinak eta higiezinaren gaineko eskubideak, oro har, enkante bidez besterenduko dira, dirutan adierazitako hasierako prezio batekin eta gora eginez; prezio altuena eskaintzen duen lizitatzailari esleituko zaio.

2. Lehiaketa erabili ahalko da prezioa ez denean besterentzeko irizpide bakarra eta, batez ere, baldintza-agiriak aukera ematen dionean lizitatzai-

leari prezioaren zati bat gauzatan ordaintzeko, edo besterendu beharreko ondasun higiezin edo higiezinaren gaineko eskubide erreala esleipen-hartzaileak interes orokorreko helburuetarako erabiltzen badu.

3. Zuzeneko besterentzea erabaki ahalko da kasu hauetan:

a) Eskuratzaila beste administrazio publiko edo erakunde publiko bat denean edo administrazio publikoen menpeko beste ente bat.

b) Eskuratzaila irabazi asmorik gabeko entitate bat denean edo legezko aitortpena duen eliza, konfesio edo komunitate erlijioso bat, eta ondasuna edo eskubidea interes orokorreko helburuetarako erabili behar bada.

c) Higiezinaren beharrezkoa denean aurreko idatz-zatietan aurreikusitakoez beste pertsona batek interes orokorreko helburu bat bete dezan; espedientean justifikatu beharko da lehiaketa sustatzea ez dela komeni.

d) Besterentzeko sustatutako enkantea edo lehiaketa eman gabe deklaritzen denean, edo huts egiten badute esleipen-hartzaileak bere betebeharrak ez betetzeagatik, betiere lizitazioetik urtebete baino gehiago iragan ez bada. Kasu horietan, esleipena hurrengo balorazio onena lortu duen lizitatuzaileari egiten zaio edo, halakorik ezean, zuzeneko besterentzea erabaki ahalko da, lizitazioaren hasierako baldintzak edo esleipena egin zenekoak funtsean aldatzen ez badira.

e) Industrialdeko lurzatiak direnean, edo Nafarroako Gobernuak sustatutako ezarpen bereziatarako lurzorua.

f) Hiri lurzatiak izan eta, itxuragatik nahiz hedadura txikiagatik, hirigintza planeamenduaren arabera bertan eraikitzerik ez dagoenean, eta jabe mugakide bati saltzen bazaio. Ondasun mugakideak bat baino gehiago izanez gero, besterentzea egiten da halako moduan non ateratzen diren lurzatiak txosten tekniko batek lurzorua antolatzeke ezarriko duen irizpide arrazoizkoenaren arabera izanen baitira.

g) Landa finak direnean, ekonomikoki ustiatu daitekeen azalera osatzen ez dutenak, edo haien izaerarekin bat datorren erabilera izaterik ez dutenak, eta jabe mugakide bati saltzen bazaizkio. Ondasun mugakideak bat baino gehiago izanez gero, azalera txikieneko lursail mugakidearen jabeak izanen du lehentasuna.

h) Ondasun edo eskubidearen titularrak bi jabe edo gehiago direnean, eta jabe bati edo gehiagori saltzen zaienean.

i) Lege xedapenez aitorturiko lehentasunez eskuratzeko eskubide bat duen bati saltzen zaienean.

j) Salbuespeneko arrazoiengatik komenigarritzat jotzen denean higiezinaren okupatuzaileari saltzea.

4. f), g) eta h) letretako kasuetan, baldintza berdinetan, eta adostasunik ez badago jabeen edo jabeakideen artean, besterentzea prezio altuena eskaintzen duenaren alde egiten da, eta berdinke-tarik egonez gero zozketaz erabakiko da.

5. Besterentzeko modua edozein motatakoa izanik ere, sistema elektronikoak erabili ahalko dira esleipenerako.

38. artikulua. Ondasun higiezinak eta haien gaineko eskubideak besterentzeko prozedura.

1. Ondasun higiezinak eta haien gaineko eskubideak besterentzeko prozedura ondarearen arloko eskumena duen departamentuak tramitatuko du. Espedientean honakoak egonen dira: txosten bat, justifikatzeko ondasuna edo eskubidea ez dela beharrezkoa erabilera orokorrerako edo zerbitzu publikorako eta ez dela komeni hura ustiatzea; baldintza-agiri bat, aldean eskubideak eta betebeharrak, bete behar den prozedura eta esleipenerako kontuan hartu beharreko irizpideak bertan ezarri; txosten juridiko bat eta kontu-hartzailetzaren fiskalizazioa.

Baldintza-agiritik kanpo gelditu daiteke esleitutako kontratua hirugarrenei lagatzeko aukera, eta xedatzeko debekuak edo mugak ezarri ahalko zaizkio eskuratuzaileari edo esleipen-hartzaileari.

2. Besterentzearen hasierako prezioa egindako tasazioarekin bat finkatuko da.

3. Esleipen-prozeduretan parte hartzeko, bai enkante bai lehiaketa bidezkoetan, lizitazioaren hasierako prezioaren ehuneko 25eko bermea jarri beharko da aurretik, salbu eta organo eskudunak salbuesten badu espresuki, eta horretarako arrazoiak espedientean jaso beharko dira.

4. Prozeduraren lizitazio iragarkia Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratuko da eta publizitatea ziurtatuko duen beste edozein bitartekotan.

5. Lizitazio iragarkia behin egin ondoren, prozedura eten edo bertan behera uzteko ebazpen arrazoitua beharko da, lizitatuzaileentzat inolako esku-biderik sortu gabe.

39. artikulua. Ondasun higigarrien besterentzea.

1. Ondasun higigarrien besterentzeeri foru lege honen 38. artikuluan ezarritako prozedura arauak

aplikatuko zaizkie, horien izaerarekin bateraezinak ez diren guztian.

2. Zuzeneko besterentzea erabaki ahalko da ondasunen unitate balioa 15.000 eurotik beherakoa bada, ondasun zaharkituak, galkorrak edo erabilerak hondatuak direnean eta foru lege honen 37.3 artikuluan aurreikusitako kasuetako bat suertatzen bada. Kasu horietan, espedientean frogatu beharko da gutxienez hiru eskaintza kontsultatu direla, hala egin daitekeenean.

3. Ondasuna aprobetxamendurako erabilgarria ez denean edo haren balio ekonomikoa txiki-txikia denean, hura atxikia duen departamentuak, erakunde publikoak edo menpeko edo lotutako entitateak birziklatu, suntsitu, balio gabetu edo eramatea erabaki ahalko du, ondarearen arloko eskumena duen departamentuari jakinarazi ondoren.

40. artikulua. Eduki ekonomikoko beste esku-bide batzuk besterentzea.

Jabetza intelektual edo industrialeko eskubideak eta aurreko artikuluetan ageri ez den beste edozein eskubide besterentzea ondare gaietako eskumena duen departamentuak erabakiko du, kapitulu honetan ondasun higiezinatarako ezarritako prozedurekin eta moduekin bat, haien izaerarekin bateragarriak diren guztian.

41. artikulua. Ondasun eta eskubide trukea.

1. Foru Komunitatearen ondareko ondasun eta eskubideak beste batzuekin trukatu ahalko dira, baldin eta trukatu nahi diren ondasun edo eskubideen balioen arteko aldea balio altuena duenaren erdia baino txikiagoa bada. Balioen arteko alde hori, baldin badago, dirutan edo beste ondasun edo eskubide batzuk emanaz ordainduko da.

Aldea handiagoa balitz espedientea besterentze gisa tramitatuko da, eta prezioaren zati bat gauzatan ordainduko.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, behar bezala frogatutako interes publikoko arrazoiengatik, beste administrazio publiko batzuekin egiten diren trukeetan ordain hori baztertu ahalko da, trukatu beharreko ondasun eta eskubideen balioen arteko aldea balio handiena duenaren % 10etik beherakoa bada.

3. Trukea erabakitzeko eskumena ondare gaitan eskumena duen departamentuarena da.

4. Trukea zuzeneko esleipen bidez gauzatu da. Nolanahi ere, higiezinaren edo eskubideen trukeerako eskaintzak aurkeztea eskatu ahalko da, eta horretarako jendearentzako gonbita egiten da, Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratuta edo egokitzen jotzen den beste edozein hedabidetan.

Kasu horretan, esleipen-hartzailea alde aurretik egindako baldintza-agirian ezarritakoarekin bat hautatuko da.

5. Foru Komunitateko administrazioak truke bidez eskuratu ahalko ditu etorkizuneko higiezinak edo eraikitzen ari direnak, trukea erabakitzen denean zehazturik baldin badaude edo zehazteko modukoak badira, onesten diren baldintza berarizkoetan.

Edozein kasutan ere, saltzaileak, zuzenbidean onartutako edozein bide erabiliz, behar adina bermatu beharko du bere betebeharrak beteko dituela. Bermea ez da kenduko etorkizuneko ondasuna erreala izan arte eta aldeek ezarritako betebeharrak bete arte.

42. artikulua. Auzipeko ondasunak.

1. Nafarroako Foru Komunitatearen ondareko ondasunak edo eskubideak, auzipean daudenak, baldintza hauek betez gero besterendu ahalko dira:

a) Besterentzea lehiaketa edo enkante bidezkoa denean, baldintza-agirian espresuki eta xehetasunekin aipatuko dira ondasunari eragiten dion auziko xedea, aldeak eta erreferentzia, eta aurrekusi beharko da esleipen-hartzaileak bere gain hartu beharko dituela osotara auziak berekin ekar ditzakeen arriskuak eta ondorioak.

b) Zuzeneko besterentze edo trukeetan, esku-ratzaileak auziko xedearen eta norainokoaren berri baduela eta hark berekin dakartzan ondorioak eta arriskuak bere gain hartzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa agerrarazi beharko da espedientean.

2. Auzia besterentzeko prozedura behin hasi ondoren gertatzen bada eta, besterentzea une horretan lizitazioaren fase batean egoteagatik, ezinezkoa bada aurreko idatz-zatian ezarritakoa betetzea, prozedura behin-behinekoz etenen da eta, etena kendu ondoren, jarduketak atzeratu ahalko dira idatz-zati horretan adierazitakoa betetzeko bide ematen duen fasera arte, edo besterentzea bertan behera utzi ahalko da eta prozedura amaitutzat eman, kalte-ordainerako inolako betebeharririk sortu gabe.

3. Ondorio horietarako, ondasuna auzipekotzat joko da besterentzeko eskumena duen organoak formalki dakienean kasuan kasuko auzialdian egintza bete dela eta zein den haren edukia.

43. artikulua. Erakunde autonomoek ondasun eta eskubideak besterentzea.

1. Erakunde autonomoek hauek baizik ez ditza-kete besterendu:

a) Bere gain dituzten eginkizunak betez trafiko juridikora itzultzeko asmoarekin eskuratu dituzten ondasunak.

b) Eratu behar diren erreserben errentagarritasuna bermatzeko eskuratutako ondasunak, haiek arautzen dituzten xedapenak betez.

c) 300 eurotik beherako unitate balioa duten gorputzezko ondasun higigarriak.

2. Gainerako besterentzeak titulu honetan xedatutakoaren arabekoak izanen dira.

II. KAPITULUA

Ondasun eta eskubideen doako lagapena

44. artikulua. Ondasun higiezinaren eta higiezinaren gaineko jabetzaren doako lagapena.

1. Nafarroako Foru Komunitateko ondareko ondasun higiezinaren eta higiezinaren gaineko eskubideen jabetza ondare gaietan eskumena duen departamentuak dohainik laga diezaieke, erabilera publikorako edo interes soziala duten beste helburu batzuetarako, beste administrazio publiko batzuei eta haien erakunde publikoei eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren fundazio publikoei, espediente bat tramitatu ondoren; espediente horretan proposamenaren txostena, txosten juridikoa eta kontu-hartzailetzak eginiko fiskalizazioa jasoko dira.

2. Lagapenean, egokitzen jotzen diren baldintza, muga edo berme guztiez gain, honako alderdi hauek ere jaso beharko dira:

a) Ondasunak zertarako erabili behar diren.

b) Erabilera edo zerbitzua ezartzeko eguna, eta ondasuna edo eskubidea zer jardueratarako eskatu zen, jarduera horri eusteko betebeharrak lagapenaren epe osoan.

c) Ondasuna edo eskubidea hirugarrenen alde besterendu edo kargatzeko debekua.

d) Lagapenaren epea, luzapenak egitea ukatu gabe, gehienez ere lau rogeita hemeretzi urtekoa, luzapenak barne. Lagapen-hartzaileak onarpena egiten duen unean hasiko da epea; onarpenerako ere epe bat ezarriko da.

3. Lagatako ondasun eta eskubideak aurreikusitako helburuetarako baizik ez dira erabiliko, ezarritako moduan eta baldintzetan, non ez diren aldeak ados jartzen.

Ondare gaietan eskumena duen departamentuak kontrolatuko du lagatako ondasun edo eskubideak aurreikusitako helburuetarako aplikatzen direla, baina lagapen-hartzaileek erabilera hori fro-

gatzeko eskatzen zaizkien datu edo dokumentu guztiak igorri beharko dizkiote departamentuari.

4. Lagatako ondasunak edo eskubideak lagapen egintzan adierazitako epean ez badira erabiltzen aurreikusitako helbururako, edo ondoren horretan erabiltzeari uzten badiote, ezarritako baldintzak betetzen ez badira edo mugaeguna ailegatzeko bada, lagapena suntsiarazitzat joko da eta ondasunak edo eskubideak Nafarroako Foru Komunitatera itzuliko dira, libre eta doan; Foru Komunitateak eskubidea izanen du lagatako ondasunek jasandako murrizketa edo kalteek, baleude, egiten duten balioa jasotzeko, horien tasazioa egin ondoren, eta ez da kalte-ordainik emanen lagapen-hartzaileak ezarritako baldintzak betetzeko izandako gastuengatik.

5. Lagapenaren xedea ondasun higiezinak edo horien gaineko eskubide errealak badira, lagapen-hartzailearen aldeko idazpena eginen da Jabetzaren Erregistroan, eta lagapenak ez du ondorioz izanen baldintza hori betetzen ez den bitartean.

Inskripzioan agerraraziko da ondasunak zertarako erabili behar diren eta lagapenak berekin dakartzen beste baldintza eta karga guztiak, bai eta horiek ez betetzeak lagapena suntsiaraztea ekar dezakeela ohartaraztea ere.

6. Lagapena suntsiaraztea eta ondasuna edo eskubidea itzultzea erabakitzen duen ebazpena aski arrazoi izanen da hura Jabetza Erregistroan edo bidezkoak diren erregistroetan inskribatzeko, bai eta murrizketen edo kalteen zenbatekoa errekamatzeko ere, itzulketaren erabakia betearazten den unean gaurkotua.

7. Lagapena eta itzulketa, hala gertatzen denean, Nafarroako Foru Komunitateko ondarearen ondasun eta eskubideen inbentario orokorrean agerraraziko dira.

45. artikulua. Ondasun higiezinaren eta higiezinaren gaineko eskubideen erabileraren doako lagapenak.

1. Ondare-ondasun higiezinaren eta haien gaineko eskubideen erabilera dohainik laga diezaieke ondare gaietan eskumena duen departamentuak beste administrazio publiko batzuei eta haien erakunde publikoei, sozietate eta fundazio publikoei edo irabazi asmorik gabeko entitateei, erabilera publikoko edo interes sozialeko helburuetarako.

2. Foru lege honen 44. artikuluko 2., 3., 4., 5., 6. eta 7. idatz-zatietan xedatutakoa aplikatuko zaie lagapen horiei.

3. Lagapen-hartzaileen eskubideak eta betebeharrak foru lege honek eta Nafarroako Foru Berri-

an erabilerari eta, ordezeko izaeraz, usufruktuari buruz jasotako xedapenek arautuko dituzte.

46. artikulua. Ondasun higigarrien eta eskubide gorpuzgabeen doako lagapenak.

1. Ondare-ondasun higigarrien eta eskubide gorpuzgabeen jabetza edo erabilera dohainik laga ahalko ditu ondare gaietan eskumena duen departamentuak, eta kasu horretan aurreko artikuluetan xedatutakoa, aplikatuko da, salbu eta ondasun edo eskubide horien izaerarekin bateraezina den guztian.

2. Halere, ondasun higigarrien kasuan eta haien izaerari begira, ezarri ahalko da behin erabilerari eusteko jartzen zaien epea amaituta, modua betetzat joko dela, eta lagapena huts eta soila izanen da hortik aurrera.

IV. TITULUA

Ondarearen babesa eta defentsa

I. KAPITULUA

Ondare inbentarioa eta erregistro araubidea

47. artikulua. Ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorra.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Ondare-ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorrean haren titularitateko ondasun eta eskubide guztiak sartuta egonen dira, zerbitzu publikoak betetzeko behar diren ondasun higigarriak -atxikiak dituzten departamentuek, erakunde publikoek edo entitateek haien kontrola egitea galarazi gabe- eta erakunde publikoek ondareko trafiko juridikora itzultzeko edo hornikuntzen edo legez nahitaez eratu behar dituzten beste erreserba batzuen estaldurarako erosi dituztenak izan ezik.

Halere, Nafarroako Gobernuak, ondare gaietan eskumena duen departamentuak proposaturik, inbentario orokorrean ondasun higigarri guztiak edo ezaugarri jakin batzuk dituztenak sar daitezen erabaki ahalko du, adierazten diren baldintzak betez gero.

2. Oro har, inbentario orokorrean honakoak idatziko dira: ondasun higiezinak eta haien gaineko eskubideak, jabetza gorpuzgabearen eskubideak, higigarrien baloreak, merkataritzako sozietateen kapitaleko akzioak eta partaidetzak edo sozietate horiek jaulkitako obligazioak ordezkatzan dituzten tituluak, eta etorkizun eta aukeren kontratuak eta partaidetza ekonomiko edo obligaziozkoak.

3. Ondasun edo eskubideen araudi berariazkoak hala eskatzen duenean, horien inbentarioa bereizirik eginen da, ondasun motaren arabera

aplikatzekoa zaien legeria sektorialarekin bat, baina ezertan galarazi gabe ondare gaietan eskumena duen departamentuari igortzea, inbentario orokorrean sar ditzan.

48. artikulua. Eskumenak.

1. Ondare gaietan eskumena duen departamentuak eratu, gaurkotu eta zainduko du inbentario orokorra, bai eta baloratuko ere Foru Komunitateko ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak, ondare bereziak kudeatzeko eskumena duen departamentuen betebeharra ezertan ukatu gabe.

2. Departamentuek eta erakunde publikoek atxikiak dituzten ondasun eta eskubideen katalogo etengabe gaurkotua izanen dute, eta ondare gaietako eskumena duen departamentuari igorri beharko diote katalogo hori urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan.

3. Kontabilitate publikoaren arloko eskumena duen departamentuak idatziko du informazioa, Kontabilitate Publikoaren Plan orokorraren arabera bertako errubriketan idatzoharrak egin beharra dakarten eragiketak gauzatzeko behar duenarena alegia.

49. artikulua. Inbentario orokorreko inskripzioaren edukia eta kontrola.

1. Ondasun eta eskubide bakoitzari buruz, haren identifikazioaren, egoera juridikoaren eta ematen zaien erabilera edo destinoaren berri izateko behar diren datuak islatuko dira beti, bai eta ondare gaietan eskumena duen departamentuari iritziz haien kudeaketa eta administrazio egokiarrako beharrezkoak direnak ere.

2. Ez da Nafarroako Ondareko ondasun eta eskubideen kudeaketa edo xedapen egintzarik betetzerik izanen inbentario orokorrean behar bezala inskribaturik ez badaude.

Inbentarioan egon beharreko ondasun edo eskubideak bertan sartu, bertatik kendu edo beste edozein modutan aldatzeari buruzko datuak egiaztatzea Foru Komunitateko administrazioaren Kontu-hartzailtza Orokorrek betetzen duen finantza kontrolaren barruan sartuko da, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko araudiarekin bat.

50. artikulua. Inbentarioa eratu eta gaurkotea.

Foru lege honen 2.2. artikulua aipatzen dituen departamentuak, erakunde publikoak eta entitate publikoak beharturik daude eskuratzen dituzten edo atxikiak dituzten ondasun eta eskubideei buruzko informazioa ematera ondare gaietan eskumena duen departamentuari, inbentario oro-

korra eratu eta gaurkotzeko behar duena, eta ondasun eta eskubide horiei buruzko egintza, ekintza edo negozio guztiak jakinarazi behar dizkio, eskubide eta ondasunen egoera fisikoari, juridikoari edo erabilerari edo helburuari eragiten badiete.

Horretarako, ondare gaietan eskumena duen departamentuak inbentario orokorra eratu eta gaurkotzeari buruzko jarraibideak eman ahalko ditu eta beharrezkotzat jotzen dituen dokumentu edo datu guztiak eskatu.

51. artikulua. Inbentario orokorraren izaera.

Nafarroako Foru Komunitateko ondare-ondasun eta eskubideen inbentario orokorra ez da erregistro publiko bat, eta haren datuak Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren barne kudeaketarako eta politikak zehazteko informazio lagungarria dira, 52. artikuluko 4. idatz-zatian ezarritakoa ukatu gabe.

Bertan islaturiko datuek ez dute ondoriorik izanen hirugarrenetik eta ezin izanen dira erabili eskubideez baliarazteko Foru Komunitateko administrazioan.

52. artikulua. Erregistroan inskribatzea.

1. Ondare gaietan eskumena duen departamentuak eta ondare bereizien titular diren departamentuek kasuan kasuko jabetza erregistroetan inskribatu beharreko ondasun eta eskubide inbentariagarriak inskribatzeko eskatu beharko dute, bai eta horiei dagozkien eta erregistroetan sarbidea duten egintza eta kontratu guztiak ere, aplikatzen den legeriari jarraikiz eta 17.2 artikuluan xedatutakoa ukatu gabe.

2. Departamentu eta erakunde publikoek sustatu beharko dute ondasunak eta eskubideak jabetza industrial edo intelektualeko erregistroetan edo merkataritzako erregistroan inskribatu daitezen, dagokien moduan, eta horren berri eman beharko diote ondarearen arloko eskumena duen departamentuari.

3. Inskribatu beharreko ondasun higiezinak edo eskubide erreal eta pertsonalen jabetza frogatzen duten tituluak hipotekei buruzko legeei jarraikiz inskribatuko dira Jabetzaren Erregistroan, eta Estatuko Ondareari aplikatzekoak zaizkion arauak eta foru lege honen aurreikuspenek zuzenduko dituzte.

4. Inskribatzeko jabari titulurik ez badago, hipotekei buruzko legerian xedatutakoari lotuko zaio, eta inskribatzeko aski izanen da inbentario orokorrean jasota dagoela egiaztatzen duen ziurtagiri

administratiboa, inbentarioaz arduratzen denak emana.

Era berean, ziurtagiri administratibo bidez eta hipotekei buruzko legerian aurreikusitakoarekin bat, inskribatu ahalko dira hiri finketako mugaketak, obra berriari buruzko deklarazioak, eta jabetza horizontaleko hobekuntzak eta banaketak eta, hirugarrenei eragiten ez badiote, Nafarroako Foru Komunitateko finkek elkartu, banatu, erantsi edo bereiztea.

5. Jabetza Erregistroan Foru Komunitatekoekin mugakide diren finken azalera-soberak inskribatzen direnean, erregistratzaileak ondare gaietan eskumena duen departamentuari jakinarazi beharko dio, ofizio baten bidez, hipotekei buruzko legerian aurreikusitako jarduketak galarazi gabe; ofizio horretan inskripzioa noren alde egin zen, finkeen deskripzioa eta inskribatutako azalera handitzea adieraziko dira. Foru Komunitatekoekin mugakide diren finken immatrikulazioa gertatuz gero ere jakinarazpen hori bera egin beharko da.

Era berean, jabetzako erregistratzaileek, jakinez gero Foru Komunitateko ondasunak daudela behar bezala inskribatu gabe, ondare gaietako eskumena duen departamentura joko dute, bidezkoak diren ondorioetarako.

II. KAPITULUA

Ahalmenak eta prerrogatibak ondarearen defentsan

53. artikulua. Ahalmenak eta prerrogatibak.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak ahalmen hauek ditu Nafarroako ondarearen babesarako:

- a) Ikertzeko eta ikuskatzeko ahalmena.
- b) Mugatzeko ahalmena.
- c) Jabetza berreskuratzeko ahalmena.
- d) Maizter-iraizpen administratiborako ahalmena.

54. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko ondarearen defentsan laguntzeko betebeharrak orokorra.

1. Pertsona fisiko eta juridikoek Nafarroako ondareko ondasun eta eskubideak ikertu, defenditu eta babesten laguntzeko betebeharrak dute, bai eta, Foru Komunitateko administrazioak eskatuta, dauzkaten datuak, agiriak edo txostenak ematekoa eta horiei buruzko ikuskapenak eta beste ikerlan batzuk egitea erraztekoa ere. Era berean, organo eta zerbitzu administratiboetan agertu beharko dute hala eskatzen zaienean.

2. Nafarroako administrazio publikoek lagundu behar dute Nafarroako Ondareko ondasun eta eskubideak ikertzen, defenditzen eta babesten, batez ere demanialak direnean. Horretarako, organo eskudunei eskumenak betetzeko behar dituzten informazioa eta laguntza emanen dizkiete.

Era berean, ondare gaietan eskumena duen departamentuari jakinaraziko dizkiote Foru Komunitateko ondasun eta eskubideei kalte egin diezaioketen egitateak eta jarduketak, haren jarduketa esparruan gertatuak badira, bai eta ondasun eta eskubideak ukitu ahal dituzten hirigintza eta azpiegitura jarduketak ere, horiek onetsi eta gauzatu aurretik.

3. Agintariak, funtzionarioak edo gainerako pertsonak, Foru Komunitateko administrazioan duten kargua edo zerbitzua dela medio, ondasun eta eskubideen titularitateetan nahasketa dagoela, administrazio hori parte izanik, edo legez kanpoko okupazioa edo ondareari kaltea ekar diezaiokeen beste edozein jarduketa dagoela jakinez gero, beharturik daude ondare gaietako eskumena duen departamentuari horren berri ematera.

55. artikulua. Ikertzeko eta ikuskatzeko ahalmena.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari dagokio Nafarroako ondarekoak diren edo halakotzat hartzen diren ondasun eta eskubideen egoera ikertu eta ikuskatzea, haien titularitatea zehaztearren.

2. Ondare gaietako departamentuak eginen du ikerketa, ofizioz edo partikularrek eskatuta. Azken kasu horretan departamentuak ebatziko du eskaera hori onargarria den, eta aginduko du, kasu bada, ikerketa prozedurari ekitea.

3. Ikerketa prozedurari ekitea erabaki ondoren, ondasuna kokaturik dagoen udal edo kontzejuari jakinaraziko zaio, iragarki oholean jendaurrean jar dezan, eta balizko beste interesdun batzuei, beste edozein hedabide erabiltzea galarazi gabe, egokitzat jotzen bada.

4. Espedientearen instrukzioak egin ondoren ondasun edo eskubidearen titularitatea Foru Komunitatearen administrazioarena dela aski frogaturik dagoela iritzi gero, hala adieraziko da prozedurari amaiera emanen dion ebazpenean, eta inbentario orokorrean sartu eta kasuan kasuko erregistroetan inskribatuko da, jabetza lortzeko behar diren jarduketak gauzatzea baztertu gabe, behar izanez gero.

5. Ikerketa prozedura hasteko erabakia hartu eta bi urteko epean ebazten ez bada, prozedura

iraungi eginen da, eta jarduketak artxibatzea erabakiko da beste tramiterik gabe.

56. artikulua. Mugatzeko ahalmena.

1. Foru Komunitateko administrazioak jabari publikoko ondasun higiezinak edo ondarekoak mugatu ahalko ditu, haien mugak zehatzak ez direnean edo haien gainean usurpazio zantzuak daudenean, eta horretarako entzutea emanen die interesdunei.

2. Ondare gaietako eskumena duen departamentuak onetsi eta gauzatuko du ondare-ondasunen mugaketa. Jabari publikoko ondasunen kasuan, horiek atxikiak dituen departamentuak edo erakunde publikoak edo kudeatu edo administrazio dituenak eginen du mugaketa, ondare gaietako eskumena duen departamentuari betetako jarduketan berri emateko betebeharra galarazi gabe.

3. Mugaketa-prozedura ofizioz hasi ahalko da, edo Foru Komunitatearen finkekin mugakide diren lurren edo eskubide errealeen jabeek eskatuta, mugaketak ukitu ahal dituenean. Mugaketa-prozedura hasi eta tramitatu bitartean ez da asmo horretarako prozedura judizialik abiatuko, eta ez da ukitutako finken jabezgoari buruzko interdiktorik onartuko mugaketa gauzatu arte.

4. Prozedura hasteko erabakia mugatu beharreko higiezina kokaturik dagoen udal edo kontzejuko iragarki oholean argitaratuko da, eta mugaketak uki ditzakeen finka mugakideen gaineko eskubideak dituzten pertsonen berri izanez gero, horiei guztiei ere jakinaraziko zaie, bestelako hedabideak erabiltzeko aukera baztertu gabe, egokitzat joz gero.

Finka inskribaturik baldin badago, erabakia kasuan kasuko jabetza erregistroari ere jakinarazi beharko zaio, prozeduraren hasieraren kontu harturako.

5. Mugaketa onesteko erabakia irmoa denean, mugarriak paratuko dira, interesdunei bertaratzeko dei eginda, eta jabetza erregistroan inskribatuko da, finka inskribaturik baldin badago.

Bestela, finkaren immatrikulazioa eginen da, hura eskuratzeko titulua aldeztu aurretik inskribatuz edo, titulurik ezean, inbentario orokorraren ardura duenak hipotekei buruzko legerian xedatutakoaren arabera emandako ziurtagiria. Ondotik, mugaketa inskribatuko da.

6. Mugaketa-prozedura hasteko erabakia hartu eta hemezortzi hilabeteko epean ebazten ez bada, prozedura iraungi eginen da, eta jarduketak artxibatzea erabakiko da beste tramiterik gabe.

7. Gorabehera eragin duenak hartuko du bere gain gastua edo, subsidiarioki, modu desegokian haren onurak hartu dituenak, eta premiamendu bidez eskatu ahalko da.

8. Jabari publikoko ondasunen mugaketetatik soberan geratutako lurra Foru Komunitateko jabari publikoan sartuko dira desafektatu ondoren. Horretarako, ondare gaietako eskumena duen departamentuak departamentu edo erakunde publiko eskudunei eskatu ahalko die ondasun higiezin mugaketa egin dezaten, ongi zehazteko horien hedadura eta lurrik soberan ote dagoen jakiteko.

57. artikulua. Jabetza berreskuratzeko ahalmena.

1. Foru Komunitateko administrazioak berez berreskuratu ahalko ditu, edozein unetan, Nafarroako Ondarekoak diren jabari publikoko ondasun eta eskubideen jabetza, bidegabe galdutakoa.

2. Ondare-ondasunak direnean, administrazio bidea erabili ahalko da horiek berreskuratzeko, usurpazioa gertatu eta biharamunetik hasita urtebeteko epean. Epe hori iraganik, jabetza berreskuratzeko egintzak abiarazi beharko dira jurisdikzio zibileko organoetan.

3. Usurpatutako ondasun edo eskubidea atxikia duen departamentua edo erakunde publikoa baliatuko da ahalmen horretaz, edo ondare gaietako eskumena duen departamentua, bestela.

Halere, ondasun edo eskubideen galera bidegabeak eta horiek berreskuratzeko jarduketak ondare gaietako eskumena duen departamentuari jakinarazi beharko zaizkio.

4. Ondorio horietarako, interesdunari entzutea eman ondoren eta usurpazioa egiazaturik, usurpatzaileari eskatuko zaio jarduketa bertan behera utz dezan, gehienez ere zortzi eguneko epean, ohartaraziz eskaerari bere borondatez erantzun ezean utzaraziko zaiola.

5. Uzteko eskaera betetzen ez bada, jabetza berreskuratzeko behar diren neurri guztiak hartuko dira, administrazio prozedura arautzen duen legerian xedatutakorekin bat. Okupatzaileari ondasuna edo eskubidea utzarazteko, organo eskudunak agintearen agenteen laguntza eskatu ahalko dio dagokion organoari, behar izanez gero.

Kasu horretan, berreskuratzeko prozedurak ekarritako gastuak eta usurpatutako ondasunari egindako kalteak okupatzaileak hartuko ditu bere gain, eta premiamendu bidez ordainarazi ahalko dira.

6. Ez da interdikturik onartuko Foru Komunitateko administrazioak arlo honetan egiten dituen jarduketan kontra, betiere administrazioa legez ezarritako prozedurari lotu baldin bazaio.

58. artikulua. Maizter-iraizpen administratiborako ahalmena.

1. Foru Komunitateko administrazioak maizter-iraizpen administratiboa sustatu eta bete ahalko du bere ondasun demanialen jabetza berreskuratzeko, hirugarrenen okupazioa legitimatzen zuen titulua, baldintzak edo inguruabarrak azkendurik badaude.

2. Ondasuna atxikia duen departamentua edo erakunde publikoa baliatuko da maizter-iraizpenarako ahalmenaz, eta egindako jarduketan berri emanen dio ondare gaietako eskumena duen departamentuari.

Ahalmenaz baliatu aurretik, okupazio eskubidea ematen zuen titulua azkendu edo iraungi dela deklaratu beharko da, eta prozedurari eta izandako gastuei dagokienez aurreko artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da.

59. artikulua. Enbargaezintasuna, karga, transakzioa eta arbitrajea.

1. Ezein auzitegik edo agintari administratibok ez du jabari publikoko ondasun eta eskubideen edo ondare-ondasun eta eskubideen kontrako enbargo-probidentziarik emanen, ez eta exekuzio agindurik abiarazi ere, ondasun eta eskubide horiek zerbitzu publiko edo funtzio publiko bati atxikirik daudenean, haien mozkinak edo besterentzearen produktua helburu zehatz batzuei legez afektaturik daudenean edo politika publikoak gauzatzen edo interes ekonomiko orokorreko zerbitzuak ematen dituzten Foru Komunitateko administrazioaren sozietate publikoen kapitala ordezkatzen duten balore edo tituluak direnean.

2. Foru Komunitatearen ondare-ondasun edo eskubideen gainean ez da kargarik eratuko horiek besterentzeko eskatzen diren baldintzak beteta ez bada.

3. Nafarroako ondareko ondasun edo eskubideen gaineko transakzioak, auzitegietakoak nahiz auzitegietatik kanpokoak, eta horiei buruz sortzen diren auziak arbitrajearen pean jartzea ondare gaietan eskumena duen departamentuak onetsi beharko ditu, departamentu edo erakunde publiko interesatuaren ekimenez, Nafarroako Kontseiluak irizpena eman ondoren bere legeria berariazkoari jarraikiz aginduzkoa denean.

60. artikulua. Ondasunak begiratu eta zaintzeko betebeharra.

1. Nafarroako Foru Komunitatearen Ondareko ondasunak edo eskubideen jabetza, kudeaketa

edo administrazioa, edozein izaerarekin, bere kargu duen pertsona natural edo juridiko oro, publikoa nahiz pribatua izan, beharturik dago horiek begiratu, zaindu eta arrazoiz ustiatzera, eta dolo, erru edo arduragabekeria desenkusaezina gertatzen denean eragindako kalte eta galeren erantzukizuna izanzen du.

2. Nafarroako Foru Komunitatearen zerbitzuko langileek, zein den ere harremanaren izaera, Nafarroako Foru Komunitateko Ondarearen parte diren ondasun eta eskubideen zaintza eta osotasuna begiratu beharko dituzte, modu egokian eta ezarriak dituzten helburuetarako erabil daitezen saiatuko dira eta ondare gaietan eskumena duen departamentuari igorriko dizkiote haien defentsa eta zainketa egokietarako behar diren datu eta dokumentu guztiak.

III. KAPITULUA Erantzukizunak eta zehapenak

61. artikulua. Erantzukizunak.

1. Doloz edo erruz Nafarroako Foru Komunitateko ondareko ondasun edo eskubideei kalte egiten dieten pertsona fisiko edo juridikoek edo edozein modutan usurpatzen dituztenek arau-hauste administratiboa eginen dute.

Arau-hauste horrek dirutako zehapena ekarriko du berarekin, hurrengo artikuluetan xedatutakoarekin bat, eta horrek ez du baztertuko eragindako kalte eta galeren zenbatekoa adinako kalte-ordaina ordaindu behar izatea, horien balorazioa egin ondoren, eta ondasunak lehengo egoerara itzuli, ahal delarik.

2. Erantzukizuna administrazio bidean eskatuko da, interesdunari entzutea eman ondoren. Hartzen den ebazpenean epe bat finkatuko da hura borondatez betetzeko, eta betetzen ez bada subsidiarioki beteko da, erantzulearen kontura.

62. artikulua. Arau-hausteak.

1. Honakoak dira arau-hauste administratiboak:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Ondareko ondasun eta eskubideak suntsitzea edo horiei kalteak eragitea.

b) Ondasunak okupatzea, horretarako gaitzen duen titulurik gabe.

c) Baimendu gabeko obren edo beste jarduketak batzuen bidez ondasunak aldatzea.

d) Ondasunen atxikipena okupazioa legitimatzen duen titulua azkendu ondoren.

e) Ondasunak baimenik edo emakidarik gabe erabiltzea, hura erregulatzen duten araei lotu

gabe edo aurreikusitakoez beste helburu batzuetarako.

f) Emakiden edo baimenen titularrek ondasunak egoera onean zaintzeko duten betebeharra ez betetzea.

g) Foru lege honen 54. eta 60. artikuluetan aurreikusitako betebeharrak, laguntzekoa eta begiratu eta zaintzekoa, ez betetzea.

h) Esku utzitako saldo eta gordailuen berri emateko betebeharra, foru lege honen 16. artikuluari jarraikiz, ez betetzea.

2. Arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

3. Arinak dira foru administrazioari edo hirugarrenei kalte edo galerak eragin eta horien zenbatekoa 3.000 eurotik beherakoa denean, eta f) eta g) letretan aipatzen diren arau-hauste administratibok, salbu eta kalte ekonomikoen zenbatekoa dela eta, balorazioa egiterik badago, larri edo oso larritzat jo daitezkeenean.

4. Arau-hauste larriak dira eragindako kalte eta galeren zenbatekoa 3.000 eurotik gorakoa eta 30.000 eurotik beherakoa denean, bai eta c), d), e) eta h) letretan aurreikusitako arau-hausteak ere, salbu eta kalte ekonomikoen zenbatekoa dela eta, balorazioa egiterik badago, oso larritzat jo daitezkeenean.

5. Oso larriak dira eragindako kalte edo galeren zenbatekoa 30.000 eurotik gorakoa denean, bai eta b) letretan aurreikusitako arau-haustea ere.

63. artikulua. Zehapenak.

1. Arau-hauste arinen kontrako zehapena 6.000 euro bitarteko isuna izanzen da, larrien kontrakoa 40.000 euro bitarteko isuna eta oso larrien kontrakoa 100.000 euro bitarteko isuna, edo eragindako kalteen zenbatekoaren bi halako, balorazioa 50.000 eurotik gorakoa denean.

2. Aplikatu beharreko zehapena mailakatzeko, kontuan hartuko dira eragindako kalteen zenbatekoa, ukitutako ondasun edo eskubideen balioa, arau-haustea errepikatzea edo partaidetza maila, betiere ahaztu gabe tipifikaturiko arau-hausteak egitea ez dela inolaz ere onuragarriagoa izanzen arau-hauslearentzat hautsitako arauak betetzea baino.

Aringarritzat hartuko da, eta isunaren zenbatekoa erdira murriztu ahalko da baldin eta arau-hausleak kasuan kasuko eskaeran ezartzen zaion epean zuzentzen badu arau-hausteak eragindako egoera.

3. Arau-hauste larri edo oso larriak errepikatuz gero, arau-hausleari urtebetetik hiru urtera bitarte kendu ahalko zaio gaitasuna baimenen edo emakiden titular izateko.

64. artikulua. Preskripzioa.

1. Arau-hauste arinak egin eta urtebetera preskribatuko dira, larriak bi urteren buruan eta oso larriak hiru urteren buruan. Betiere preskripzio epea arau-haustea egiten den egunean hasiko da.

2. Ezarritako zehapenak bi urteren buruan preskribatuko dira zehapena irmo egiten denetik hasita.

3. Epe horien kontaketa Herri Administrazioen Araubideari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 132. artikuluan ezarritako moduan egingen da.

65. artikulua. Prozedura.

1. Kapitulu honetan aipatzen diren zehapenak ezartzeko Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruzko Foru Legean zehapen ahalmenaz baliatzeko aurreikusitako prozedura erabiliko da.

2. Ondasunak edo eskubideak atxikiak dituzten departamentuek edo haien kudeaketa esleitura dutenek izanen dute kasuan kasuko zehapenak ezartzeko eskumena.

3. Egitateak delitu edo hutsegite izan daitezkeenean, organo eskudunak jurisdikzio penalari jakinaraziko dio, eta etenda utziko du espedientearen tramitazioa eta behin betiko ebazpena epai irmoa eman arte edo auzia largestea erabaki arte; bigarren kasuan etena kendu eta zehapen espedientearen tramitazioak aurrera egingen du.

Ezartzen den zehapen penalak baztertu egingen du administrazioa zehapen ahalmenaz baliatzea, baina ez, ordea, dagozkion erantzukizun zibilak eskatzea eragindako kalte eta galeren ordaina hartzeko, non ebazpen judizialak ez duen bere baitan kontzeptu horretako kalte-ordainei buruzko erabakia.

V. TITULUA

Jabari publikoko ondasunen afektazioa, aldaketa eta atxikipena

I. KAPITULUA

Afektazioa eta desafektazioa

66. artikulua. Afektazioa.

1. Afektazioak xedatzen du Nafarroako Foru Komunitateko Ondareko ondasunak eta eskubideak erabilera orokor batekin edo zerbitzu publiko

batekin loturik daudela eta jabari publikoan sartzen direla.

2. Afektazioa lege arau baten ondorioa izan daiteke, esanbidez egindakoa edo isilbidez edo presuntzioz xedatua.

67. artikulua. Esanbidezko afektazioa.

1. Esanbidezko afektazioa ondare gaietan eskumena duen departamentuak egingen du, bere ekimenez edo departamentu edo erakunde publiko interesatuak eskatua.

Afektazioa ebazpen bidez egingen da, bertan adierazirik zein den ondasun edo eskubidea, zer helburutarako erabiliko den, jabari publikoan sartuko dela eta zer departamentu edo erakunde publiko izanen duen atxikirik.

2. Afektazioak hura erabakitzen duen ebazpenean adierazten den egunetik aurrera izanen ditu ondasunak, ondasunak zerbitzu publiko baterako berehalakoan erabili behar ez badira ere, epe bat iraganik baizik, edo afektazioari buruzko ebazpenean jasoko diren zenbait baldintza bete ondoren.

3. Nafarroako Foru Komunitatearen Ondareko ondasun eta eskubideak erabilera edo zerbitzu publiko bati baino gehiagori afektatu ahalko zaizkio, betiere helburu horiek bateragarriak badira. Kasu horretan, afektazioa erabakitzen duen ebazpenak xedatuko ditu ukitutako departamentu edo erakunde publiko bakoitzari dagozkion ahalmenak eta betebeharrak.

68. artikulua. Isilbidezko afektazioa.

1. Ondasunak zer erabilera edo zerbitzu publikotarako den, horrek eraginen du afektazioa isilbidezkoa izatea, eta esanbidezko afektazioaren ondorio berberak izanen ditu, kasu hauetan:

a) Ondasun edo eskubide bat kostu bidez eskuratzea erabilera orokorreko edo zerbitzu publiko helburu bat betetzeko.

b) Ondasun edo eskubide bat irabazi asmoz, inter vivos edo mortis causa eskuratzea, destinoa erabilera orokorreko edo zerbitzu publikoko helburuekin loturik gelditzen bada eskualdatzailearen edo kausatzailearen borondatez.

c) Ondasunak eta eskubideak administrazio eskualdaketa edo lagapen bidez eskuratzea.

d) Ondasun eta eskubideak nahitaezko desjabetze bidez eskuratzea, eta kasu horretan ulertuko da afektatu zaizkiela interes publikoaren edo interes sozialaren deklarazioa eragin zuten helburuei.

e) Nafarroako Gobernuak onetsitako planak, programak edo obra edo zerbitzu proiektuak, hori-

en ondorioz ondasunak edo eskubideak erabilera edo zerbitzu publikoko helburu berekiekin lotesten badira.

2. Eraikitzen ari diren higiezin kasuan, eraikina zer departamentu edo erakunde publikoren aurrekontu kredituren kargura egiten den, departamentu edo erakunde publiko horrek kudeatutako jabari publikoari afektaturik daudela ulertuko da, salbu eta kontrakoa xedatzen denean.

Obra amaituta, ondare gaietan eskumena duen departamentuari haren onarpenaren eta obra berriaren inskripzioaren berri emanen zaio, erregularizatzeko eta inbentario orokorrean sartzeko.

69. artikulua. Presuntziozko afektazioa.

1. Presuntziozko afektazioak esanbidezko afektazioaren ondorio berak izanen ditu kasu hauetan:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Ondareko ondasun eta eskubideen erabilera agerikoa, publikoa eta jarraitua, gutxienez urtebeteko epean, erabilera orokorreko edo zerbitzu publikoko helburuekin.

b) Usukapio bidez ondasunak edo eskubideak eskuratzea, erabilera orokorrerako edo zerbitzu publikorako, hirugarrenek horien gainean zuzenbide pribatuari jarraikiz eskuratutako eskubideak ukatu gabe.

2. Jarduketa horien berri duten departamentuek edo erakunde publikoek ondare gaietan eskumena duen departamentuari jakinarazi beharko dizkiote, horien egoera erregularizatzeko eta inbentario orokorrean sartzeko.

70. artikulua. Desafektazioa.

1. Erabilera orokorrak edo zerbitzu publikoek beharrezkoak ez dituzten ondasun eta eskubideen desafektazioa ondare gaietan eskumena duen departamentuak eginen du, bere ekimenez edo horiek atxikiak dituzten departamentuak edo erakunde publikoak eskatuta; desafektazioan ondasun edo eskubidearen identifikazioa agerraraziko da, bai eta desafektazioa eragin zuten arrazoiak ere.

2. Desafektazioari buruzko ebazpena esanbidezkoa izanen da, salbu eta foru lege honetan aurreikusitako kasuetan, eta ondasun edo eskubide horiek ondarekoen izaera hartuko dute.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Ondareko ondasun eta eskubideak laga, besterendu eta kargatzeko erabakietan desafektazioa inplizitua dela ulertuko da, bidezkoa denean.

4. Desafektaturiko ondasun edo eskubideak ondare gaietan eskumena duen departamentua-

ren eskura jartzen ez diren bitartean, administrazio, babes eta zaintza ahalmenak horiek atxikiak dituzten departamentu edo erakunde publikoei dagozkiela ulertuko da.

II. KAPITULUA

Aldaketa demaniala

71. artikulua. Kontzeptua eta motak.

1. Aldaketa demaniala ekintza bat da, zeinaren bidez jabari publikoko ondasun bat desafektatu eta aldi berean ordura arteko bere helburuez beste bati afektatzen zaion, jabari publikoko ondasunen araubidetik atera gabe.

2. Aldaketa demaniala barnekoa izan daiteke, jabari publikoari Foru Komunitateko administrazio departamentuek edo erakunde publikoek kudeatutako ondasun eta eskubideak afektatzen zaizkionean; kasu horretan ez da aldaketarik izanen ukitutako ondasun eta eskubideen titularitatean. Aldaketa administrazio artekoa ere izan daiteke, Nafarroako administrazio publiko ezberdinen edo beste administrazio publiko batzuen jabari publikoari afektatzea gertatzen denean, administrazio horiek ados jarri ondoren; bigarren kasu honetan, ukitutako ondasun eta eskubideen titularitatea aldatuz edo aldatu gabe egin daiteke aldaketa.

Nolanahi ere, beste administrazio publiko batzuen jabari publikoari afektatzea administrazio horien legerian aukera hori aurreikusirik dagoenean aplikatuko da.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Ondareko ondasun eta eskubideen aldaketa demaniala esanbidezkoa izan behar da, 80. artikuluan xedatutakoa galarazi gabe, eta ondare gaietan eskumena duen departamentuak onetsiko du, bere ekimenez edo interesdunak eskatuta.

Departamentu horrek onartuko ditu, halaber, beste administrazio publiko batzuek Foru Komunitateko administrazioaren alde egindako aldaketa demanialak.

72. artikulua. Barneko aldaketa.

Beste departamentu edo erakunde publiko bati atxikiak dauden ondasun edo eskubideak behar dituzten departamentuek edo erakunde publikoek ondare gaietan eskumena duen departamentuari eskatuko diote horietaz erabaki dezan ebazpen arrazoitu bidez, interesdunei entzutea eman ondoren.

73. artikulua. Administrazioen arteko aldaketa.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Ondareko ondasun eta eskubide demanialak Nafarroako administrazio publikoen jabari publikoari edo beste

administrazio publiko batzuenari afektatu ahalko zaizkio, horien eskumeneko erabilera edo zerbitzu publiko zehatz baterako. Afektazio hori ondasun eta eskubideen titularitatea eskualdatuz nahiz eskualdatu gabe gauzatu ahalko da, eta erabakitzen diren gainerako baldintzetan.

2. Aldaketa demaniala titularitatea eskualdatuz egitea erabakitzen denean, administrazio publiko eskuratzailerak titularitateari eutsiko dio ondasun edo eskubidea afektazioa eragin zuen erabilera edo zerbitzu publikorako baliatzen den bitartean. Helburu horretarako erabiltzen ez bada edo ondoren erabiltzeari utziz gero, Foru Komunitateko administraziora itzuliko da, eta haren ondarean sartuko da bere jabetza eta akzesio guztiekin.

III. KAPITULUA

Atxikipena eta desatxikipena

74. artikulua. Ondasun eta eskubide demanialak Foru Komunitateko administrazioko departamentuei atxikitzea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko departamentuek eskatu ahalko dizkiote ondare gaietan eskumena duen departamentuari beren helburuak betetzeko eta beren eskumeneko zerbitzuak kudeatzeko behar dituzten ondasun eta eskubideak atxiki diezazkien.

2. Atxikipenak atxikitako ondasun eta eskubideen administrazio, kudeaketa, babes, zaintza eta hobekuntzako ahalmenak emanen dizkie departamentu interesatuei.

3. Eskurapenetan, atxikipena inplizitua dela ulertuko da eskuratutako ondasun edo eskubidea zer departamentuari ematen zaion agerrarazten denean.

Era berean, ondasun edo eskubideak zerbitzu publiko bati afektatzen zaizkionean, atxikipena inplizituztat joko da, eta zerbitzu hori emateko eskumena duen departamentuari dagokio.

4. Jabari publikoko ondasun edo eskubideak desafektatzeak berekin ekarriko du dagokion desatxikipen organikoa.

5. Ondasun eta eskubideak erabilera edo zerbitzu publiko bati baino gehiagori afektatuz gero, afektazioa erabakitzen duen ebazpenak ezarri ahalko du zerikusia duten departamentu ezberdinei atxikitzea edo haietako bati bakarrik, ukitutako ondasun eta eskubideen kudeaketarako egokiagoztat joz gero.

Atxikipen partekatuaren kasuan, afektazioa erabakitzen duen ebazpenak ezarriko ditu afektatutako ondasun eta eskubideen administrazio,

kudeaketa, babes, zaintza eta hobekuntzari dagoenez departamentu bakoitzak dituen ahalmenak.

Atxikipena departamentuetako bati egiten bazaio, hura baliatuko da ahalmen horietaz.

6. Atxikitako ondasun eta eskubideek atxikipenean aurreikusitako helbururako beharrezkoak izateari uzten diotenean, departamentuek horren berri eman beharko diote ondare gaietan eskumena duen departamentuari, desatxiki eta, bidezkoa balitz, desafekta ditzan.

Halere, ondasunak eta eskubideak atxikiak dituen departamentuak segituko du bere gain hartzen horien gastuak, ekitaldi ekonomikoa amaitu arte, salbu eta ekitaldi amaitu baino lehen atxikipen berri bat egin eta departamentu interesatuak kreditua duenean gastuak bere gain hartzeko.

75. artikulua. Ondasun eta eskubide demanialak Foru Komunitateko administrazioko erakunde publikoei atxikitzea.

1. Erakunde publikoek eskatu ahalko diote ondare gaietan eskumena duen departamentuari, zuzenean nahiz menpean dituen departamentuaren bidez, beren helburuak betetzeko behar dituzten ondasun eta eskubideak atxiki diezazkien.

2. Erakunde publikoek ez dute eskuratuko atxikitzen zaizkien ondasun eta eskubideen jabetza, horiek eutsiko baitiote Nafarroako Foru Komunitateko Ondareko ondasun diren aldetik dagokien jatorrizko kalifikazio juridikoari; atxikipenak kasuan kasuko ondasun eta eskubideen erabilera, kudeaketa, administrazio, babes, zaintza eta hobekuntza ahalmenak baizik ez dizkie emanen.

3. Ondare gaietan eskumena duen departamentuak ikertu ahalko du erakunde publikoek atxiki zaizkien edo kudeatzen dituzten ondasun eta eskubideei emandako erabilera, eta ondorio horietarako komenigarri iruditzen zaizkien datu eta txosten guztiak eskatu.

Ahalmen horrek ez du galarazten erakundea menpean duen departamentuak, eskumenaren titular den aldetik eta bere gain dituen tutoretza eginkizunez baliatuz, ondasunen erabilera egokia eta aplikazio eraginkorra izan daitezen egokitzat jotzen dituen neurriak hartzea.

Atxikitako ondasun eta eskubideek atxikipenean aurreikusitako helbururako beharrezkoak izateari uzten diotenean, erakunde publikoek horren berri eman beharko diote ondare gaietan eskumena duen departamentuari, aurreko artikuluko 6. idatz-zatian aurreikusitako ondorioetarako.

76. artikulua. Ondare-ondasun eta eskubideak atxikitzea.

Ondare gaietan eskumena duen departamentuak, bere ekimenez edo departamentu interesatuak eskatuta, ondare-ondasun eta eskubideak atxiki ahalko dizkie Foru Komunitateko administrazioaren departamentuei eta erakunde publikoei, ondarearen kudeaketa eta babes hobeari eta helburuak betetzeari begira komenigarria iruditzen zaionean.

Ondasunak edo eskubideak atxikitzen zaizkion departamentuari edo erakundeari dagokio horiek administratu, zaindu, babestu eta hobetzea, bai eta ondare gaietan eskumena duen departamentuari proposatzea komenigarri iruditzen zaizkion xedapen gintzak.

77. artikulua. Ondasunak eta eskubideak Parlamentuko erakundeei eta beste entitate batzuei atxikitzea.

1. Nafarroako Parlamentuak, Comptos Ganberak eta Arartekoak, eta Nafarroako Foru Komunitateko kontsulta eta aholku administrazioaren parte diren entitateek ere, ondare gaietan eskumena duen departamentuari beren helburuak betetzeko behar dituzten ondasun eta eskubideak, Nafarroako Foru Komunitateko ondarekoak, eskatu ahalko dizkiote.

2. Foru Komunitateko administrazioaren departamentuei ondasun eta eskubideak atxikitzeari buruz kapitulu honetan xedatutakoa aplikatuko zaie atxikipen horiei.

78. artikulua. Beste administrazio publiko batzuei atxikitzea.

Ondare gaietan eskumena duen departamentuak, bere ekimenez edo departamentu interesatuak eskatuta, zerbitzu publiko bati afektatutako ondasun edo eskubideak atxiki ahalko dizkie beste administrazio publiko batzuei, zuzenbidean onartutako edozein figura juridikoren bidez zerbitzu hori ematea atxikitzen bazaie.

Atxikipenak berekin ekarriko du atxikitako ondasun eta eskubideak kudeatu, babestu, mantentzea egin eta hobetzeko ahalmenez baliatzea, horien titularitatea eskualdatzea eragin gabe inolaz ere.

IV. KAPITULUA

Prozedura, desadostasunak ebaztea eta organoen ondorengotza

79. artikulua. Prozedura.

1. Afektazio, desafektazio, atxikipen, desatxikipen edo aldaketa demanialeko prozeduretan,

ondare gaietan eskumena duen departamentuak, ebazpena eman aurretik, txostena eskatu beharko die departamentu edo erakunde publiko interesatuei.

2. Prozedura horietan hartzen diren ebazpenak Nafarroako Foru Komunitateko Ondareko ondasun eta eskubideen inbentario orokorrean agerraraziko dira.

80. artikulua. Organoen ondorengotza.

1. Foru Komunitateko administrazioaren departamentuak edo erakunde publikoak lege nahiz erregelamenduzko arau bidez sortu, kendu edo birmoldatzeak ez dakar berekin afektazioa aldatzea. Xedapenean deus ez bada ezarri, ondasun eta eskubideek lehengo helburu eta eginkizun berekin loturik segitzen dutela ulertuko da, eta eskumenak esleitu zaizkion departamentu edo erakundeari atxikiak, espresuki adierazi beharrik gabe.

Ondasun eta eskubideak atxikiak izanen dituzten departamentu edo erakundeek ondare gaietan eskumena duen departamentuari jakinarazi beharko diote hala dela, inbentario orokorrean behar diren aldaketak egiteko.

2. Ondare-egoera berregituraketa organikora moldatzeko, ondasunak zenbait departamentu edo erakunderen artean banatu behar badira, aurreko guztiek horretan ados daudela adierazirik jakinarazi beharko zaio ondare gaietan eskumena duen departamentuari.

Banaketaren proposamenari buruz adostasunik ez badago, ondare gaietan eskumena duen departamentuak ebatziko du afektazioaz eta atxikipenaz, gaiarekin zerikusia dutenei entzutea eman ondoren.

81. artikulua. Desadostasunak.

Afektazio, desafektazio, atxikipen, desatxikipen edo aldaketa demanialeko prozeduretan, Nafarroako Gobernuak ebatziko ditu departamentuen eta erakunde publikoen artean edo ondare gaietan eskumena duen departamentuarekin sortzen diren desadostasunak. Nafarroako Gobernuak emandako ebazpena ondare gaietan eskumena duen departamentuak formalizatu beharko du.

Ondasun eta eskubideen erabilera departamentu edo erakunde desberdinek partekatzen dutenean, horiek dituzten ahalmenez baliatzeari dagokionez horien artean sortzen diren desadostasunak ondare gaietan eskumena duen departamentuak ebatziko ditu, interesdunei entzutea eman ondoren.

VI. TITULUA Jabari publikoa

I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

82. artikulua. Jabari publikoaren xedea.

1. Erabilera publikoari afektaturiko ondasun eta eskubideen xede berekia erabilera orokorrerako baliatzea da.

2. Zerbitzu publikoei afektaturiko ondasun eta eskubideen erabilera horiei buruzko arauak, afektazio edo atxikipen egintzan xedatutakoak eta, horrelakorik ezean, foru lege honetan ezarritakoak zuzenduko dute.

3. Aurreko idatz-zatietan adierazitakoa ukatu gabe, beste erabilera batzuk ere baimendu ahalko dira, publikoak nahiz pribatuak, kostu bidezkoak edo doakoak, betiere bateragarriak badira beren afektazioarekin eta ez bazaizkie interes orokorreki kontrajartzen.

83. artikulua. Titulu gaitzailearen beharra.

1. Inork ez ditzake, organo eskudunak baimentzeko titulurik eman gabe, jabari publikoko ondasun eta eskubideak herritar guztiek berdintasunez duten erabilera eskubidea gainditzen duen moduan okupatu edo erabil.

2. Jabari publikoaren babesaz arduratzen diren departamentu eta erakunde publikoek begiratuko dute aurreko idatz-zatian ezarritakoa bete dadin eta, kasua bada, 53. artikuluan aurreikusitako ahalmenez baliatuz, jabari publikoko ondasun eta eskubideak titulurik gabe okupatzen dituztenen edo horien gaineko aprobetxamendu berezi batez baliatzen direnen kontra jardunen du.

3. Jabari publikoko ondasun eta eskubideen gaineko emakidak eta baimenak lehenengo eta behin haiek arautzen dituen legeria bereziak zuzenduko ditu eta, arau berezirik ez badago edo aski ez badira, foru lege honen xedapenek.

II. KAPITULUA Jabari publikoko ondasun eta eskubideen erabilera

84. artikulua. Jabari publikoko ondasunen erabilera motak.

Nafarroako Foru Komunitateko jabari publikoko ondasunek erabilera hauek izan ditzakete:

- a) Erabilera erkidea, orokorra nahiz berezia.
- b) Erabilera pribatiboa.

85. artikulua. Erabilera erkide orokorra.

Erabilera erkide orokorra da herritar guztiei dagokiena, batzuen erabilerak baztertu edo eragozti gabe besteek erabiltzea; doakoa da.

Ez da lizentzia, baimen edo emakidaren menpe egonen, eta muga bakarrak hauek eragindakoak izanen dira: gainerako pertsonak erabiltzea, ondasunen izaera errespetatzea eta zaintzea, eta ordena egokirako arau berariazkoen eta erabilera antolatua sustatzeko ematen diren jarraibideen menpe egon beharra.

86. artikulua. Erabilera erkide berezia.

1. Erabilera erkidea berezitat jotzen da hainbat inguruabar suertatzen direnean, erabilera erkide orokorra eragotzi gabe, hala nola, erabileraren intentsitatea edo arriskua, lehentasuna urritasuna dagoenean, errentagarritasun berezia lortzea edo antzeko beste batzuk, guztiei dagokien erabilera-ekin alderatuz, erabilera gehiegizkoa edo erabilerrari kalte egitea eragin dezaketena.

2. Erabilera erkide berezirako lizentzia edo baimena lortu beharko da alde aurretik, kasuan kasuko ondasunak atxikiak dituen departamentuak edo erakunde publikoak emana; departamentu edo erakunde horrek berak zehaztuko ditu bete beharreko baldintzak.

3. Baimenak zuzenean emanen zaizkie eskatutako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei, kopurua mugatua dagoenean izan ezik, kasu horretan lehia egonen baita edo, halakorik egitea bidezkoa ez bada, eskatzaileengan baldintza berezirik baloratu behar ez delako, zozketa bidez edo arauetan ezarritako hautabidea erabiliz.

4. Lizentzia edo baimena doakoa izan daiteke, kontraprestazioekin edo baldintzekin eman, edo tasa baten menpe egon, Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde publikoen tasak eta prezio publikoak arautzen dituen foru legerian aurreikusitakoarekin bat.

Doakoa izanen da, baimendutako pertsonarentzat inolako abantaila ekonomikorik ez badakarkio, edo abantaila hori izanda ere hutsa edo hutsaren hurrengo bada, onuradunari ezarritako baldintzak edo kontraprestazioak kontuan harturik.

5. Lizentziak edo baimenak epe zehatz baterako emanen dira, eta gehieneko iraupena, luzapek barne, hamar urtekoa izanen da, non ez den txikiagorik ezartzen aplikatzekoak diren arau berariazkoetan; lizentzia edo baimena ematen duen departamentuak edo erakundeak ezeztatu ahalko ditu edozein unetan, interes publikoaren arrazoiengatik, jabari publikoari kalteak eragiten zaizkione-

an, interes publiko handiagoko jardueretarako erabiltzea eragozten denean edo erabilera orokorrari kalte egiten zaionean, eta ezeztatzeak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik sortuko.

6. Lizentziak edo baimenak ematen direnean, ondare gaietan eskumena duen departamentuari jakinaraziko zaio, inbentario orokorrean idatzoharra egin dezan, bidezko bada.

87. artikulua. Erabilera pribatiboa.

1. Jabari publikoko ondasunen erabilera bakar baten esku egoteari esaten zaio erabilera pribatiboa, aldi berean besteren erabilera baztertu edo mugatzen bada.

2. Instalazio finkoak edo obra iraunkorrak beharrezko dituen erabilera pribatiboak administrazio emakida alde aurretik ematea eskatzen du.

3. Okupazioa instalazio desmuntagarrien edo ondasun higigarrien bidez bakarrik egiten bada edo obra ez-iraunkorrak beharrezko dituen, nahitaezkoa da aldi baterako okupatzeko baimena ematea.

88. artikulua. Aldi baterako okupatzeko baimena.

1. Jabari publikoko ondasunak aldi baterako okupatzeko baimenak ondasun horiek atxikiak dituen departamentu edo erakundeari emanen zaizkio, eta haiek ezarri beharko dituzte baimen horiek emateko baldintzak.

2. Erabilera erkide bereziko ezarritakoa aplikatuko da baimen horietan.

89. artikulua. Emakida demanialak.

1. Emakida demanialak ondasun horiek atxikiak dituen departamentu edo erakunde publikoak edo kudeatzea dagokionak emanen ditu.

2. Emakidek xede jakin bat izan behar dute, zer kanon ordaindu behar den finkatu, hala bada, eta epea zehaztu. Gainera, jabetza-eskubidea salbu utzirik eta hirugarrenen kalterik gabe emanen dira. Halaber, emakida-hartzaileak ondasun eta instalazioen erabilera egokia ziurtatzeko, eta behar izanez gero lehengoratzeko, aurkeztu behar dituen behar adinako bermeak finkatu behar dira.

Betiere inplizituki onartutzat joko da departamentu edo erakunde publikoak edozein unetan emakidaren xede diren ondasunak, instalazioak eta eraikuntzak ikuskatzeko ahalmena, eta baita emakidak mugaeguna baino lehen suntsiaraztekoa ere, interes publikoko arrazoiak justifikaturik, emakidadunari eta egindako kalteen ordaina emanda, halakorik izan bada.

3. Emakidak epe jakin baterako dira. Gehienez epea, luzapenak barne, 75 urtekoa da, salbu eta aplikatzekoak diren arau berariazkoetan txikiagoa ezartzen bada.

4. Emakida doakoa izan daiteke, kontraprestazioen truke eman edo baldintzaturik, edo kanon bati lotua izan. Doakoa izanen da, emakidadunarentzat inolako abantaila ekonomikorik ez bada-karkio, edo abantaila hori izanda ere hutsa edo hutsaren hurrengoa bada, onuradunari ezarritako baldintzak edo kontraprestazioak kontuan harturik.

5. Bidezkotzat jotzen diren baldintzak ezertan galarazi gabe, emakida arautzen duen baldintzagirian honako xehetasun hauek sartu behar dira:

a) Emakidaren xedea eta norainoko mugak dituen.

b) Emakida-hartzaileak egin behar dituen obra eta instalazioak.

c) Zein epetarako eman den, luzapenaren araubidea, halakorik bada, eta subrogazioarena, betiere departamentu edo erakunde publiko emailearen alde aurreko baimena nahitaezko izanen duena.

d) Emakida-hartzailearen eskubide eta betebeharrak

e) Emakida-hartzaileak jabari publiko okupatua eta egindako obra eta instalazioak egoera onean kontserbatu eta mantendu beharra, eta dagozkion gastu, zerga eta gainerako tributuoak ordaindu beharra.

f) Ordaindu beharreko kanona, halakorik bada. Doakotasuna bidezko denean, horren berri jasoko da emakidaren baldintza-agiri arauemailean.

g) Erabiltzaileek, hala bada, ordaindu beharreko tarifak eta haiek berrikusteko prozedurak.

h) Emakidaren epea betetzen denean obrek, eraikuntzek eta instalazioek izanen duten xedea.

i) Jarri beharreko bermeak.

j) Emakida azkentzeko arrazoiak.

k) Zehapen araubidea.

l) Araubide juridikoa eta jurisdikzio eskuduna.

90. artikulua. Emakidak emateko prozedura.

1. Emakidak lehiaketaz emanen dira, departamentu edo erakunde emaileak ezartzen dituen baldintzen arabera.

Hala ere, zuzenean esleitu ahal izanen dira foru lege honen 37.3 artikuluan ezarritako kasuetan, behar bezala justifikatutako gorabehera bere-

ziak tartean badira edo legeetan ezarritako beste zenbait kasutan.

2. Emakidaren esleipena, haren baldintzak, gorabeherak eta azkentzea, ondare gaietan esku-mena duen departamentuari jakinaraziko zaio, inbentario orokorrean idatzoharra egin dezan.

91. artikulua. Emakiden azkentzea.

Emakidak honako arrazoi hauetako batengatik azkenduko dira.

a) Emakida-hartzailearen heriotza edo haren nortasun juridikoaren azkentzea.

b) Emakida-hartzailearen ukoa.

c) Epearen eta, hala bada, luzapenaren muga-guna iristea .

d) Kanona ez ordaintzeagatik edo emakida-hartzailearen beste ezbetetze larriren baten ondorioz emakida suntsiarazten bada, eman zuen organoak hala adierazirik.

e) Alderdien arteko adostasuna, betiere emakida-hartzaileari egotzi ahal zaion beste kausaren bat ez badago emakida suntsiarazteko, eta interes publikoko arrazoiaren ondorioz kontratuak irautea beharrezkoa ez denean edo komeni ez denean.

f) Emakida berreskuratuta, kalte-ordaina eman da, hura mantentzea interes publikoaren aurkakoa dela uste bada, betiere espedientean hala dela frogaturik.

g) Desjabetzea.

h) Emakida sorrarazi zuen ondasuna desagertzea.

i) Ondasunaren desfektazioa, ondasunari jabari publikoko izaera kentzea beharrezkoa dela alde zuzenetik txosten batez frogaturik.

j) Beste edozein kausa, zuzenbidean edo emakidaren baldintza-zerrendan jasotakoa.

92. artikulua. Emakida azkentzearen ondorioak.

1. Emakida azkendutakoan, gelditutako obrak, eraikuntzak eta instalazio finakoak doan eta karga nahiz zamarik gabe itzuliko zaizkio Foru Komunitateari, salbu eta baldintzetan haiek suntsitzea ezarri bazen.

2. Emakida berreskuratzen bada, azkentze aurreratuaren ondorioz egindako kalte eta galeren ordaina emanen zaio titularrari. Berreskurapena egiten den datan Jabetzaren Erregistroan beren bermeak inskribaturik dituzten hartzekodun hipotekarioen eskubideak kontuan hartuko dira kalte-

ordainaren zenbatekoa eta hartzaileak zehazterakoan.

93. artikulua. Desafektatutako ondasunen gaineko emakiden eta baimenen likidazioa.

1. Baimen bat edo emakida bat duten jabari publikoko ondasunek izaera hori galdu eta ondare-ondasun bihurtzeko daitezten, ondoko lerrokatetan xedatua bete behar da:

a) Baimen edo emakiden titularrei entzutea emanen zaie desfektazio espedientean.

b) Titular horien eskubide eta betebeharrak azkentzea gertatzen ez den bitartean eduki berekin mantenduko dira, nahiz eta haiekin ezarritako harreman juridikoak zuzenbide pribatuaren menpera pasatuko diren, eta jurisdikzio zibilaren esku geratuko den haiekin sortutako gatazkez arduratzea.

c) Gozamen epea bete da baimen eta emakiden azkentzea deklaratu da, eta are epeak bete gabe ere, administrazioa berreskurapen libreko aukeraz baliatzen denean. Gainerakoen kasuan ezarritako epeen mugaegunak iritsi ahala deklaratu dira azkenduak.

2. Ondare gaietan eskumena duen departamentua da ondasunak jabari publikokoak zirela emandako baimen eta emakidetatik sortutako harreman juridikoen azkentzea deklaratzeko organo eskuduna, eta berari dagokio, halaber, harreman berrituetatik sortutako eskubideak eskatzea, indarra duten bitartean, eta betebeharrak betetzea.

3. Ondare gaietan eskumena duen departamentuari dagokio, halaber, eskubideen desjabetzea erabakitzea, ezarritako epean mantentzea kaltegarria iruditzen bazaio ondasunen geroko erabilerarako edo besterentzez gero balioa galduko luketela uste badu.

94. artikulua. Lehentasunez eskuratzeko eskubidea.

1. Lehen jabari publikokoak izandako ondare-ondasunen besterentze kostu bidezkoa erabakitzeko, demanialak zirenean haien gainean baimen edo emakiden ondoriozko eskubide indardunak dituztenek lehentasunez eskuratzeko eskubidea izanen dute.

2. Lehentasunez eskuratzeko eskubidea ez da sortuko, baimen edo emakidak dituzten ondasunen doako lagapen edo ondasun atxikipenen kasuan, emakida-hartzaileak edo baimendunak administrazio publikoak edo erakunde publikoak direnean. Kasu horretan, ondasun horiek eskuratu zituzten entitateek beren kostura liberatu ahal iza-

nen dituzte, Foru Komunitateko administrazioaren baldintza berdinetan. Lagatako ondasun edo eskubideen itzulera gertatuko balitz, lagapen-hartzailek ez dute inolako eskubiderik izanen liberazio hori dela-eta emandako kalte-ordainengatik.

95. artikulua. Erabiltzeko baimena kontratu publikoetatik datorrenean.

1. Jabari publikoko ondasunak erabiltzeko baimena, kontratu publiko bat exekutatzeko bada, haren esleipenean inplizituki onartua dela ulertuko da.

2. Kontratu horiei dagokienez, ondare gaietan eskumena duen departamentuari eman beharko zaio haien esleipenaren berri, inbentario orokorrean jaso dezan.

96. artikulua. Erreserba demaniala.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak zilegi du erabilera orokorrerako diren ondasunen erabilera eskusiboa beretzat erreserbatzea bere eskumeneko helburuak betetzeko, onura publikoko edo interes orokorreko arrazoiek hori egitea justifikatzen badute. Iraupenari dagokionez, erabakia hartzeko oinarri izan ziren helburuak betetzeko behar den denbora izanen da muga.

2. Erreserba ondare gaietan eskumena duen departamentuak eginen du, bere ekimenez edo departamentu edo erakunde publiko interesatuak eskatua. Erreserba horrek lehentasuna izanen du ondasun horien beste edozein erabilera balizkoren aurrean eta inplizituki onura publikoaren deklarazioa eta desjabetzearen ondorioetarako lehendik zeuden eskubideak okupatu beharra, berarekin bateraezinak badira.

VII. TITULUA Jabari pribatua

97. artikulua. Ondare-ondasunak erabiltzeko irizpideak.

1. Ondare-ondasun eta eskubideen kudeaketan, administrazioan eta ustiapenean, errentagarritasun handiena izanen da irizpidea, zeinak ez baitu galarazten, behar bezala arrazoitutako kasu jakin batzuetan, beste irizpide batzuk kontuan hartzea, politika publiko ezberdinak garatzen eta betetzen laguntzeko.

2. Ondare-ondasun edo eskubideak edozein negozio juridiko, ohiko nahiz atipiko, erabiliz ustiatu ahalko dira.

3. Nafarroako Foru Komunitatearen Ondareko higiezinaren gainean erosteko aukera duten errentamendu kontratuak egin ahalko dira, besterentzeetan aplikatzekoak diren arauen menpe.

98. artikulua. Eskumena.

1. Jabari pribatuko ondasunen ustiapena ondare gaietan eskumena duen departamentuak erabakiko du, foru lege honen 76. artikuluan xedatutakoa ukatu gabe. Azken kasu horretan, ondare gaietan eskumena duen departamentuari eman beharko zaio horren berri, inbentario orokorrean jaso dezan.

2. Prozedura 38.1 artikuluan ezarritakoari jarraikiz tramitatuko da.

3. Ondare-ondasun edo eskubideen erabilera urtebete baino gutxiagoko epe baterako esleitzen bada, edo hitzaldi, mintegi, aurkezpen edo bestelako ekitaldietarako, ez dira titulu honen beharkizunak bete beharko. Organo eskudunak erabiltzeko baldintzak eta ordaindu beharreko kontraprestazioa zehaztuko ditu baimentzeko gintzan.

99. artikulua. Ustiatzeko moduak.

Ondare-ondasunak eta eskubideak zuzenean ustiatu ahalko dira, erakunde publiko baten bitartez edo kontratu bidez partikular baten esku utziz.

100. artikulua. Partikularren ustiapena.

1. Ondare-ondasun eta eskubideak ustiatzeko kontratuak enkante edo lehiaketa bidez edo zuzenean esleitu ahalko dira, ondare gaietan eskumena duen departamentuak ezartzen dituen baldintzekin.

2. Esleipenerako irizpide erabakigarri bakarra prezioa denean, enkantea erabiliko da eta lehiaketa, berriz, balorazioan beste faktore batzuk, espedientearen justifikatu beharrekoak, aintzat hartu behar direnean.

3.1. Ustiapena zuzenean esleitu ahalko da ondasunaren berezitasunak direla eta, eskaera mugatua delako, eragiketa berezia delako edo kasu hauetakoren bat gertatzen denean:

a) Enkantea edo lehiaketa eman gabe gelditu denean.

b) Kontratuaren iraupena bi urtekoa edo gutxiagokoa denean, luzatzeko aukerarik gabe.

c) Presako arrazoiengatik, ustekabeko gertaeren ondorioz.

d) Interes publikoko edo sozialeko arrazoiengatik, behar bezala frogaturik dardenean.

e) Ustiapena Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren sozietate edo fundazio publiko baten esku uzten denean.

3.2. Zuzeneko esleipena eragin duten ingurua-barrak behar beste justifikatu beharko dira espedienteen.

101. artikulua. Ondare-ondasunak ustiatzeko kontratuak.

1. Ondasunak ustiatzeko kontratuak eta gainerako negozio juridikoak beren izaerari dagozkion zuzenbide pribatuko arauak zuzenduko dituzte, foru lege honetan aurreikusitako berezitasunak ukatu gabe.

2. Kontratuen iraupena ez da hogeitertietik gorakoa izanen, luzapenak barne, behar bezala justifikaturiko salbuespeneko arrazoiak daudenean izan ezik.

3. Esleipen-hartzaileak eskatuta, kontratua luzatu ahalko da, hasierako kontratuaren iraupenaren erdia gehienez, ustiapenaren emaitza dela eta komeni denean, baina aurreko idatz-zatian adierazitako denborara mugaturik.

4. Esleipen-hartzailearen eskubide eta betebeharretan hirugarren bat subrogatzeko ondare gaitan eskumena duen departamentuaren baimen espresua beharko da.

5. Kontratua dokumentu administratiboan formalizatuko da, salbu eta esleipen-hartzaileak notario-agiria eskatzen bada, eta horrelakoetan gastuak esleipen-hartzaileak hartuko ditu bere gain.

102. artikulua. Kontraprestazioak.

1. Jabari pribatua erabiltzeagatik jaso beharreko errenta edo kontraprestazio ekonomikoa ez da merkatukoa baino txikiagoa izanen.

2. Ustiatzeak berekin ekarri gero beste ondasun, eskubide edo zerbitzu batzuk entregatzea, horiek foru administrazioaren ondare pribatuan sartuko dira eta haien kontu hartuko da inbentario orokorrean, bidezkoa bada.

VIII. TITULUA

Enpresa-ondare publikoa

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

103. artikulua. Aplikazio esparrua.

Honako hauek osatzen dute Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde publikoen zerbitzuko enpresa-ondare publikoa:

a) Enpresa-entitate publikoak, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruzko Foru Legean ezarritako moduan.

b) Sozietate publikoak. Halakotzat hartzen dira, edozein forma hartzen dutela ere, Nafarroako Gobernuak sortu edo aitortutako enpresak, kapital sozial osoa, zuzenean, Foru Komunitateko administrazioaren titularitatekoa dutenak eta interes publikoko helburuak betetzeari etengabe lotetsirik daudenak.

c) Gainerako sozietate-partaidetzak: akzioak, tituluak, baloreak, obligazioak, akzio bihur daitezkeen obligazioak, partaidetza sozialak, lehentasuneko harpidetza eskubideak, partaidetza-kredituak eta bigarren mailako merkatu antolatuetan negoziatzeko moduko beste batzuk, Foru Komunitateko administrazioarentzat edo haren erakunde publikoentzat eskubideak ordezkatzeko badituzte.

104. artikulua. Enpresa-ondare publikoaren berregituraketa.

1. Nafarroako Gobernuak, ondare gaitan eskumena duen departamentuak proposaturik, eskubidea du Foru Komunitateko administrazioaren titularitateko egintzak edo partaidetza sozialak haren menpe edo hari loturik dauden erakunde publiko edo sozietate publikoen esku uzteko. Halaber, Nafarroako Gobernuak, ondare gaitan eskumena duen departamentuak proposaturik eta departamentu interesatuak txostena eman ondoren, eskubidea du bere erakunde publiko edo sozietate publikoen egintzak edo partaidetza sozialak Foru Komunitateko administrazioaren esku uzteko.

Eragiketa horiek ez daude 117. artikuluan aurreikusitako prozedurari lotuak.

2. Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde publikoen enpresa-ondare publikoaren titularitatea eta barne-antolamendua aldatzeko eragiketak ez dira baloreen merkatuaren legeriari lotuta egonen, ez eta erosteko eskaintza publikoaren araubideari ere, eta ez dute sortuko lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubiderik, ez eta partaidetzak transferitzen zaizkien sozietateetako beste akziodun batzuek edo hirugarrenek, estatutu edo kontratu bidez, partaidetza horiek lehentasunez eskuratzeko izan lezaketen beste edozein eskubide ere. Arau honen ondorioz egiten den sozietate-partaidetzen transferentzia edo berrantolamendu hutsak ez dakar berekin sozietate horiek dituzten lotura juridikoak aldatzea edo suntsitzea.

3. Zuzenean edo zeharka aurreko ataletan xedatutakoari jarraikiz egiten diren ondare-eskualdaketa, sozietate-eragiketak eta gainerako egintzak, bai eta funts-emateak eta kapital-ekarpenak ere, salbuetsirik daude Foru Komunitateak edo Nafarroako Toki Entitateek ordainarazten duten edozein tributu pagatzetik. Halaber, aipatutako

eskualdaketa, eragiketa eta egintza guztiek %90eko murrizketa izanen dute fede-emaila publikoen eta Jabetzaren eta Merkataritzakoen Erregistrazailen esku-hartzea dela-eta sortutako zerga edo lansari profesionaletan.

II. KAPITULUA

Enpresa arloko entitate publikoak

105. artikulua. Ondarearen gaineko araubidea.

Enpresa-entitate publikoek antolamendu juridiko pribatuaren arabera egokituko dute beren kudeaketa, deusetan ukatu gabe foru lege hau dela medio aplikatzekoak zaizkien xedapenak.

III. KAPITULUA

Sozietate publikoak

106. artikulua. Araubide juridikoa

1. Sozietate publikoek antolamendu juridiko pribatuaren bidezko kudeaketa izanen dute, deusetan ukatu gabe foru lege honetan eta aurrekontuei, kontabilitateari eta finantzen eta kontratuen kontrolari buruz aplikatzekoa den araudi administratiboa ezarritako berezitasunak.

2. Behin ere ez dute ahalmenik izanen agintaritza publikoa erabiltzea dakarrenik.

3. Sozietate publiko batek enpresaren bat sortu, aldatu edo deuseztatu nahi badu, bere gobernu-organoei erabaki beharko dute merkataritzako legerian eta estatutuetan ezarritakoari jarraikiz.

107. artikulua. Sozietateak sortu, aldatu eta desegitea.

1. Sozietate publiko bat sortzeko, Nafarroako Gobernuak baimena eman beharko du, betiere ondare gaietan eskumena duen departamentuak proposaturik eta departamentu interesatuak txostena emanik. Hori dena, nolahi ere, ez da eragozpen izanen merkataritzako legeria aplikatzeko.

2. Sozietate publikoak eraldatu, batu, bereizi eta desegiteko, sortzeko aurreikusitako tramite berberak egin beharko dira.

Sozietate bat desegin baino lehenago, Nafarroako Gobernuak erabakiko du, bidezko bada, sozietatearen ondasunen xedea.

108. artikulua. Estatutuak.

1. Sozietate publikoen estatutuak Nafarroako Gobernuari igorriko zaizkio, sozietatea bera sortzeko erabaki-proposamenarekin batera. Aplikatzekoa den merkataritzako legeriaren arabera zein organok daukan ahalmena, horri egokituko zaio

estatutuak onestea. Behin onetsita, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

2. Erabaki-proposamenarekin eta estatutuekin batera, sozietatearen jarduketa, inbertsio eta finantza programa igorriko zaio Nafarroako Gobernuari. Programa horren gutxieneko edukia aurrekontuei buruzko legerian xedatutakoari lotuko zaio.

3. Estatutuetan sozietatearen helburua aldatzeko, Nafarroako Gobernuak baimena eman beharko du, betiere ondare gaietan eskumena duen departamentuak proposaturik eta departamentu interesatuak txostena emanik. Hori dena, nolahi ere, merkataritzako legeriaren arabera hartu beharreko erabakiak hartu aurretik egin beharko da.

Gainerako estatutu aldaketetarako baimena ondare gaietan eskumena duen departamentuak emanen du, departamentu interesatuak txostena eman ondoren.

4. Enpresa publikoen estatutuetan espresuki adieraziko da Nafarroako Gobernuaren alde aurretiko erabakia beharko dela enpresa eraldatu, batu, bereizi eta desegiteko.

109. artikulua. Diruzkoak ez diren ekarpenak.

Ondare gaietan eskumena duen departamentuak sozietate publikoei jabetza pribatuko ondasun edo eskubideak ematea erabaki dezake. Ondasunen balioa 4.000.000 eurotik gorakoa denean, alde aurretik Nafarroako Gobernuaren baimena beharko da.

Kasu hauetan, ez da beharrezkoa izanen aditu independenteen txostena, Sozietate Anonimoei buruzko Legearen Testu Bategina onetsi zuen abenduaren 22ko 1564/1989 Legegintzako Errege Dekretuaren 38. artikuluan aurreikusitakoa alegia. Haren orde, tasazio txosten bat egingen da.

110. artikulua. Nafarroako Foru Komunitatearen ordezkariak sozietate publikoetan.

Sozietate publikoen gainean Nafarroako Foru Komunitateak dituen eskubideez baliatzea ondare gaietan eskumena duen departamentuari dagokio, eta hark beste edozein departamenturen esku utz dezake, erabakitzen den irispide eta zabaltasunarekin.

111. artikulua. Gobernu eta administrazio organoak.

1. Ondare gaietan eskumena duen departamentuari dagokio, izaera orokorrez, Sozietate Publikoaren Batzar Nagusian izanen dituen ordezkariak izendatzea.

2. Batzar Nagusiak Administrazio Kontseiluko kideak proposatuko ditu, betiere ondare gaietan eskumena duen departamentuaren baimenarekin.

3. Foru Komunitateak sozietate publikoen gobernu eta administrazio organoetan izan behar dituen ordezkariak ondare gaietan eskumena duen departamentuak, akzioen titularitateari datxezkion eskubideez baliatzeko, emanen dizkien jarraibideak bete behar dituzte.

112. artikulua. Erantzukizuna eta bateraezintasuna.

1. Jarraibideak jaso dituzten sozietate publikoen administrazioaileek arduraz jokatu dute eta libre geldituko dira Sozietate Anonimoei buruzko Legearen Testu Bategina onetsi zuen abenduaren 22ko 1564/1989 Legegintzako Errege Dekretuaren 133. artikuluan eta lege horrekin bat datozenetan aurreikusitako erantzukizunetik, jarraibide haiek bete gero ondorio kaltegarriak sortzen bada.

2. Abenduaren 22ko 1564/1989 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Sozietate anonimoen legearen Testu Bategineko 124. artikuluko bigarren zatian eta Erantzukizun mugatuko sozietateei buruzko martxoaren 23ko 2/1995 Legearen 58. artikuluko hirugarren zatian eta harekin bat datozenetan ezarritako debekuak ez die eraginen administrazioaileei.

113. artikulua. Sozietate publikoen atxikipena.

Nafarroako Gobernuak sozietate publikoak atxiki ahal dizkio Foru Komunitateko departamentu edo erakunde publiko bati, baldin eta bere eskumenek zerikusirik baldin badute enpresaren xede sozialarekin. Enpresak, ondare gaietan eskumena duen departamentuaren ahalmenak deuseztatzen ukatu gabe, eskumen haien kontrol funtzionala eginen du, baita eraginkortasunarena ere.

Espresuko atxikipenik egin ezean, ondare gaietan eskumena duen departamentuari egokituko zaio sozietate publikoaren jardura gainbegiratzeari buruzko ahalmenez baliatzea.

114. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Ondareko ondasunak atxikitzea eta Inbentarioa.

1. Ondare gaietan eskumena duen departamentuak Nafarroako Foru Komunitateko Ondareko jabetza pribatuko ondasun eta eskubideak atxiki ahal dizkie sozietate publikoei, beren helburuak bete ditzaten. Erabilera edo zerbitzu publiko bati ere atxiki ahal dizkio ukitutako ondasun eta eskubideak, betiere sozietate horien helburua zerbitzu hori ematea baldin bada.

Foru Komunitateko administrazioaren erakunde publikoei ondasun eta eskubideak atxikitzeke foru lege honetan xedatutakoa aplikatuko zaie atxikipenei.

2. Foru Komunitateko administrazioaren sozietate publikoek ondasun eta eskubideen inbentarioa eginen dute, haien titular edo erabiltzaile badi-ra edo haien atxikipena egin bazaie. Ondoren, inbentario hori igorriko diote ondare gaietan eskumena duen departamentuari, urte bakoitzeko lehenbiziko hiruhilekoan.

Ondare gaietan eskumena duen departamentuak inbentarioa egin eta eguneratzeko jarraibideak eman ahal dizkio, Nafarroako Foru Komunitateko Ondareko Ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorrearekin koordinaturik egon dadin.

115. artikulua. Auditoretza eta kontrol batzordea.

Aplikatzekoa den araudiarekin bat, kontuen auditoria egitera behartuta dauden sozietate publikoek auditoria eta kontrol batzorde bat eratu beharko dute, Administrazio Kontseiluaren menpean, erabakitzen diren osaera eta eginkizunak izan behar dituenak.

IV. KAPITULUA Sozietateen partaidetzak

116. artikulua. Kapitala ordezkatzeko duten tituluen kostu bidez eskuratzea.

1. Sozietateen kapitala ordezkatzeko duten tituluen eta enpresen kuotak edo parte alikuoten, eta etorkizun eta aukeren kostu bidezko eskurapena ondare gaietan eskumena duen departamentuak eginen du, bere ekimenez edo, gaia dela-eta, departamentu interesatuak eskaturik.

2. Eskurapena bigarren mailako merkatu antolatuetan egin ahal da, edo haiekin kanpo, indarra duen legeriari jarraikiz, eta edozein egintza edo negozio juridikoren arabera.

Titulu edo baloreek bigarren mailako merkatu antolatuetan batean kotizatzen baldin badute, eskurapenaren prezioa merkatuak eragiketaren unean eta egunean ezartzen duen kotizazio prezioa izan behar da.

Hala ez denean, erosketak bidezko eskurapena zein den, horren arabera erabakiko da zenbatekoa finkatzeko prozedura. Zenbatekoa ezin izan behar da izan, onartu ohi diren balorazio metodoen arabera, balio teorikoa baino handiagoa.

3. Akzio bihurtzeko obligazioen, lehentasuneko harpidetza eskubideen, partaidetza-kredituen eta eite bereko tituluen eskurapena, eragiketaren izatearekin bateraezina ez den horretan, aurreko idatz-zatietan aurreikusitakoari jarraikiz eginen da.

117. artikulua. Kapitala ordezkatzan duten tituluak kostu bidez besterentzea.

1. Sozietateen kapitala ordezkatzan duten tituluak eta enpresen kuotak edo parte alikuoten kostu bidezko besterentzea ondare gaietan eskumena duen departamentuak egingen du, bere ekimenez edo, gaia dela-eta, departamentu interesatuak eskaturik.

2. Besterentzea bigarren mailako merkatu antolatuetan egin ahalko da, edo haietatik kanpo, indarra duen legeriari jarraikiz, eta edozein egintza edo negozio juridikoren arabera.

Titulu edo baloreek bigarren mailako merkatu antolaturen batean kotizatzen baldin badute, besterentzearen prezioa merkatuak eragiketaren unean eta egunean ezartzen duen kotizazio prezioa izan da.

Kasu horretan, besterentzeko eskumena duen organoak erabakiko du erabili beharreko prozedura. Lehiaketa edo enkante bidez egin ahalko da, non eta, arrazoituta, zuzeneko besterentzerik egingen ez den. Organo horrek erabakiko du, bestetik, haien prezioa, betiere elkarrekin onartutako balorazio metodoen arabera.

3. Obligazioen eta eite bereko tituluen besterentzea, eragiketaren izatearekin bateraezina ez den horretan, aurreko idatz-zatietan aurreikusita-koari jarraikiz egingen da.

Xedapen gehigarriak

Lehenbizikoa. Hirigintza arloko jarduketak

1. Hirigintzako eskurapen edo lagapen nahitaezkoak hirigintza arloko eskumena duen departamentuak onetsiko ditu, eta beren legeria berariazkoari loturik egonen dira. Hori ez da eragozpen izan ondare gaietan eskumena duen departamentuari haien berri emateko, inbentario orokorrean jasota gera daitezten.

2. Foru Komunitateko administrazioa bere ondareko higiezinak edo higiezinen jabetzak emanez konpentsazio batzordeetara sartzeko prozedura hirigintzako legeriaren arabera egingen da. Partaidetza horrek eskatzen dituen egintzak haren administrazioan eta kudeaketan eskumena duen departamentuak hartuko ditu bere gain, deusetan ukatu gabe ondare gaietan eskumena duen departamentuari egin beharreko jakinarazpena.

Bigarrena. Lurzoruaren ondare publikoa.

Lurraldearen antolamenduaren gaietan eskumena duen departamentuak bere gain hartuko ditu foru lege honetan ondare gaietan, Lurzoru Publikoaren Foru Bankuaren ondasun eta eskubi-

deei dagokienez, eskumena duen departamentuari esleitutako ahalmenak.

Hirugarrena. Administrazioaren berariazko jabetzei buruzko berezitasunak.

Errepide, mendi, abelbide eta gainerako jabetza administratibo berariazkoen kudeaketan eta administrazioan eskumena duen departamentuek jabetza haien ondasun eta eskubideak inbentariatu eta erregistroan inskriba daitezela bultzatuko dute, baita sobran dauden lurzatiak ere, eta beharrezkoa balitz, behar diren mugaketak egingen dituzte foru lege honek indarra hartu eta lau urteko epean. Inbentario horiek ondare gaietan eskumena duen departamentura igorriko dituzte, inbentario orokorrean jasota gera daitezten.

Laugarrena. Abelbideak.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak bere gain hartuko ditu Abelbideei buruzko abenduaren 15eko 19/1997 Foru Legeak Ekonomia eta Ogasun Departamentuari esleitutako ahalmen eta botereak, salbu eta desjabetzeko ahalmena, foru lege honetan ezarritakoari jarraikiz egingen baita.

Bosgarrena. Animaliak.

Animaliei ondasun higigarriei ezarritako prozedura berberak aplikatuko zaizkie, beren izaerarekin bateragarria bada betiere.

Seigarrena. Zenbatekoak eguneratzea.

Foru lege honetan araututako diru-zehapenen zenbatekoak eta ondare gaietan eskumena duen departamentuaren eta Nafarroako Gobernuaren eskurantzak erabakitzeko ezarritakoak Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko foru legeen bitartez aldatu ahalko dira.

Zazpigarrena. Administrazioaren isiltasuna ondare-ondasunen gaineko prozeduretan.

Administrazioaren isiltasuna ez esleia izan da alderdi batek eskaturik abiarazitako prozedura guztietan, prozedura horiek Nafarroako Foru Komunitateko Ondareko ondasun edo eskubideak ukitzen badituzte.

Xedapen iragankorrak

Lehenbizikoa. Foru lege honek indarra hartzen duenean hasiak diren prozeduretan aplikatu beharreko arauak.

Foru lege honek indarra hartu aurretik hasitako administrazio prozedurek hasi zirenean aplikatze-koak ziren arauak jarraituko diete.

Bigarrena. Ondasun eta eskubide higiezinaren egoeraren erregularizazioa.

Departamentu edo erakunde publiko batek, Nafarroako Foru Komunitateko Ondareko ondasun eta eskubideak erabiltzen ari denean, haien atxiki-pen titulua falta baldin badu, egoera horren erregularizazioa eskatu beharko dio ondare gaietan eskumena duen departamentuari, betiere foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean.

Xedapen indargabetzailea

Bakarra. Indargabetzen diren xedapenak.

1. Indarrik gabe geldituko dira foru lege honetan xedatutakoaren kontra dauden maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak, eta berariaz, honako hauek:

a) Nafarroako Ondareari buruzko irailaren 27ko 17/1985 Foru Legea.

b) Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legean 122., 123. eta 124. artikulua.

2. Maila bereko bestelako arau batek aldatzen ez dituen bitartean, Indarrean jarraitzen dute uztailaren 1eko 166/1988 Foru Dekretua (Foru Komunitatearen aldeko oinordetza legalari loturiko administrazio araubidea ezartzen duena), eta apirilaren

28ko 116/1997 Foru Dekretua (Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari ondasunak kostubidez eskuratzeko eskumena ematen diona).

Azken xedapenak

Lehenbizikoa. Foru lege honek gehiengo osoa behar du.

Foru lege honek gehiengo absolutua behar du, eta izaera hori dauka, foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 20.2 eta 45.6 artikuluen arabera.

Bigarrena. Nafarroako Gobernuari baimena ematea.

1. Nafarroako Gobernuak behar diren erregelamenduzko xedapenak eman ditzake foru lege hau garatu eta betearazteko.

2. Nafarroako Gobernuak, erabaki baten bidez, VIII. tituluko aurreikuspenetara egokituko ditu foru lege honek indarra hartzen duenean Foru Komunitateko administrazioaren menpe edo hari loturik dauden sozietateak.

Hirugarrena. Foru Legeak indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeita egunera hartuko du indarra.

Foru Lege proiektua, landare osasunari buruzkoa.

NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA ELIKADURA BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Batzordeak landare osasunari buruzko Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut, Legebiltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proiektu hori 2006ko urriaren 27ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpenari buruz, Osoko Bilkuran zuzenketa hau defendatu ahalko da:

– 3. zenbakiko zuzenketa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztua.

Zuzenketa 2006ko abenduaren 16ko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Iruñean, 2007ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

IRIZPENA

Landare osasunari buruzko Foru Lege proiektua

AURKIBIDEA

ZIOEN AZALPENA

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Helburua eta xedekak.

2. artikulua. Definizioak.

3. artikulua. Aplikazio eremua.

4. artikulua. Eskumenen banaketa.

II. KAPITULUA

Landare osasunaren arloko esperimendazioa, aholkularitza eta dibulgazioa

5. artikulua. Landare osasunaren arloko esperimendazioa.

6. artikulua. Landare osasunaren arloko aholkularitza eta dibulgazioa.

III. KAPITULUA

Izurrien prebentzioa eta kontrola

7. artikulua. Partikularren betebeharrak.

8. artikulua. Landareen ekoizleen eta merkatarien Erregistroa.

9. artikulua. Landareen zirkulaziorako mugak.

10. artikulua. Izurrietatik libre dauden eremuak.

11. artikulua. Mezuen Estazioa.

12. artikulua. Izurrien detekzioa.

13. artikulua. Izurri baten adierazpen ofiziala.

14. artikulua. Izurri baten kontrako borrokaren onura publikoa adieraztea.

15. artikulua. Neurri fitosanitarioak.

16. artikulua. Neurri fitosanitarioak betetzea.

17. artikulua. Izurri baten kontrako nahitaezko borrokaren mugak.

18. artikulua. Izurrien kontrako borrokan laguntzea.

19. artikulua. Kalte-ordainak nahitaezko borrokan.

IV. KAPITULUA

Defentsa fitosanitariorako baliabideak

20. artikulua. Defentsa fitosanitarioan kontuan hartu beharreko printzipioak.

21. artikulua. Merkaturatu eta erabiltzeko baldintza orokorrak.

22. artikulua. Produktu fitosanitarioak ekoitzi eta merkaturatzea.

23. artikulua. Produktu fitosanitarioen erabilera.

24. artikulua. Establezimendu eta Zerbitzu Fitosanitarioen Erregistro Ofiziala.

25. artikulua. Mugimenduen Liburu Ofiziala.

26. artikulua. Hondakinen gehieneko mugak.

27. artikulua. Defentsa fitosanitariorako baliabide biologikoak.

28. artikulua. Defentsa fitosanitariorako beste baliabide batzuk.

29. artikulua. Defentsa fitosanitariorako baliabideen erabileraren arrazionalizatzea.

30. artikulua. Murriztapenak defentsa fitosanitariorako baliabideei dagokionez.

V. KAPITULUA

Ikuskapenak, arau-hausteak eta zehapenak

1. atala

Ikuskapenak eta kontrolak.

31. artikulua. Eskumenak.

32. artikulua. Kontrolak.
33. artikulua. Kontrolatzen laguntzeko tresnak.
34. artikulua. Kautelazko neurriak.
35. artikulua. Ikuskatzaile fitosanitarioen ahalmenak.
36. artikulua. Ikuskapenaren akta.
37. artikulua. Pertsona ikuskatuen betebeharrak.
2. atala
Arau-haustek eta zehapenak.
38. artikulua. Arau-haustek eta zehapenak.
39. artikulua. Erantzukizuna arau-hausteengatik.
40. artikulua. Zehatzeko eskumena.
41. artikulua. Arau-hauste eta zehapenen preskripzioa.
42. artikulua. Bestelako neurriak, zehapenak ez direnak.
3. atala
Betearazteko baliabideak.
43. artikulua. Hertsatzeko isunak.
44. artikulua. Betearazpen subsidiarioa.
- Xedapen gehigarri bakarra. Landare Osasunerako Batzordea.
- Xedapen indargabetzaile bakarra. Indargabetutako xedapenak.
- Azken xedapenetan lehenbizikoa. Erregelamenduetarako baimenak.
- Azken xedapenetan bigarrena. Indar hartzea.

Landare osasunari buruzko Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENA

1

Nekazaritzak gizartearentzako elikagaiak ekoi-tzi eta hornitzeko eginkizuna izan du antzinatek. Alabaina, jarduera hori testuinguru sozioekonomiko jakin batean kokatzen da, non gutxieneko errentagarritasuna ateratzea helburu ukaezina izaten den, nekazaritza enpresari eutsiko bazaio.

Nolanahi ere, gaur egun, herrialde garatueta-ko nekazaritza modernoari eginkizun osagarri batzuk betetzea eskatzen eta aitortzen zaio, zorroztasun eta eragingarritasun handiz betetzea ere. Eginkizun osagarri horiek, oro har, nekazaritza lanen esparru guztia eta ingurumenarekin, gizartearekin eta ekonomiarekin dituen harremanen esparrua hartzen dituzte. Eginkizun berrien artean ondoko hauek daude: ingurumena babestea, biodibertsitatea hobetzea, elikagaien kalitatea eta segurtasuna bermatzea, laneko arriskuei aurrea hartzea, lurzoruak kontserbatzea, kultur tradizioei eustea, herrietako biztanleriari eustea, etab. Alderdi horiek guztiek eta, oro har, multifuntzionaltasunaren kontzeptu modernoaren baitan biltzen diren beste batzuek beste testuinguru bat finkatu dute, orain-tsu arteko testuinguru tradizionala ez bezalakoa, izan ere, gizartearen eskari handia duten elementu berriak sortzen dira orain eta, horrenbestez, botere publikoek hori guztia aintzat hartu beharko dute.

Botere publikoek sustatutako nekazaritza berri-aren oinarritzako helburuetako bat landareak eta horien ondoriozko produktuak agente kaltegarrietatik babestea da, agente horien populazioa giza-kiaren esku-hartzearen bidez maila onargarri batean mantentzeko eta, horrekin batera, beste eremu geografiko batzuetatik etortzen diren agente kaltegarriak sartu eta hedatzeari aurre egiteko. Horri guztiari "landare osasuna" esaten zaio.

Egun, landare osasunari buruzko arau gehie-nak Europar Batasunaren arauditik Espainiako legedian txertatutakoak dira. Arauketa juridiko horiek guztiak Landare osasunari buruzko azaroaren 20ko 43/2002 Legean bildu ziren, zeinak Lur lan-duen izurriei buruzko 1908ko maiatzaren 21eko Legea eta Mendiak oihanetako izurrietatik babes-teko 1952ko abenduaren 20ko Legea indargabetu zituen.

Nafarroako Foru Komunitateak ere landare osasunari buruzko zenbait arau onetsi ditu, baina beti esparru horretako arlo jakin batzuk arautzeko. Arau horien artean hauek nabarmendu behar dira: urtarrilaren 22ko 50/1996 Foru Dekretua, Pestizida

Arriskutsuen Mugimenduen Erregistro Ofizialeko inskripzioak eta funtzionamendua eta Nafarroako Foru Komunitatean pestizidak erabiltzeko gaitasuna lortzeko ikastaroak eta agiria arautu zituen; 1997ko uztailaren 28ko Foru Agindua, Nafarroako Foru Komunitatean "Bakterio su" edo Erwinia amylovora delakoaren kontrako neurriak hartzea xedatu zuena; Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren apirilaren 4ko 62/2005 Foru Agindua, laboreen izurri eta gaitzen kontra borrokatzeko nahitaezkoak eta gomendatuak diren neu-ri fitosanitarioak ezarri zituen.

2

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 50.1 artikuluan Nafarroako Foru Komunitateak, bere foru antolamendu orokorraren indarrez, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren inguru-ko gaietan duen eskumen eskusiboa onartzen da, ekonomiaren antolamendu orokorraren arabe-ra. Eskumen eskusibo hori dela bide, Nafarroako Foru Komunitateak legegintza-ahalmena erabiltze-ko aukera du (lege organiko horrexen 40.1 artiku-lua) foru legeak onetsiz, 20.1 artikuluan ezarri bezala.

Gainera, Nekazaritza, abeltzaintza eta mendi arloetako zerbitzuak estatuko administrazioetik Nafarroako Foru Komunitatera eskualdatzeko abenduaren 18ko 2654/1985 Errege Dekretuak landare osasunaren gaineko eginkizun eta zerbitzu sorta handi bat ezarri zuen, geroztik Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bere gain hartu zituenak, besteak beste honako hauek: alor-rak eta uztak zaintzea agente kaltegarririk ba ote den detektatzeko; eraginpeko eremuak mugatzea; agente horiei aurrea hartu eta haien kontra borrokatzea; estatuko interesa deklaratu duten kan-paina fitosanitarioak antolatu, zuzendu eta buru-tzea; neurri fitosanitarioak betetzen ote diren begiratzea eta behar diren neurriak hartzea landa-re produkzioaren gainean, landare produktuei lotu-tako lokalen gainean, defentsa fitosanitarioko bali-abideen gainean, garraiobideen gainean eta, batez ere, pertsonen osasuna zaintzeari begira; elikagaien osasungarritasuna eta ingurumenaren babesa; establezimendu eta zerbitzu plagiziden erregistroaren eginkizunak, etab.

Eskumen sorta handi hori dela eta, gomenda-garria da landare osasuna arautzeko legezko testu bakar bat prestatzea, deusetan galarazi gabe Estatuko Administrazio Orokorrak ondoko gai hauen gaineko tituluen bidez sektore honetan bere gain hartzen ahal dituen eskumenak: mugen eta aduana-zergen araubidea, kanpoko merkataritza, kanpoko osasuna, jarduera ekonomikoaren plan-

gintza orokorreko oinarri eta koordinazioa, osasunaren oinarri eta koordinazio orokorra, produktu fitosanitarioei buruzko legedia eta ingurumena babesteko oinarritzko legedia.

3

Edukiari dagokionez, foru lege honek landare osasunaren arloan aplikagarri diren jarduketak ezartzen ditu, batez ere izurriei aurrea hartu eta haien kontra borrokatzeko eta gai horren gaineko esperimenduz eta dibulgazio lanetarako. Gainera, izurri bat suntsitzeko, izurriaren hedapenari aurre egiteko eta haren populazioa eta ondorioak gutxiagotzeko neurri ofizialetarako baldintzak zehazten dira.

Partikularrei dagokienez, landare osasunaren gaineko erantzukizuna nekazaritza ustiatzearen eta landare estalkia duten beste eremu batzuen titularraren esku uzten da (merkatuko gizarte moderno batean ezin da bestela izan), hala nola defentsa fitosanitarioaren inguruko jardueretan edo izurriak, alorrak eta jarduera horretarako materialak begiratu eta kontrolatzeko lanetan aritzen diren beste profesional batzuen esku. Horrez gainera, aurrerago zehatzago adieraziko diren nahitaezko neurri ofizialak betearazteko ardura izanen dute.

Horrez gainera, produktu fitosanitarioen ekoizleen, baimenen titularren, banatzaileen, saltzaileen eta gainerako operatzaileen betebeharrak eta erantzukizunak finkatzen dira eta, orobat, produktu horien erabiltzaileek erabilera araei jarraikiz erabiltzeko duten erantzukizuna. Era berean, ikuskapen ofiziala egiten zaieneko pertsona fisiko eta juridikoen betebeharrak ezartzen dira.

Kontrol biologikorako organismo exotikoei eta bestelakoei dagokienez, horien banaketa, liberazioa, hazkuntza, produkzioa eta merkaturatzea erregelamenduz ezarriko diren arauak betez egin beharko da, modu eragingarrian erabil daitezzen, gizakiei, animaliei eta ingurumenari kalterik eragin gabe. Organismo exotikoak ikertu eta garatzeko entseguak egin aurretik, Administrazioari jakinarazi beharko zaio.

Arrisku horiei aurrea hartzeko asmoz, orobat, aintzat hartu da kontsumitzaileen artean gero eta hedatuagoa dagoen eskaera bat, hots, ingurumena babesteko eta elikagaiak osasungarriagoak izateko sistema egokiagoak sustatzea landare produkzioan. Gainera, foru lege hau betetzen dela bermatzeko beharrezko diren ikuskapenak egitea aurreikusten da eta ikuskatzaile fitosanitarioei agintarien maila aitortu eta dagozkien eginkizunak finkatzen dira.

Foru legean finkatzen diren erantzukizunak eta aginduak behar bezala beteko direla bermatzeko, zehapen araubide bat ere ezartzen da. Horrenbestez, arau-hausteak eta zehapenak arautzen dira, eta horrekin batera haien ustezko erantzuleak, bidezko zehapenak eta horien mailaketa, preskripzioa eta zehapenak jartzeko eskumenaren eta prozeduraren gaineko arauak.

Azkenik, Foru Komunitateko Administrazioak landare osasunaren gaineko batzorde bat eratuko du. Haren osaera eta eginkizunak erregelamenduz ezarriko dira.

I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

1. artikulua. Helburua eta xedeak.

1. Foru lege honen helburua Nafarroako Foru Komunitatean landare osasunaren arloa arautzea da.

2. Hauek dira foru legearen xedeak:

a) Landareak eta landare produktuak izurriek eragiten dituzten kalteetatik babestea.

b) Nafarroako Foru Komunitatea eta, horrenbestez, Espainia eta Europar Batasuna babestea, landareetan eta landare produktu edo beste objektu batzuetan berrogeialdipeko izurriarik sar ez dadin, eta sartuta dauden izurrien hedapena galarratzea.

c) Landareentzat eta landare produktuentzat kaltegarriak diren organismoen eragina deuseztatu edo mugatzen duten animalia, landare eta mikro-organismoak babestea.

d) Produktu fitosanitarioak erabiltzeak dakartzan arriskuei aurrea hartzea, bai laneko arriskuei, bai ingurumenaren gainekoei, baita gizakien edo animalien osasunaren gainekoei ere.

e) Landare babeserako baliabideak erabilera, eragingarritasun eta segurtasun egoera onean daudela bermatzea.

2. artikulua. Definizioak.

Foru lege honen ondorioetarako, honako definizio hauek hartuko dira aintzat:

a) Merkaturatzea: kostu bidezko edo doako edozein emate, inportazioa barne baina esportazioa alde batera utzita.

b) Landareak: landare biziak eta horien zati biziak, fruta freskoak eta haziak barne direla.

c) Landare produktuak: landare jatorrizko produktu eraldatugabeak edo prestaketa erraza izan dutenak.

d) Beste objektu batzuk: landare produktuak izan gabe, organismo kaltegarrien eragina jasan dezaketen edo haien transmisio-bide izan daitezkeen material edo produktuak.

e) Izurria: landareentzat edo landare produktu-entzat kaltegarria izan daitekeen organismoa, animalien erreinukoa, landareen erreinukoa, birusa, mikoplasma edo beste agente patogeno bat izan.

f) Berrogeialdipeko izurria: eragin ekonomiko izan dezakeen izurria. Europar Batasunaren zerrendan egon beharko du eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak halakotzat sailkatua izan.

g) Kontrol biologikorako organismoa: izurriak kontrolatzeko erabiltzen den aurkari natural antagonista, lehiatzailea edo ugaltu daitekeen beste entitate biotiko bat, j) letran aipatzen diren mikroorganismoak eta birusak alde batera utzita.

h) Kontrol biologikorako organismo exotikoa: Espainiako lurralde osoan edo zati batean bizi ez den kontrol biologikorako organismoa.

i) Defentsa fitosanitariorako baliabideak: organismo kaltegarriak kontrolatzeko, horien eragina galarazteko edo landareen bizi-prozesuan mantengaiak ez bezala eragiteko helburua duten produktuak, organismoak, ekipoak, aplikazio-makinak, gailuak eta elementuak.

j) Substantzia aktiboak: izurrien kontra edo landareetan, landareen zatietan edo landare produktuetan erabateko edo neurri bateko eragina duten substantziak edo mikroorganismoak, birusak barne.

k) Produktu fitosanitarioak: ondoko helburuak dituzten substantzia aktiboak edo substantzia aktibo bat edo gehiago dituzten prestakinak, erabiltzaileei eskaintzen zaizkien moduan: landareak edo landare produktuak izurrietatik babestea edo haien eragina galaraztea, landare produktuen kontserbazioa hobetzea, nahi ez diren landareak edo landare-zatiak suntsitzea edo landareen bizi-prozesuan eragitea mantengaiak ez bezala.

l) Produktu fitosanitario baten hondakinak: Produktu fitosanitario bat erabili ondoren, landareetan, landare produktuetan edo horien ondoriozko produktu eraldatuetan, animalia-jatorria duten elikagaietan edo ingurumenean gelditzen den substantzia edo substantziak, horien barne direla haien metabolitoak eta haien degradazio edo erreakzioaren ondoriozko produktuak.

m) Hondakinen gehieneko muga (HGM): giza-kiak edo animaliek jateko diren produktuen barnealdean edo azalean legearen arabera izan daite-

keen produktu fitosanitarioen hondakinen gehieneko kontzentrazioa.

n) Borroka integratua: biologiako, bioteknologiako, kimikako, laborantzako edo landareen hautapenean oinarrituriko zenbait neurriren konbinazioaren arrazoizko aplikazioa, produktu fitosanitarioen erabilera izurria kontrolatzeko beharrezkoa dena baino handiagoa izan ez dadin.

o) Praktika fitosanitario egokiak: produktu fitosanitarioak eta defentsa fitosanitariorako gaineko baliabideak baimenduta dauden erabilera arauetara jarraituz erabiltzea.

p) Izurri baten kontrola: izurri baten hedapena galarazteko, haren populazioa edo ondorioak gutxitzeko edo izurria suntsitzeko asmoa duten neurri fitosanitarioak erabiltzea.

q) Izurri baten ezarpena: izurri bat eremu batean sartu eta etorkizunean irautea.

r) Izurri bat suntsitzea: neurri fitosanitarioak erabiltzea izurri bat erabat eta betikoz desagerrarazteko asmoz.

s) Izurri baten adierazpen ofiziala: izurri bat dagoela ofizialki onartzea, organismo eragilea, eraginpeko eremua eta hartu beharreko neurri fitosanitarioak zehaztuz.

3. artikulua. Aplikazio eremua.

Foru lege honen aplikazio eremua Nafarroako Foru Komunitatea izanen da eta ondoko hauetan izanen du eragina:

a) Landareak, landuak izan ala berez sortuak, eta landare produktuak.

b) Landareak edo landare produktuak lantzeko, ekoizteko, eskuztatzeke, eraldatzeko, kontserbatzeko, merkaturatzeko edo botatzeko erabiltzen diren lurzoruak eta lurrak, turbak, lurrustelak, simaurrak eta gainerako material, instalazio eta baliabideak.

c) Produktu fitosanitarioak eta defentsa fitosanitariorako bestelako baliabideak, baita horiek ekointzi, banatu, merkaturatu eta aplikatzeko instalazio eta baliabideak ere.

d) Izurriak suntsitu edo mugatzen dituzten animaliak, landareak eta mikroorganismoak.

e) Pertsona eta entitate publiko edo pribatuen jarduerak, foru lege honetan arautzen diren kontuekin zerikusirik badute.

4. artikulua. Eskumenen banaketa.

1. Landare osasunaren arloko eskumenak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departa-

mentuak hartuko ditu bere gain, deusetan galarazi gabe Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak oihanetako izurrien arloko gaietan dituen eskumenak eta Osasun Departamentuak izurri horiek pertsonen osasunean izan lezaketen ondorioei dagokienez dituenak.

2. Landare osasunaren arloan Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioarekin egin beharreko koordinazio lana Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari dagokio.

II. KAPITULUA

Landare osasunaren arloko esperimentazioa, aholkularitza eta dibulgazioa

5. artikulua. Landare osasunaren arloko esperimentazioa.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak landare osasunaren arloko esperimentazioa sustatuko du, batez ere izurrien kontrako borrokara zuzendua, teknikaren eta ekonomiaren aldetik egokiak diren alternatibak lortze aldera, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan gertatzen diren arazo fitosanitarioak konpondu ahal izateko, betiere 19. artikuluan azaltzen diren printzipioak goitiki behera errespetatuz.

6. artikulua. Landare osasunaren arloko aholkularitza eta dibulgazioa.

Foru Komunitateko Administrazioak behar diren prestakuntza ekintzak sustatuko ditu, dela zuzenean, dela bere entitate publikoen bidez, nekazariaren sektoreari jakinarazteko bai arlo horretako esperimentazioaren emaitzak, bai eta izurrien kontrako borrokan edo defentsa fitosanitarioaren baliabideen erabileran prestakuntza hobea izateko egoki iruditzen zaizkion gainerako ezaupideak ere. Jarduketa horietan, besteak beste, laneko arriskuei buruzko prestakuntza, dibulgazioko ekintzak eta aholku ematekoak sartuko dira, produktu fitosanitarioen erabilera ahal den neurrian mugatu edo baztertzeko duten nekazaritzako praktika egokien erabilera sustatzeko.

III. KAPITULUA

Izurrien prebentzioa eta kontrola

7. artikulua. Partikularren betebeharrak.

Ustiatgien eta landare estalkia duten beste eremu batzuen titularrek, nekazariak, baso-langileak eta defentsa fitosanitarioaren inguruko lanetako merkataria eta profesionalek betebeharrak hauek izan behar dituzte:

a) Landareetan edo landare produktuetan organismo kaltegarrien bat edo horien zantzurik modu

atipikoan detektatuz gero, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari lehenbailehen jakinaraztea.

b) Beren alorrek, landaketak, uztak, landareak eta landare produktuak zaintzea, baita basoak, natura-ingurunea eta horiekin lotura duten salerosketarako materialak ere, ematen diren aholkuei jarraikiz "horrelakorik baldin badago?", osasun egoera onean izan daitezen.

c) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eskatuz gero, alorren, landaketen, landareen eta landare produktuen egoera fitosanitarioari buruzko informazioa ematea.

d) Foru lege honen arabera eta indarreko gainerako xedapenen arabera Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ezartzen dituen nahitaezko osasun neurriak aplikatzea eta hari etengabe laguntzea, landare osasuna bermatzea helburu.

e) Ikuskatzaileek ustiatzietan, establezimenduetan, produkzio-instalazioetan, biltegietan eta garraioko elementuetan egiten dituzten ikuskapen lanak onartzea eta horretarako erraztasunak ematea, baita ikuskapen eta kontrolerako gainerako lanetarako ere.

f) Mezuen Estazioaren eginkizunak bere gain hartzen dituzten langileen lanak onartu eta erraztea.

8. artikulua. Landareen ekoizleen eta merkatarien Erregistroa.

Berrogeialdipeko izurrien ugaltzaile potentzialak diren edo ekonomian edo ingurumenean eragin handia duten landareak edo landare produktuek ekoiztu edo merkaturatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoek behar den erregistroan inskribaturik egon beharko dute. Inskribatzeko prozeduran erregelamendu bidez ezarriko diren betebeharrak bete beharko dira.

9. artikulua. Landareen zirkulaziorako mugak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak kontrol ofizialak ezarriko ditu Estatuko Administrazio Orokorrek berrogeialdipeko izurriak estatuaren lurraldean ez sartu eta ez hedatzeko edo izurri horiek har ditzaketan landare edo landare produktu jakin batzuk ez garraiatzeko ezartzen dituen mugak betetzen direla bermatzeko.

10. artikulua. Izurrietatik libre dauden eremuak.

Nafarroako Foru Komunitateko eremu bat edo gehiago berrogeialdipeko izurrietatik babesteko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak

ahalmena izanen du Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari proposatzeko eremu horiek izurrietatik libre daudela deklaratzeko eskaera tramita dezala Europar Batasunean.

11. artikulua. Mezuen Estazioa.

1. Mezuen Estazioa izurrien kontrako borrokan laguntzeko baliabide tekniko bat da, batez ere eragin ekonomiko nabarmena izan dezaketen izurrien kontrako borrokan. Lagin gisa aukeraturiko alor batzuetan izurriak detektatzeko eta horien eragina kalkulatu eta baloratzeko sistema batean oinarritzen da, agente patogenorik ba ote den ikusi eta horrelakoak identifikatzeko analisiak eginez.

2. Izurrien kontrako borrokan behar diren prebentzio neurriak ezarri ahal izateko, Mezuen Estazioak alorretan agertzen diren izurrien agerpenaren eta bilakaeraren jarraipena eginen du eta haiei aurre egiteko eta, beharrezkoa bada, borroka integratuari ekiteko eta erregelamenduz ezartzen diren gainerako jarduketak ezartzeko beharrezkoa den informazioa jakinaraziko du.

3. Mezuen Estazioaren funtzionamendu egokiaren arduraduna Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Departamentua da, deusetan galarazi gabe Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak oihanetako izurrien arloan duen eskumena, horrelakoetan beharrezkoak diren jarduketak egiten ahalko baititu, dela zuzenean dela haren menpeko entitate publikoen bidez.

12. artikulua. Izurrien detekzioa.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak baldin badaki berrogeialdipeko izurri bat edo ekonomian edo ingurumenean eragin berezia izan dezakeen izurri bat agertu dela edo ager daitekeela, berehalakoan ikuskapen bat eginen du izurriaren diagnostikoa egiteko. Horrez gainera, behar diren aholkuak emanen ditu, izurria ez hedatzeko beharrezkotzat jotzen dituen nahitaezko neurri fitosanitarioak eta kautelazkoak ezarriko, eta jatorria argitzeko ikerketak eginen ditu.

2. Informazio hobea jasotzeko eta diagnostiko zehatzagoa egiteko, partikularrek eta entitate publikoek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzu eskudunek adierazten dituzten teknikariei beren instalazioetan sartzen utziko diete.

13. artikulua. Izurri baten adierazpen ofiziala.

1. Berrogeialdipeko izurri bat edo ekonomian edo ingurumenean eragin handia izan dezakeen izurri bat ofizialki detektatzeak izurriaren adieraz-

pen ofiziala ekar dezake. Hori eginen da izurriak sortu dituen edo sor ditzakeen ondorio ekonomikoak edo kalteak hain handiak diren edo hain hedatuak dauden non izurriari aurre egiteko biderik egokiena nahitaezko borroka ezartzea dela ikusten den, eta baita ere, aurre egiteko neurriak eremu jarraituetan aplikatu behar direnean edo izurriaren fokua hedatzeko arriskua dagoenean.

2. Adierazpena eginez gero, izurria kontrolatu ahal izateko 15. artikuluan ezarritako neurriren bat hartuko da, izurria suntsitzeko edo, hori ezinezkoa bada, heda dadila galarazi edo izurriaren ondorioak edo populazioa murrizteko. Neurri horietan partikularrei betebeharrak batzuk ezartzen ahalko zaizkie.

3. Adierazpen ofiziala Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta Estatuko Administrazio Orokorrari horren berri eman beharko zaio berehalakoan. Adierazpenean izurriaren izena, fokoaren kokapena eta, horrelakorik bada, eraginpeko eremuen mugaketa eta izurria suntsitzeko edo, bestela, haren hedapena galarazi eta haren ondorioak murrizteko ezarritako neurriak azaldu beharko dira.

4. Izurri baten adierazpen ofiziala egin eta 14. artikuluan ezarritako baldintzak betez gero, haren kontrako borroka onura publikokoa dela deklaratzeko ahalko da.

14. artikulua. Izurri baten kontrako borrokaren onura publikoa adieraztea.

1. Izurri batek Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean ondorio nabarmenak izan baditzake eta ondoko egoeraren bat gertatzen bada, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak izurriaren kontrako borroka onura publikokoa dela adieraz dezake:

a) Izurriaren intentsitatea, hedadura edo hari aurre egiteko behar diren teknikak direla eta, izurriaren kontrako borrokan partikularrek beren gain hartu ezin dituzten ohiz kanpoko baliabideak behar izatea, edo lan horretan baliabide biologikoak edo autozidak erabiltzea.

b) Izurriaren populazioaren hazkundera eta hedapena halakoa izatea non eremu handia har ditzakeeela eta galera ekonomiko larriak ekar ditzakeela aurreikus daitekeen.

c) Nafarroako Foru Komunitateko lurraldeko zati batean lehenbiziko aldiz agertu den izurri bat izatea.

d) Izurriaren ezaugarriak direla kausa, Nafarroako Foru Komunitateko lurralde osoan edo zati batean suntsitzeko modukoa izatea.

e) Izurria bilakatu eta hedatzeko ezaugarri bereziak direla eta, izurriari aurre egiteko tratamendua ukitutako jabeentzat zuzeneko interesik ez duten egoeretan, lekuetan edo faseetan egin behar izatea, tratamenduak haien ekoizpenetan edo jabetzetan ondorio ekonomikorik eragiten ez duelako.

f) Izurria, dela ingurumenaren arloko arrazoiengatik, dela gizarte ongizatearen ikuspuntutik, dela produkzio bide izateagatik, kontserbatzeko interesa duten mendi edo naturguneetan sartuta egotea.

g) Izurriaren kaltea esportatzeko diren landare edo produktuetara hedatzea eta, horrelakoetan, nazioartean berrogeialdiko neurriak hartzea.

h) Izurriaren adierazpen ofiziala egin ondoren hartutako neurriek eraginik ez izatea edo adierazpenaren esparruan finkatutako lurraldeetatik harago hedatzea.

2. Horiez gainera, beste neurri fitosanitario osagarri batzuk ezar daitezke, bai izurriaren kontrako borrokaren onura publikoa adierazteko xedapen berean, bai ondorengo beste batzuetan ere.

15. artikulua. Neurri fitosanitarioak.

Foru lege hau betearazteko, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak neurri fitosanitario hauek ezar ditzake:

a) Izurri jakin batzuk hartzeko joera duten espezie edo bariatateak edo izurrien ugaltzaile izan daitezkeenak landatu edo lantzea baldintzatu edo galaraztea eremu jakin batzuetan.

b) Landareak eta landare produktuak eta haien zerikusia duten materialak desintsektatzea, desinfektatzea, ibilgetzea, birrintzea, eraldatzea, lurperatzea edo haietan beste neurri profilaktiko bat aplikatzeko agintzea, izurriaren ugaltzaile bada edo izan badaiteke.

c) Landareak eta landare produktuak ekoitzi, eskuztatu, eraldatu, bildu eta gordetzeko erabilitako lokal, tresna eta makineria desintsektatu edo desinfektatzea, bai, halaber, horiek garraiatzeko erabili diren ibilgailuak ere, izurrien bizitoki edo ugaltzaile izan daitezkeenak.

d) Landare eta landare produktu batzuk gorde eta kontserbatzeko baldintzak ezartzea, izurriek eragin ditzaketen kalteei eta izurrien hedapenari aurrea hartzeko.

e) Laborantzako lanak hasi eta bukatzeko egunak finkatzea, horien barne izanik uzta biltzekoak eta oihan aprobeztxamendukoak, lan horiek egiten ematen den denborak izurri baten garapenean eragina izan badezake.

f) Eskutik utzitako landareak erauztea, ondoan dauden landareentzat edo izurri jakin bat kontrolatzeko arrisku fitosanitarioa dagoenean.

g) Teknikaren edo zientziaren ikuspegitik izurri bat kontrolatzeko beharrezkotzat jotzen den beste edozein neurri ezartzea.

16. artikulua. Neurri fitosanitarioak betetzea.

Kontrakoa ezarri ezean, aurreko artikuluan ezarritako neurriak ukitutako ardurapean beteko dira, eta sortzen diren gastuak ere haien kontura izanen dira. Neurri horiek izurriaren bilakaera eta ezartzen diren neurrien aplikazioa ikusita eskumena duen departamentuak finkatuko dituen jarraibide teknikoaren arabera bete beharko dira.

17. artikulua. Izurri baten kontrako nahitaezko borrokaren mugak.

Izurri baten kontrako borrokan, norbanakoen lanak talde-lanaren eragingarritasuna ahul badezake, neurri bereziak hartu behar badira edo ohiz kanpoko baliabideak erabili, arlo horretan eskumena duen departamentuak lan hori onarpen ofiziala duten erakundeetako lan taldeek egin behar dutela ezar dezake, edo departamentuak berak bere gain hartu. Kasu horretan, ukitutakoek ez dute beren konturako inolako lanik egingen, horrela ezartzen bada.

18. artikulua. Izurrien kontrako borrokan laguntzea.

Izurri baten kontrako borrokaren nahitaezko-tasunak ukitzen dituenak ezartzen den laguntza tekniko eta ekonomikoaren onuradun izaten ahalko dira.

19. artikulua. Kalte-ordainak nahitaezko borrokan.

1. Izurri baten adierazpena egin ondoren hartzen diren neurriek ondasun edo jabetza partikular edo publikoak suntsitu, hondatu edo ezin erabiliz uzten dituztenean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, administrazio horrek adierazi badu izurria, behar den ordaina pagatuko die kalteuei. Haren zenbatekoa ezartzen diren arautegi eta baremoekin bat baloratuko da.

2. Kasu hauetan ez dute inolako ordainik hartuko kalteuek aurreko idatz-zatian aipatzen diren neurriengatik:

a) Jarduera edo ustiategia landare osasunari buruzko arautegiagatik dagokion erregistro ofizialean inskribatuta ez dagoenean.

b) Berrogeialdipeko izurri bat edo ekonomiaren edo ingurumenaren aldetik garrantzi berezia duen bat gertatu delarik edo gertatu uste delarik Nafa-

roako Foru Komunitateko Administrazioari berehala jakinarazi ez diotenean.

c) Haien portaeragatik, zerbait egin edo ez egi-teagatik, izurria zabaltzen denean edo izurriari zabaltzen laguntzen ahal diotenean.

d) Ustiatagia edo instalazioak ikuskatzeari uko eginenez gero, bertan daturik ezkutatzuz gero edo hari aurre eginez gero.

e) Landare osasunari buruzko arauak edo Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ezarritako kautelazko edo behin betiko neurriak bete ezik edo haiei jarraitu ezik.

f) Landare osasunari buruzko agiriak eskuzta-tzearen arrastorik dagoenean.

g) Emaizten edo diagnostikoaren proben fida-garritasun maila aldatzen ahal duen

h) Neurriak ezarritako epeetan hartu ez direnean.

i) Landare osasunari buruz indarra duen legeri-an xedatutakoaren beste edozein urratze gertatu denean, neurriak hartzeko zergatikoa izanez gero.

IV. KAPITULUA

Defentsa fitosanitariorako baliabideak

20. artikulua. Defentsa fitosanitarioan kontuan hartu beharreko printzipioak.

Defentsa fitosanitariorako baliabideen erabile-ra:

a) Pertsonen eta abereen osasuna babesteko helburuen menpe egonen da.

b) Ingurumena errespetatzen duen nekazaritza iraunkorraren garapenarekin bat etorriko da.

21. artikulua. Merkaturatu eta erabiltzeko baldintza orokorrak.

Defentsa fitosanitariorako baliabideak:

a) Administrazio publiko eskudunak ofizialki baimendu beharko ditu.

b) Merkatuan etiketaturik agertu beharko dute eta bertan haien ezaugarriak, arriskuak, hartu beharreko neurriak eta ongi erabiltzeko behar diren argibideak jasoko dira.

c) Modu egokian erabili beharko dira, praktika fitosanitario egokiak eta, ahal denean, borroka integratutako printzipioak kontuan hartuz.

22. artikulua. Produktu fitosanitarioak ekoizti eta merkaturatzea.

1. Nafarroako Foru Komunitatean produktu fito-sanitarioak ekoizten dituztenek eginbehar hauek izanen dituzte:

a) Instalazio eta laborategi egokiak edukitzea.

b) Lote guztiak ekoizteko eragiketak erregistra-tu eta haien kalitatea kontrolatzea.

c) Nafarroako Foru Komunitateko Administra-zioak baimena emateko kontuan hartu zituen bete-beharrak egiaztatu eta bermatzeko jarduketak onartzea, baita ontziratatu eta etiketatzeoak ere.

d) Segurtasun datuen fitxa ematea, erregela-mendu bidez ezartzen diren betebeharren arabe-ra.

2. Produktu fitosanitario baten baimenaren titu-larrak ardura hauek izanen ditu:

a) Ekoizleak aurreko idatz-zatian aipatzen diren eginbeharrak egitea.

b) Produktu fitosanitarioak bere baimenean aipatzen diren betebeharrak betetzea, ontziratzea-ri buruzkoak barne.

c) Produktua ongi etiketaturik egotea. Balizko arriskuez, eskuztatu eta erabiltzeko modu egokiaz eta ontzien husteaz behar diren argibide guztiak bilduko ditu.

d) Gainetik etiketatuz gero, hura arauzko bete-beharrekin bat egin beharko da eta c) letran aipa-tzen diren betebeharrak gainetiketatzea egiten duenari egokituko zaizkio.

3. Banatzaileek, saltzaileek eta produktu fitosa-nitarioen beste operadore komertzialek betebeharrak bete beharko dituzte:

a) Erabiltzaileak produktu baten egokitasunaz eta eskuztatu eta erabiltzeko modu praktikoaz aholkatzeko gaiturik egotea edo langile gaituak izatea.

b) Bildu eta merkaturatzeko ezarritako bete-beharrak betetzea.

c) Produktu fitosanitarioak horrelakoak eduki eta erabiltzeko legez eskatzen diren baldintza eta betebeharrak betetzen dituzten pertsona edo enti-tate erabiltzaileei baino ez ematea.

4. Produktu fitosanitarioen merkaturatzean parte hartzen duten ekoizle, baimenen titular eta operadoreek eginbehar hauek izanen dituzte:

a) Beren establezimendu eta jarduerak erregistra-tu eta kontrolatzeko ezartzen diren betebeharrak betetzea.

b) Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari estatistikarako behar diren argibideak ematea, arlo horri buruzko legerian ezarri bezala.

c) Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari berehala jakinaraztea beren produktuek gizakien edo abereen osasunean, uretan edo ingurumenean izan litzaketen ondorio arriskugarri buruz eta haien ondorio fitotoxikoei buruz lortzen duten informazio berria.

5. Artikulu honetako xedapenek ez dituzte deusetan galarazten ekoitzi eta merkaturatzeari buruzko beste legeak, jarduera horiek uki ditzaketenak.

23. artikulua. Produktu fitosanitarioen erabilera.

1. Erabiltzaileek eta, eskuarki, Nafarroako Foru Komunitatean produktu fitosanitarioak eskuztatzen dituztenek eginbehar hauek izanen dituzte:

a) Etiketen edo aholkuen bidez produktu horiek zaindu, eskuztatu eta erabiltzeko modu on eta egokiari buruzko argibide guztiak jakitea.

b) Praktika fitosanitario egokiak betetzea eta etiketetan ageri diren jarraibide edo oharrei kasu ematea.

c) Erabiltzaile mota edo kategoriei dagokienez ezartzen diren murriztapenak errespetatzea.

d) Borroka integratuaren printzipioak kontuan hartzea, aplikatzekoak badira.

e) Hustutako ontziak desagerrarazteko xedapena betetzea, etiketen baldintzekin bat, eta Europar Batasuneko zerrendetatik baztertutako gai aktiboak dauzkaten produktu fitosanitarioak kentzekoak ere bai.

f) Indarra duen arautegiak gaitasuna lortzeko ezarritako betebeharrak betetzea, haien arriskuen kategoria edo moten arabera.

2. Produktu fitosanitarioak aplikatzen dihardutenean, artikulu honetako 1. idatz-zatian aipatzen diren eginbehar orokorrez eta aurreko artikuluko 4. idatz-zatian aipatzen direnez gain, eginbehar hauek izanen dituzte:

a) Behar den gaitasun maila duten langileak izatea.

b) Aplikatzeko behar diren baliabideak edukitzea eta haien funtzionamendua aldian-aldian berrikusteko araubideari eustea.

c) Aplikazio baliabideak eta produktu fitosanitarioak biltzeko lokal egokiak edukitzea.

d) Kasuan-kasuan kontratu bat izenpetzea, non gutxienez ere egin beharreko aplikazioaren datuak eta, bidezko bada, zerbitzuaren erabiltzaileak ondoren bete behar dituen baldintzak agertuko baitira.

e) Bidezko bada, foru lege honetako 24. artikuluan aipatzen den erregistroan inskribatuta egotea.

f) Ihintzatze tresnak Nekazaritzako Makinen Erregistro Ofizialean inskribatzea.

24. artikulua. Establezimendu eta Zerbitzu Fitosanitarioen Erregistro Ofiziala.

1. Produktu fitosanitarioak ekoitzi, eskuztatu, bildu edo merkaturatzeko Nafarroan kokaturik dauden establezimenduak eta egoitza Nafarroan duten edo tratamendu fitosanitarioak Nafarroan aplikatzen dituzten zerbitzu enpresak Establezimendu eta Zerbitzu Fitosanitarioen Erregistro Ofizialean inskribatu beharko dira.

2. Inskribatzeko prozedura erregelamendu baten bidez ezarriko da.

25. artikulua. Mugimenduen Liburu Ofiziala.

1. Lantegi eskatzaileek eta edozein lagapenen bidez toxikotzat edo oso toxikotzat jotzen diren produktu fitosanitarioak bildu eta banatzen dituzten beste establezimenduek produktu fitosanitarioen mugimenduen liburu ofizial bat edukiko dute gaurkoturik.

Liburu hori edukitzera beharturik egonen dira, halaber, aplikatzaileak eta, gero beste batzuen kontura aplikatzeko asmoz, produktu fitosanitarioak eskuratzen dituzten tratamendu enpresak.

2. Mugimenduen Liburu Ofizialaren ezaugarriak eta hori edukitzeko baldintzak erregelamendu baten bidez ezarriko dira.

26. artikulua. Hondakinen gehieneko mugak.

1. Gizakiak edo abereak elikatzeko erabiltzen diren landare, landare produktu eta landare eraldatuek, uza bildu ondoren lehenbizikoz merkaturatzen direnetik aurrera edo uztaren ondoren tratatutak izanez gero biltegitik ateratzen direnetik aurrera, ezin izanen dute produktu fitosanitarioen hondakinik eduki erregelamendu baten bidez ezarriko diren gehieneko mugetatik gorako mailetan.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa ez da aplikatzekoa izanen landare, landare produktu eta landare eraldatuetarako, haien xedea gizakiak edo abereak elikatzeko erabiltzen ez diren produktuak landatu edo ereitea edo ekoiztea bada.

3. Hondakinen gehieneko mugen kontrola kontrol plan edo programa nazionalaren barruan Nafa-

roako Foru Komunitateari dagozkion laginen bidez eginen da, muga horiek gainditzen dituzten landare produktuak merkaturatzea eragozteko.

4. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak laginak gehitzen ahalko ditu beharrezkotzat jotzen dituen laborantzetan.

27. artikulua. Defentsa fitosanitariorako baliabide biologikoak.

1. Kontrol biologikoko organismo exotikoak sartu, banatu eta askatzea, haien xedea ikertzea, kontrol biologikorako askatzea edo produktu fitosanitario biologiko gisa erabiltzea bada, erregelamendu baten bidez ezarriko den arautegiarekin bat etorriko dira. Haien xedea ikertu eta garatzeko entseguak egitea denean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari aldeztu aurretik jakinarazi beharko zaio.

2. Kontrol biologikorako diren organismo ez exotikoak hezi edo ekoiztea eta banatu, merkaturatu eta askatzea erregelamendu baten bidez ezarriko diren arauetara lotuko zaizkie.

28. artikulua. Defentsa fitosanitariorako beste baliabide batzuk.

1. Kapitulu honetan berariaz aipatzen ez diren defentsa fitosanitariorako baliabideek, produktu fitosanitarioak aplikatzeko baliabideen eredu edo prototipoak barne, portaera egokia ziurtatzeko ezartzen diren betebeharrak bete beharko dituzte (praktika fitosanitario egokien baldintzetan erabiltzen direnean) eta, beren izaera edo funtzionamendua dela kausa, pertsonen edo abereen osasunean, ingurumenean edo laboreetan edo horien ekoizkintan sor litzaketen arriskuei aurre hartu beharko diete.

2. Baliabideak merkaturatu ahal izateko aldeztu aurretik Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari jakinarazi beharko zaio. Jakinarazpen hori Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministeriora igorriko da, salbu eta aldeztu aurreko baimena betebeharra denean.

29. artikulua. Defentsa fitosanitariorako baliabideen erabilerearen arrazionalizatzea.

Defentsa fitosanitariorako baliabideak foru lege honetako 20. artikuluan aipatzen diren printzipioak kontuan hartuz erabil ahal daitezkeen, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak landare ekoizpenerako sistema jakin batzuk sustatuko ditu, hala nola, ekoizpen integratua eta nekazaritza ekologikoa, izurriak kontrolatzeari begira laborantzako praktikak eta berezko erregulaziorako tresnak, baita baliabide kimiko, biologiko, fisiko edo materialak ere, zentzuz darabiltzatenak, emaitza ekono-

mikoak, etekinak eta kalitatea onartzekoak izan daitezkeen gizartearendako eta ingurumenaren aldeetik.

30. artikulua. Murriztapenak defentsa fitosanitariorako baliabideei dagokionez.

1. Produktu baimendu bat gizakien edo abereen osasunerako edo ingurumenerako arriskugarria izan daitekeela pentsatzekoa denean, arloan eskumena duen departamentuak Estatuko Administrazio Nagusiari proposatuko dio produktu baimen horri murriztapen batzuk ezar diezazkiola, haren merkaturatzea eta erabilera gutxitu edo debekatzeko.

2. Produktu fitosanitario baten edo defentsa fitosanitariorako beste baliabide baten erabilera gizakien edo abereen osasunerako edo ingurumenerako arriskugarria dela egiaztatu edo arrazoibidez susmatzen bada, hura aldi baterako bertan behera utzi edo haren erabilera arautzen ahalko da.

V. KAPITULUA

Ikuskapenak, arau-haustekak eta zehapenak

1. atala

Ikuskapenak eta kontrolak

31. artikulua. Eskumenak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari dagokio foru lege honetan xedatutakoa betetzeko behar diren kontrol eta ikuskapenak egitea.

32. artikulua. Kontrolak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak kontrol ofizialak ezarriko ditu foru lege honetan xedatutakoa betetzen dela bermatzeko. Kontrolak honelakoak izaten ahalko dira:

a) Sistematisatutakoak, landareak, landa produktuak eta bestelako gauzakiak landu, ekoiztu, bildu edo merkaturatzen diren tokietan.

b) Noizbehinkakoak, produktu horiek eraman edo egon daitezkeen edozein une eta tokitan.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak defentsa fitosanitariorako baliabideen fabrikazioa, merkaturatzea eta erabilera zaintzeko ikuskapen eta programa sistematisatutakoak egiten ditu, bereziki praktika fitosanitario egokien betetze maila aztertuzkoak, eta landareen, landare produktuen eta landare eraldatuen eta haiekin guztiekin prestatutako elikagaien hondakin mailak ikustekoak ere bai, plan nazionalarekin bat, bidezko bada.

33. artikulua. Kontrolatzen laguntzeko tresnak.

Honako hauek izendatuko dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak egin behar dituen kontrolak laguntzeko tresnak:

1. Laborategi fitosanitario bat gutxienez, izurriak eta kontrol biologikoko organismoen diagnostikoak eta identifikazioak egiteko.

2. 32. artikuluko 2. idatz-zatian aipatzen diren zainketa programak burutzeko harturiko laginen analisi eta saioak egiteko egokiak diren laborategi ofizialak edo ofizialki aitortuak, baita erabili beharreko teknika eta metodoak bateratzeko programa koordinatuetan parte hartzeak ere.

3. Aplikazio baliabideen ikuskapen teknikorako zentroak, ofizialak edo ofizialki aitortuak, 23. artikuluko 2. idatz-zatiko b) lerroaldean aipatzen diren aldian aldiko berrikusketarako egokiak direnak.

34. artikulua. Kautelazko neurriak.

1. Foru lege hau betearazteko hartzen ahal diren kautelazko neurriak hauexek dira:

a) Landareak, landare produktuak edo bestelako gauzakiak suntsitzea edo, bidezko bada, lurperatzea.

b) Landareak, landare produktuak edo bestelako gauzakiak eskualde batzuetatik beste batzuetara igortzea.

c) Landareak, landare produktuak edo bestelako gauzakiak ibilgetzea eta, bidezko bada, konfinatzea.

d) Tresnak, instalazioak, lokalak edo establezimenduak aldi baterako prezintatu edo ixtea.

e) Bere eskumeneko baimenak edo erregistro ofizialeko inskripzioak aldi baterako bertan beharra uztea.

f) Landareen, landare produktuen edo bestelako gauzaki eraldatu eta eraldatugabeen erabilera edo helmuga aldatu edo murriztea.

g) Desinfektatu edo desintsektatzea.

h) Agiriak bahitzea.

2. Organo eskudunek, alorretarako edo haien ekoizpenetarako, pertsona edo abereen osasunerako edo ingurumenerako egoera arriskugarri bat gertatzen denean, aurreko idatz-zatian aipatzen diren kautelazko neurriak hartuko dituzte, arrazoiak emanda.

3. Kautelazko neurriak, intentsitateari, proporzionaltasunari eta betebeharrak teknikoek dagokienez, kasu bakoitzean bermatu asmo diren interes

publikoen arabera izan diren eta sortu dituen arriskuak edo baimenik ezak baino gehiago ez dute iraunen.

35. artikulua. Ikuskatzaile fitosanitarioen ahalmenak.

1. Foru lege honetan aipatzen diren ikuskapen eginkizunetan diharduten langileak agintaritzat joko dira eta ahalmen hauek izan diren dituzte:

a) Titulartasun publiko zein pribatuko edozein toki, instalazio edo bulegotan sartzea. Etxeetan sartu ahal izateko, aldezturik titularraren baimena edo epaileen ebazpena beharko da.

b) Argibideak eta egiaztagirak eskatzea.

c) Laborategi ofizialean edo bestelako zentro espezializatuetan aztertu edo analizatzeko behar diren gutxienerako laginak hartzea.

d) Ikuskapenaren ondorioz, diharduen ikuskatzaileak gizakien, landareen edo abereen osasunerako edo ingurumenerako arrisku larri bat edo berehalakoa dagoela uste badu, 34. artikuluko 1. idatz-zatian aipatzen diren kautelazko neurriak hartzen ahalko ditu, e) idatz-zatian aipatzen dena izan ezik, hori agintari eskudunari har dezala proposatzen ahalko baitio.

2. Ikuskatzaileek hartzen dituzten kautelazko neurriak berehala jakinaraziko dizkiote organo eskudunari, behar diren ondorioak izan ditzan. Organo horrek erabakiko du neurri horiei eutsiko diotenetz, hamabost eguneko epean.

36. artikulua. Ikuskapenaren akta.

1. Ikuskatzaileek beren jarduketara bakoitzaren akta egiten dute. Bertan honako datu hauek adieraziko dira:

a) Ikuskatutako pertsona fisiko edo juridikoaren datuak.

b) Noren aurrean egiten den ikuskapena.

c) Jarduketaren arrazoiaren adierazpena.

d) Hauteman diren egitateak, kasuko inguruar bar jakingarriak eta ikuskapenean egon direnek egin nahi izan dituzten oharrak.

e) Agindutako neurriak.

2. Aktan jasotzen dituzten gertaerek frogabalia izan diren dute, indarra duen legerian xedatutakoaren arabera, deusetan ukatu gabe interesatuek beren eskubide edo interesen alde aurkezten ahal dituzten frogak.

3. Ikuskapen akta organo eskudunari igorriko zaio bidezko diren jarduketei ekiteko, zehapen prozedura barne, bidezko bada.

37. artikulua. Pertsona ikuskatuen betebeharrak.

Ikuskatzen diren pertsona fisiko edo juridikoek eginbehar hauek izanen dituzte:

a) Beren instalazio, produktu edo zerbitzuei buruz argibide guztiak ematea eta ikuskatzaileen egiaztapenak onartzea.

b) Agirien kopiak edo aldakiak egiteko erraztasunak ematea.

c) Produktu edo salgaien doako proba edo laginak behar diren kopuruetan hartzeko baimena ematea.

d) Eta, eskuarki, ikuskapenak onartu eta erraztea.

2. atala

Arau-hausteak eta zehapenak

38. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak.

1. Landare Osasunari buruzko azaroaren 20ko 43/2002 Legeko IV. Tituluan tipifikatzen direnak dira landare osasunaren arloko arau-hausteak. Zehapenak, haien mailaketa eta zehapen osagarriak lege horretan ezarrita daudenak dira.

2. Landare Osasunari buruzko azaroaren 20ko 43/2002 Legean tipifikatuz gain, honako hauek dira arau-hausteak:

a) Kontrol eginkizunez arduratzen diren pertsonak zerbaitera derrigortzea edo haiekin mehatxak, irainak, errepresaliak, indarkeria edo beste edonolako presiobide erabiltzea, delituak edo hutsegiteak ez badira, kasu horretan oso larritzat joko baitira.

b) Foru lege honetan ezarrita dagoena urratzen duen edozein ekintza edo omisio, 43/2002 Legean tipifikatuta ez badago, arintzat joko baita.

39. artikulua. Erantzukizuna arau-hausteengatik.

1. Ekintzagatik edo omisioagatik egiten dituztenak joko dira foru lege honetan tipifikatzen diren arau-hausteen erantzuletzat, legearen ez-bestetze soila bada ere.

2. Produktu ontziratuetan eta behar bezala prezintatuetan egindako arau-hausteengatik, etiketan zer izen edo sozietate ageri den, pertsona fisiko edo juridiko huraxe izanen da erantzulea, salbu eta edukitzaileak faltsifikatu edo produktua gaizki zaindu duela frogatzen bada, zaintze baldintzak ezagunak badira edo ontzian zehazten badira.

3. Solteko produktuekin edo jatorrizko prezintuak ez dauzkatenekin egiten diren arau-hausteen-

gatik haien edukitzailea izanen da erantzulea, salbu eta horrek lehenagoko edukitzaile baten erantzukizuna identifikatu eta frogatzen ahal duenean.

4. Betiere, ustezko erantzuleak frogatzen badu arau-haustea argibide ez egokiengatik gertatu dela edo erregelamenduetan eskatzen diren argibideak falta direlako eta beste pertsona bat, identifikatua, dela argibide horien erantzulea, azken honi egotziko zaio arau-haustea.

5. Arau-hauste bat pertsona juridiko bati egotzen bazaio, administratzaileak edo legezko ordekaritza daukatena ere jotzen ahalko dira erantzuletzat, aplikatzekoak diren lege edo estatutuekin bat, eginbehar urratuak betetzeko dagozkien ekintzak egiten ez badituzte, ez betetzeak egiteko bide ematen duten erabakiak hartzen badituzte edo beren menpekoenak onartzen badituzte.

40. artikulua. Zehatzeko eskumena.

Arloan eskudun den kontseilariari dagokio zehatzeko eskumena. Hark erregelamendu baten bidez ezarriko den prozedurari jarraituz eginen ditu bere eginkizunak. Hala ere, arloan eskudun den zuzendari nagusiaren esku uzten ahalko da zehatzeko ahalmenaren titulartasuna eta erabilera.

41. artikulua. Arau-hauste eta zehapenen preskripzioa.

1. Landare osasunari buruzko arautegiaren hausteek epe hauetan preskribatzen dute: arinek, urtebeteko epean; larriek, bi urteko epean; eta oso larriek, hiru urteko epean.

2. Arau-hausteek preskribatzeko epea arau hausten den egunetik hasiko da eta zehatzeko prozedura hastearekin batera etenen da, interesatuak jakinik. Epea berriro hasiko da espedientea ustezko erantzuleari ezin egotz dakiokkeen zergatiko batengatik hilabete baino gehiago geldirik badago.

3. Jarduera jarraitu baten ondorio diren arau-hausteetan, preskripzio epea kontaktzen hasteko eguna jarduera hori bukatzen dena izanen da edo arau-haustea gauzatu duen azken egintzarena.

4. Arau-hauste arinengatik ezarritako zehapenek urtebeteko epean preskribatuko dute; larrien ondoriozkoek, bi urteko epean; eta oso larrien ondoriozkoek, hiru urteko epean. Zehapenaren gaineko ebazpena irmo bihurtu eta biharamunetik aurrera hasiko da epea kontaktzen.

5. Interesatua jakinaren gainean egonik beteazpen prozedura hasteak zehapenaren preskripzioa etenen du eta berriz ere epea iraganen da prozedura hilabete baino gehiago geldiarazten

bada, salatuari egozten ahal ez zaizkion arrazoiengatik.

42. artikulua. Bestelako neurriak, zehapenak ez direnak.

1. Ez dira zehapentzat joko:

a) Aginduzko baimen edo erregistroak ez dauzkaten enpresa, instalazio, ustiategi, lokal edo garraiobideak ixtea edo haien funtzionamendua bertan behera uztea akatsak zuzendu arte edo baimena emateko eskatutako betebeharrak bete arte.

b) Landareen, landare produktuen edo bestelako gauzakien lote bat suntsitzea edo beste toki batera igortzea, izurri bereziki arriskugarri batez kutsaturik daudela zentzuz antzeman edo egiaztatzen denean edo landareen, abereen edo gizakien osasunerako edo ingurumenerako arriskugarriak direnean.

2. Arloan eskumena duen kontseilaria da neurri horiek hartzeko organo eskuduna.

3. atala

Betearazteko baliabideak

43. artikulua. Hertsatzeko isunak.

1. Ukituek foru lege honetan ezarritako eginbeharrak egin ezik edo 15. eta 34. artikuluetan aipatzen diren neurriak hartu ezik, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eskatzen ahalko die aski den epean haien bete ditzatela eta ohartaraziko ezen, bestela, hertsatzeko isun bat ezarriko diela. Kasuan kasuko zenbatekoa adieraziko da, gehienez ere 3.000 eurokoa.

2. Bete ezik, elkarren ondoko errekerimenduak egiten ahalko dira. Hertsatzeko isuna 100eko 20 handituz joanen da errekerimendu bakoitzean.

3. Ematen diren epeek aski luzeak izan behar dute kasuan kasuko neurria hartu ahal izateko eta neurria behar den denboran hartu ezik sor litezkeen kalteak saihesteko.

44. artikulua. Betearazpen subsidiarioa.

Ukituek behar den denboran eta moduan foru lege honen arabera egin beharreko neurriak edo eginbeharrak egin ezik edo departamentu eskudunak berehala jardun behar dela uste duenean, bete egingen dira, bere edo beste inoren baliabideekin, behartuaren kontu. Kostua premiamendu bidez kobratzen ahalko zaio, izan litezkeen zehapenak edo hertsatzeko isunak galarazi gabe.

Xedapen gehigarri bakarra. Landare Osasunerako Batzordea.

Foru Komunitateko Administrazioak landare osasunaren gaineko batzorde bat eratuko du. Haren osaera eta eginkizunak erregelamendu baten bidez ezarriko dira.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Indargabetutako xedapenak.

Indarrrik gabe gelditzen dira foru lege honetan ezarritakoaren kontrakoak diren maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetan lehenbizikoa. Erregelamenduetarako baimenak.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio foru lege hau garatu eta betearazteko behar diren erregelamenduzko arau guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetan bigarrena. Indar hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da obesitate abdominalari eta gaixotasun kardiobaskularrei buruzko kanpainak egin ditzan.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2007ko otsailaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da obesitate abdominalari eta gaixotasun kardiobaskularrei buruzko kanpainak egin ditzan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da obesitate abdominalari eta gaixotasun kardiobaskularrei buruzko kanpainak egin ditzan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Kanpainak egin ditzan gizartea sabel-loditasunaren eta gaixotasun kardiobaskularren artean dagoen loturaz kontzientzia har dezan.

2. Gaixotasun kardiobaskularrei aurrea hartzeko neurriak aplikatzeko beharra behin eta berriro azpimarratzea eta osasun politikaren arduradunak prebentzio faltak eragiten duen kostuaz ohartaraztea.

3. Herritarrei ezagutaraztea gerriko zirkunferentzia neurtzeak gaixotasun kardiobaskularrak saihesteko duen garrantzia.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da fibromialgiako eta neke kronikoaren sindrome ko gaixoen tratamendurako jarduketako protokolo bat taxutu dezan.

OSASUN BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da fibromialgiako eta neke kronikoaren sindrome ko gaixoen tratamendurako jarduketako protokolo bat taxutu dezan."

Legebiltzarreko Osasun Batzordeak 2007ko otsailaren 13an egindako bileran, erabaki zuen

aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko azaroaren 24ko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da diabetesa duten pertsonen identifikazioa, txapa edo eskumuturreko baten bitartez, erraztu dezan.

OSASUN BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da diabetesa duten pertsonen identifikazioa, txapa edo eskumuturreko baten bitartez, erraztu dezan"

Legebiltzarreko Osasun Batzordeak 2007ko otsailaren 13an egindako bileran, erabaki zuen

aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko abenduaren 1eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bulimia edo nerbio-anorexia duten gaixoentzat berariazko plan bat abian jar dezan.

OSASUN BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da bulimia edo nerbio-anorexia duten gaixoentzat berariazko plan bat abian jar dezan"

Legebiltzarreko Osasun Batzordeak 2007ko otsailaren 13an egindako bileran, erabaki zuen

aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko abenduaren 1eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 45,15 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,18 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,34 »	